# UPV/EHUko GARRAIOARI ETA MUGIKORTASUN IRAUNKORRARI BURUZKO TXOSTENA

UPV EHU

EUSKAMPUS

Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional

Euskampus
Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional

# AURKIBIDEA


1. **SARRERA** .... 4

2. **GAUR EGUNGO EGOERA** .... 6

2.1 JOAN-ETORRIETAKO OHITURAK .... 6
2.1.1 Arabako Campusa .... 7
2.1.2 Bizkaiko Campusa .... 10
2.1.3 Gipuzkoako Campusa .... 12
2.2 GARRAIOBIDEEN ESKAINTZA – CAMPUSEN IRISGARRITASUNA .... 15
2.2.1 Arabako Campusa .... 15
2.2.1.1 Gasteiztik Arabako Campusera .... 16
2.2.1.2 Arabatik Arabako Campusera .... 23
2.2.1.3 Bizkaitik Arabako Campusera .... 31
2.2.1.4 Gipuzkoatik Arabako Campusera .... 32
2.2.1.5 Gertuko beste probintzia batzuetatik Arabako Campusera .... 33
2.2.2 Bizkaiko Campusa .... 34
2.2.2.1 Bilbo aldea .... 45
2.2.2.2 Barakaldo .... 55
2.2.2.3 Portugalete .... 55
2.2.2.4 Leioa-Erandio .... 56
2.2.2.5 Arabatik Bizkaiko Campusera .... 57
2.2.2.6 Gipuzkoatik Bizkaiko Campusera .... 59
2.2.2.7 Gertuko beste probintzia batzuetatik Bizkaiko Campusera .... 62
2.2.3 Gipuzkoako Campusa .... 63
2.2.3.1 Donostiatik .... 63
2.2.3.2 Gipuzkoatik Donostiara .... 69
2.2.3.3 Bizkaitik Donostiara .... 75
2.2.3.4 Arabatik Donostiara .... 77
2.2.3.5 Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE .... 77
2.3 AZPIEGITURA BERRIAK .... 79
2.3.1 Abian diren azpiegitura berriak .... 79
2.3.2 Azpiegitura berrien proiektuak .... 80
2.4 LAGUNTZAK ETA DIRU LAGUNTZAK .... 87
2.4.1 Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta bekak .... 87
2.4.2 Arabako Foru Aldundiaren laguntzak .... 88
2.4.3 Hezkuntza Ministerioaren bekak eta laguntzak .... 88
2.5 APARKALEKU KOPURUA ETA APARKALEKUEN TIPOLOGIA .... 90
2.5.1 Arabako Campusa .... 90
2.5.1.1 Aparkatzeko guneak .... 90
2.5.1.2 TAO eremuak .... 94
2.5.2 Bizkaiko Campusa .... 96
2.5.2.1 Aparkatzeko guneak .... 96
2.5.2.2 TAO eremuak .... 101
2.5.3 Gipuzkoako Campusa .... 104
2.5.3.1 Aparkatzeko guneak .... 104
2.5.3.2 TAO eremua .... 107
2.6 IKASLEENTZAKO OSTATU ESKAINTZA .... 112
2.6.1 Arabako Campusa .... 112
2.6.1.1 Ikasleentzako unibertsitate egoitzak eta bizitokiak .... 112
2.6.1.2 Pisuak eta logelak alokatzea .... 115
2.6.1.3 Hirugarren adineko pertsonekin bizitzeko programa .... 115
2.6.2 Bizkaiko Campusa .... 116
2.6.2.1 Ikasleentzako unibertsitate egoitzak eta bizitokiak .... 116
2.6.2.2 Pisuak eta logelak alokatzea .... 120
2.6.2.3 Pisu solidarioak .... 120
2.6.3 Gipuzkoako Campusa .... 121
2.6.3.1 Ikasleentzako unibertsitate egoitzak eta bizitokiak .... 121
2.6.3.2 Pisuak eta logelak alokatzea .... 125
2.6.3.3 Hirugarren adineko pertsonekin bizitzeko programa .... 125
2.7 BALIOESPENA ETA ONDORIOAK .... 126

3. ABIAN DIREN JARDUKETEN HELBURU OROKORRAK – GOBERNU PROGRAMAN HARTUTAKO KONPROMISOAK ..... 129

3.1 GOBERNU PROGRAMAN HARTUTAKO KONPROMISOAK ..... 129
3.2 AURRERA ERAMAN DIREN JARDUKETAK ..... 131
3.2.1 AUTOA PARTEKATZEA ..... 131
3.2.2 Arabako Campusa ..... 132
3.2.3 Bizkaiko Campusa ..... 138
3.2.4 Gipuzkoako Campusa ..... 140

4 JARDUKETA PROPOSAMENAK ..... 145

# 1. SARRERA

## Helburua: unibertsitatean mugikortasun iraunkorra lortzea

Txosten honen helburua da UPV/EHUko garraioaren eta mugikortasunaren gaur egungo egoeraren berri ematea, eta arlo horretan aurrera eraman diren jarduketen eta jarduketa proposamenen berri ematea. Betiere, unibertsitatean mugikortasun iraunkorra lortzeko aurrerapausoak ematea da helburua, eta horrek gidatzen gaitu. Hain zuzen, helburu nagusi horretatik sortu dira gure jarduketak eta proposamenak aurrera eramateko irizpideetako edo jarduketen jarraibideetako batzuk.

Lehenik eta behin, joan-etorrien kopurua minimizatu nahi dugu, eta, horretarako, unibertsitateko ikasleak ikasketak egiten dituzten lekuan bizitzea sustatu eta, ahal izanez gero, egunero joan-etorrika ibiltzea saihestu nahi dugu. Halaber, printzipio horien oinarrian dago mugikortasunerako baliabide iraunkorragoak sustatzea; esate baterako, oinez edo bizikletaz ibiltzea. Garraiobide bigun horiek erabiltzea posible ez den kasuetan, garraio publikoa lehenesten dugu. Azkenik, auto partikularraren erabilera gutxitu nahi dugu, eta, horretarako, okupazio altuko autoen erabilera sustatuko dugu.

Beste jarraibide batzuk **Euskampus proiektuaren harira** sortu dira. Hain zuzen ere, gure unibertsitatea **Nazioarteko Bikaintasun Campus** izendatzeko estrategia bat diseinatzean datza Euskampus proiektua. Nazioarteko Bikaintasun Campusaren izendapena lortzeko proiektuaren asmoa da Euskampus Euskal Herriko ekonomia eraldatzeko prozesuaren eragile izatea, eta, aldi berean, irakaskuntzaren, arlo zientifikoaren eta teknologiaren erreferentzia puntu izatea Europako ardatz atlantikoan. Zehatzago, txostenaren edukiari dagokionez, erreferentziazko eredu bilakatu nahi dugu lurralde garapenaren arloan eta Euskal Herriko gizarte, kultura eta ingurumen erronkak konpontzeko irtenbideak bilatzearen arloan. Bereziki azpimarragarriak dira honako arlo, ardatz eta jarduketa hauek:

- ✓ Campusa errotik aldatzea, gizarte eredu integral bat garatzeko eta campusa lurralde ingurunearekin interakzioan kokatzeko.
- ✓ Unibertsitate proiektu iraunkorra.
- ✓ Campus soziala, kalitatezko ingurune batean.
- ✓ Unibertsitate campusak ekonomia iraunkorreko eredu batean parte hartzea.
- ✓ Unibertsitatea-hiria-lurraldea.

Bestalde, kontuan izan behar da unibertsitateak ez duela eskumenik garraio publikoari buruzko gaietan; horrenbestez, arlo horretako jarduketak eskumena dute erakundeen bitartez gauzatu behar dira, haiek hartzen baitituzte, azken batean, erabakiak.

Halaber, aintzat hartu behar da garrantzi handiko beste alderdi bat: gure unibertsitatearen egitura campus askok osatzen dute. Campus bakoitzak bere nortasuna du, bere baliabideak eta bere baldintzak, are mugikortasun gaietan ere. Hori dela eta, jarduketak campuska prestatu behar dira; ezin dira esku-hartze berberak egin hiru campusetan modu orokor batean; izan ere, zeinek bere arazoak, baliabideak, hiri ingurunea eta lurralde ingurunea ditu.

Txostena hiru zati handitan antolatu dugu. Lehenengoan, gaur egungo egoeraren azterketa sakon bat egin dugu, hainbat ikuspegitatik, elkarren osagarriak guztiak ere. Campusaren lurralde eskala aintzat hartzen ahalegindu gara, eta joan-etorrietarako ohiturak, garraio publikoaren eskaintza eta mugikortasuna zehatz-mehatz aztertu dugu. Beharrezkoa izan den kasuetan, ikastegiak banaka aztertu ditugu. Lehen zatiko beste bi ataletan, garraio azpiegitura handi berriak deskribatu ditugu, bai gauzatze bidean direnak, bai proiektuak, eta, halaber, unibertsitateko ikasleek ikasketak direla-eta egin behar dituzten joan-etorrietarako laguntzak eta diru laguntzak aztertuko ditugu. Beste atal batean, campusek eskaintzen duten plaza eta aparkaleku kopuruaren berri eman dugu; batetik, unibertsitatearenak direnak, eta, bestetik, inguruko leku publikoak. Atal horretan aztertu dugu, halaber, zer baldintza dituen Trafikoaren eta Aparkamenduaren Ordenamenduak (TAO). Ikasleen bizilekuak eragin handia du ikasleen mugikortasunean, eta, ildo horretatik, ikasleentzako egoitzen eskaintza aztertu dugu. Lehen zatia amaitzeko, bildutako informazio guztia balioetsi dugu, eta, balioespen horretan, aldeko eta aurkako egoerak nabarmendu ditugu.

Bigarren zatian, hiru campusetan mugikortasunaren arloan egin ditugun jarduketen berri emango dugu. Hirugarren eta azken zatian, etorkizun hurbil batean garatzea aurreikusi ditugun jarduketak aurkeztuko ditugu.

# 2. GAUR EGUNGO EGOERA

## 2.1 JOAN-ETORRIETAKO OHITURAK

Joan-etorrietako ohiturak aztertu ditugu UPV/EHUko kideen artean, eta, horretarako, gai horri buruz txosten eta azterketa teknikoetan jasotako informazio guzti-guztia bildu dugu:

- “Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Donostialdetik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Gipuzkoako Campusera joaten diren ikasleak”. 2009an ADOS Red de Campo S.L. enpresak egindako azterketa.
- “Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Gasteiztik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Arabako Campusera joaten diren ikasleak”. 2009an ADOS Red de Campo S.L. enpresak egindako azterketa.
- “UPV/EHUren unibertsitate egoitzetan izan litekeen plaza eskariaren azterketa”. 2010ean José Antonio Oleagak (UPV/EHU) eta Eider Alkortak egindako azterketa.
- “UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko irisgarritasunari buruzko azterketa”. 2008ko otsailean Eryba S.A. enpresak egindako azterketa.
- “Leioako Campusaren irisgarritasunaren azterketa”. 2007an Eryba S.A. enpresak egindako azterketa.
- “Arabako Campusaren irisgarritasunaren azterketa”. 2007an Eryba S.A. enpresak egindako azterketa.
- “Gazteriari eta garraioari buruzko azterketa”. 2007an IKEI enpresak Eusko Jaurlaritzarentzat egindako azterketa.
- “Euskal Autonomia Erkidegoko gazteek espazioan mugitzeko jarraitzen dituzten ereduak”. 2007an Gazteen Euskal Behatokiak egindako azterketa.

### 2.1.1 Arabako Campusa

2010eko datuen arabera, Arabako Campusean matrikulatuta dauden ikasleen % 35,5 Gasteizen bizi dira. Bestalde, ikasleen % 27 egunero joaten ziren Gasteiza, baina, azkenean, haietatik % 29,8k erabaki dute Gasteizen bizitzen jartzea. Azkenik, ikasleen % 7,7 Gasteiztik kanpo bizi dira, baina ez dira eskoletara joaten.

Gasteiztik kanpo bizi direnen artean, bi ohituraren arabera jokatzen dute Campuseko joan-etorriei dagokienez:

1. Egunero ohiko bizilekutik Gasteiza joatea. Ikasleen % 47,5ek egiten dute (3.530 pertsona).
2. Ikasturtean zehar Gasteizen bizitzea. Ohikoan Gasteiztik kanpo bizi diren ikasleen % 52,5ek egiten dute (3.902 pertsona).

Garbi dago Campusera joateko bi era dakartzatela bi jokaerok: batetik, Arabako Campusera egunero joaten diren ikasle gehienek hiriarteko garraio publikoa erabiltzen dute, eta, bestetik, Gasteizen bizi direnak (Gasteiz ohiko bizileku izan edo ez izan) oinez, bizikletan edo hiriko garraio publikoan joaten dira Campusera.

Gasteizen bizitzen jartzen diren ikasleen jatorriari dagokionez, honako datu hauek bildu zituzten 2008/2009 ikasturtean:




1. irudia: Gasteizen bizitzen jartzen diren ikasleen jatorria. 2009ko datuak (Iturria: “Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Gasteiztik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Arabako Campusera joaten diren ikasleak”)

Gasteizen bizi diren ikasleen jatorria eskualdeka aztertuz gero, distantziak eta garraio motak neurri handi batean baldintzatzen dituzte ehunekoak, irudi honetan ikus daitekeenez:




2. irudia: Gasteizen bizi diren ikasleen jatorria eskualdeka. 2009ko datuak (Iturria: “Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Gasteiztik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Arabako Campusera joaten diren ikasleak”)

Gasteizen bizi diren ikasleen artean, ohikoa da Campusera bizikletan edo oinez joatea; bizilekua unibertsitate eremutik hurbil duten kasuetan, batez ere. Izan ere, hiri txikia da Gasteiz, eta zelai-zelaia.

Arabako Campusera egunero joaten direnei dagokienez, oro har, matrikulatuta dauden ikasleen % 57k autobusa erabiltzen dute; % 33k, autoa; eta % 10ek, berriz, trena. Campusera joateko behar duten denborari erreparatuz, honako datu hauek ditugu:




3. irudia: Campusera egunero joaten diren ikasleek joan-etorrietan behar duten denbora. 2009ko datuak (Iturria: “Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Gasteiztik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Arabako Campusera joaten diren ikasleak”)

Campusera egunero joaten diren ikasleen kasuan, Burgostik joaten direnek 37 km egiten dituzte batez beste; Arabatik joaten direnek, 38 km; Bizkaikoek, 66 km; Nafarroakoek, 78 km; eta Gipuzkoakoek, 82 km.

2.2.1 atalean zehaztuko dugu zein garraio eskaintza dagoen gaur egun Arabako Campusera joateko, bai Gasteiztik bertatik bai ondoko herri eta probintzietatik joateko.

### 2.1.2 Bizkaiko Campusa

2010eko datuen arabera, Bizkaiko Campusean matrikulatuta dauden ikasleen % 21 beren unibertsitate ikastegia kokatuta dagoen udalerritik beretik joaten dira Campusera; % 59,9, berriz, beste udalerriren batetik joaten dira, egunero (13.996 pertsona); % 12,1ek ikasketak egiten dituzten udalerrian bizitzea erabaki dute (Bilbon, Leioan, Barakaldon edo Portugaleten); eta % 7, berriz, beste tokiren batean bizi dira, baina ez dira eskoletara joaten.

Bizkaiko Campuseko ikasleen % 8 Araban bizi dira (Gasteiz alde batera utzita); % 73 Bizkaian; % 11 Gipuzkoan; % 2 Nafarroan edo Errioxan; % 4 Burgosen edo Kantabrian; eta % 2 Estatuko beste tokiren batean edo atzerrian. Bizkaian bizi diren ikasle gehienak Bilbon bizi dira, eta beste udalerriren bateko ikastegietara joaten dira (% 16); ondoren, Barakaldon (% 9,5), Portugaleten (% 4,9) eta Leioan (% 2,4) bizi direnak daude. Gainerakoak (% 67,3) Bizkaiko beste toki batzuetan bizi dira.

Bestalde, Bizkaiko Campuseko ikasleak unibertsitate udalerrika banatuz gero, honako ehuneko hauek ditugu:




4. irudia: Bizkaiko Campuseko ikasleak unibertsitate udalerrika. 2010eko datuak (Iturria: “UPV/EHUko unibertsitate egoitzetan izan litekeen plaza eskariaren azterketa”)

Oro har, Bizkaiko Campusean matrikulatuta dauden ikasleen % 47,7 autobusez joaten dira Campusera; % 21,6k metroa erabiltzen dute; % 18,4k autoa; eta % 11,9 trenez ibiltzen dira.

Bizkaiko Campusera egunero joaten diren ikasleek 25,61 km egiten dituzte batez beste, eta 40 minutu inguru behar izaten dute bidaia egiteko. Gipuzkoatik joaten direnek, berriz, 71,02 km egiten dituzte; Arabakoek, 54,81 km; beste probintzia batzuetakoek, 37,17 km; eta distantzia laburragoa egiten dute, azkenik, Bizkaian bizi direnek (19,15 km).

Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremua berezia da, hirigunetik kanpo baitago, Bizkaiko Campuseko gainerako ikastegiak ez bezala. Horregatik, hango ikasleek mugatuagoa dute garraioa. Araban eta Gipuzkoan bizi diren ikasle gehienak autobusez

joaten dira Leioa-Erandio eremura, eta ordutegi jakin batzuetara egokitu beste aukerarik ez dute, kontuan izanik autobusak ez direla maiztasun handiz ibiltzen eta jai egunetan ez dela zerbitzurik izaten.

Bizkaitik Leioa-Erandio eremura joaten diren ikasleen kasuan, Enkarterrian bizi direnek dute zailtasun gehien Campusera joateko (Turtziozen, Artzentalesen eta Karrantzan bizi direnek, gehienbat): Leioa-Erandio eremura joateko, hiru aldiz aldatu behar dute autobusa, eta horrek denbora eta diru gastua dakar ezinbestean.

Bizkaiko Campuseko gainerako ikastegietara joateko, garraio zerbitzu hobea dago; 2.2.2 atalean zehaztuko dugu.

### 2.1.3 Gipuzkoako Campusa

2010eko datuen arabera, ikastegia kokatuta dagoen udalerri berean bizi dira Gipuzkoako Campusean matrikulatuta dauden ikasleen % 43,4; % 28,7 egunero joaten dira beren bizilekutik unibertsitatera (2.122 pertsona); % 17,6k bizilekua aldatzen dute ikasturtean zehar; eta % 10,3 beste tokiren batean bizi dira, baina ez dira eskoletara joaten.

Donostian matrikulatuta dauden ikasleen % 61,9 egunero joaten dira Donostiara, eta % 38,1, berriz, Donostian bertan bizi dira.

Donostian bizitzen jartzen diren ikasleen jatorria eskualdeka aztertuz gero, pentsatzekoa den bezala, distantziak eta garraio eskaintzak zeharo baldintzatzen dituzte ehunekoak:




5. irudia: Donostian bizi diren ikasleen jatorria eskualdeka. 2009ko datuak (Iturria: “Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Donostialdetik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Gipuzkoako Campusera joaten diren ikasleak)

Ikasleen % 77 beste udalerri batetik joaten dira, egunero, Donostiara; % 17, astean bi edo hiru egunetan; % 4, astean behin; eta gutxiagotan gainerako % 2a.

Donostiatik kanpo bizi diren ikasleei dagokienez, % 48 autobusez joaten dira Campusera; % 21, trenez; eta gainerako % 31k beren autoa erabiltzen dute. Ikasleen % 60k 60 minutu baino gehiago behar izaten dute bidaia egiteko:




6. irudia: Gipuzkoako Campusera egunero joaten diren ikasleek joan-etorrirako behar duten denbora. 2009ko datuak (Iturria: "Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Donostialdetik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Gipuzkoako Campusera joaten diren ikasleak")

Ikastegiko udalerri berean bizi diren ikasleen ohiturei dagokienez, ikasleen % 44k autobusa erabiltzen dute; kopuru altu samar batek, % 33k, autoa erabiltzen dute; % 6 trenez joaten dira; eta, motorrik gabeko garraiobideei erreparatuz, % 8k bizikleta erabiltzen dute, eta % 9 oinez joaten dira.

Campusera egunero joaten diren ikasleei erreparatuz, Gipuzkoatik beretik joaten direnek 34 km egiten dituzte batez beste; Nafarroakoek, 63 km; Bizkaikoek, 93 km; eta Arabakoek, 113 km. Batez beste 1 ordu eta 5 minutu behar izaten dute bidaia egiteko.

**Eibar**ko Industria Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskolari dagokionez, Arabatik ia inor ez da joaten, eta ikasle gehiago joaten da Bizkaitik eta Gipuzkoatik. Ikasle gehiago joaten da bere ibilgailu pribatuan, garraio publikoan baino. Izan ere, ikasleen % 34k erabiltzen dute garraio publikoa, eta % 49k, berriz, autoa. Oinez, berriz, ikasleen % 17,24 joaten dira.

## 2.2 GARRAIOBIDEEN ESKAINTZA – CAMPUSEN IRISGARRITASUNA

### 2.2.1 Arabako Campusa

Arabako Campuseko ikastegi gehienak Gasteizko hegoaldean daude, tren geltokiaren ondoan. Salbuespen dira Medikuntzako Irakaskuntza Gunea eta Erizaintzako Unibertsitate Eskola (Txagorritxu ospitalearen eremuan baitaude), eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea (Lasarteko bidea, 71). Campuseko eskola eta fakultate gehienak, beraz, hiriko gune jakin batean daude; hemendik aurrera, “Arabako Campusaren erdigunea” izendapena erabiliko dugu. Gainerako kasuetan, berariaz emango dugu eskolaren edo fakultatearen izena: Medikuntzako Irakaskuntza Gunea, Erizaintzako Unibertsitate Eskola atxikia, eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea.




7. irudia: Arabako Campuseko ikastegiak

**Arabako Campuseko ikastegiak:**

Enpresa Ikasketen UE
Ingeniaritzako UE
Irakasleen UE
Gizarte Langintzako UE
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea
Farmazia Fakultatea
Letren Fakultatea
Medikuntzako Irakaskuntza Gunea
Erizaintzako UE atxikia

Hurrengo atalean, Arabako Campuseko ikastegietara joateko garraiobideen berri emango dugu, lau azpiataletan banaturik. Lehenik, Gasteiztik Campusera joateko garraiobideez arituko gara; bigarrenik, Arabatik Campusera joateko garraiobideez; hirugarrenik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik Campusera joateko garraiobideez; eta, azkenik, beste toki batzuetatik Campusera joateko garraiobideez. Antzeko eskema erabiliko dugu Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusetako garraiobideei buruzko atalean.

#### 2.2.1.1 Gasteiztik Arabako Campusera

Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana aurkeztu zutenetik, Gasteizko garraio publikoaren sarea berregituratu eta birdimentsionatu egin da, eta baita motorrik gabeko garraiobide iraunkorrekin lotutako azpiegiturak ere. Plan horren helburuak honako hauek dira:

- Garraio publikoaren sarea eta bizikleta erabiltzea sustatzea.
- Ibilgailu pribatuen trafikoa bideratzea.
- Oinezkoentzako gune gehiago sortzea.
- Trafikoak hartzen duen espazio publikoaren zati bat herritarrek erabiltzeko uztea (oinezkoentzako irlak edo super etxadiak).
- Aparkaleku gehiago eraikitzea.
- Bidegorri sare seguru eta funtzional bat eraikitzea.

- HIRI AUTOBUSAK

2008ko urriaz geroztik, hiri autobus linea berriak daude Gasteizen. Tranbia zerbitzuarekin koordinatuta, itxarote denbora nabarmen jaitsi da, eta hiriaren kanpoaldeko auzoetatik ere errazago iristen dira hiriko gainerako tokietara.




8. irudia: Gasteizko garraio publikoaren sarea gaur egun (Iturria: Gasteizko Udala)

8. linea (Unibertsitatea) zirkularra da. Arabako Campusaren erdigunean gelditzen da, eta oso ongi lotuta dago gainerako autobus lineekin. Autobus linea bat baino gehiago konbinatuta erabiltzea sustatzeko, autobusez aldatzea doakoa da lehen autobusa hartzen denetik 50 minuturako tartean. Lanegunetan, autobusak 10 minututik behin ibiltzen dira, goizeko 6:10etik hasita gaueko 22:20 arte, etenik gabe.

Gasteizko **Medikuntzako Irakaskuntza Gunea** eta **Erizaintzako Unibertsitate Eskola atxikia** Txagorritxu ospitalearen eremuan daude. Hara joateko, 2. linea (Periferikoa) eta 7. linea (Sansomendi-Salburua) har daitezke (Jose Atxotegi, 22-ko geltokia).




9. irudia: 8. linearen ibilbidea (Unibertsitatea) (Iturria: Gasteizko Udalaren webgunea)




10. irudia: 2A linearen ibilbidea (Periferikoa) – Zaramaga / Boulevard merkataritza zentroa (Iturria: Gasteizko Udalaren webgunea)

**Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea**ri dagokionez, Salbatierrabide kaleko geltokian (Mendizorrotza ondoan) gelditzen da 2. linea (Periferikoa), Fakultatetik 10 minutura (oinez), eta Lasarteko bidean, berriz, 8. linea (Unibertsitatea).




**Noizero eta ordutegiak / Frecuencias y horarios**

| IRTEERAK<br>SALIDAS | ASTEGUNETAN<br>LABORABLES | LARUNBATETAN<br>SÁBADOS | JAIEGUNETAN<br>DÍAS FESTIVOS | ASTEGUNETAN ABUZTUA<br>LABORABLES AGOSTO |
|---|---|---|---|---|
| Paula Montal / Escolapias | 5:40 6:10 6:30<br>6:50 a 21:30 cada 10´<br>21:50 22:00 | 7:00 a 23:00 cada 15´ | 8:00 a 22:00 cada 20´<br>22:20 hasta Prado | 6:15<br>7:00 a 21:45 cada 15´<br>22:15 |
| Iliada / Bulevar Salburua | 5:10 6:20<br>6:50 a 20:50 cada 10´<br>21:10 21:20 21:30<br>21:40 21:50* 22:00 | 6:50 a 23:05 cada 15´ | 8:00 a 22:00 cada 20´<br>22:20 hasta Catedral | 6:20<br>6:50 a 21:35 cada 15´<br>22:20 |

*21:50 Katedraleraino   Catedral, Prado, Iliada / Bulevar Salburua: ordua egokitzeko geltokiak   Paula Montal / Escolapias: bide amaierako geltokia

11. irudia: 7. linearen ibilbidea (Sansomendi-Salburua) (Iturria: Gasteizko Udalaren webgunea)

- TRANBIA

**Tranbia**k goizeko 6:00etatik gaueko 23:00ak arte ematen du zerbitzua. Angulema kaletik ateratzen da 7,5 minututik behin, eta Ibaiondotik eta Abetxukotik 15 minututik behin. **Arabako Campuseko erdigune**tik gertuen dauden geltokiak Legebiltzarrekoa eta Angulema kalekoa dira, Campusetik 10 minutura (oinez). Eragozpen gisa, esan beharra dago trenbideak hesi efektua egiten duela. **Medikuntzako Irakaskuntza Gune**ra eta **Erizaintzako Unibertsitate Eskola**ra joateko, Txagorritxu geltokian jaisten dira ikasleak.

Tranbian, bagoi bakoitzeko bi bizikleta igotzen uzten dute gehienez ere, haurren orgatxoen lekuan, baldin eta lekurik badago.

Tranbiaren hemezortzi geltokietatik hamar hiri autobusekin lotuta daude, eta haietatik hiru, gainera, 8. linearekin (Unibertsitatea). Tranbiatik autobusera aldatuz gero, bidaiariek 0,03 € ordaindu behar dute; alderantziz, autobusetik tranbiara aldatuz gero, 0,09 € ordaindu behar da.




12. irudia: Gasteizko tranbia sarea (Iturria: Gasteizko Udalaren webgunea)

- BIDEGORRIA

Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Planaren helburuetako bat da **bidegorri** sare seguru eta funtzional bat eraikitzea. Horrenbestez, Gasteizko Bizikleta Mugikortasunaren Gida Plana (2010-2015) idatzi zuten, eta dokumentu horrek sare nagusi bat eta bigarren mailako sare bat aurreikusten ditu, abiapuntutik sare nagusira edo sare nagusitik helmugara iristeko. Sare nagusiaren % 87,8 herritar gehienen eskura egotea da asmoa (alegia, herritarrek bidegorria etxetik 250 m baino gutxiagora izatea). 14. irudian ikus daiteke Gasteizko gaur egungo bidegorria, eta baita bidegorriak Arabako Campusaren inguruan marrazten duen bidea ere.




13. irudia: Gasteizko gaur egungo bidegorria (Iturria: Gasteizko Udalaren webgunea)

14. irudian ageri denez, bidegorriak **Arabako Campuseko erdigunea** zeharkatzen du; alegia, hiriko edozein tokitatik irits daiteke Campusera bidegorria erabilita. Horrez gain, bizikleta uzteko toki ugari dago eremu horretan. Halaber, **Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea** eta **Erizaintzako UE atxikia** ere bidegorri sarean daude, eta bizikleta uzteko tokiak dituzte unibertsitate eraikinetan beretan.

Gainera, Gasteizen bada Bizikleten **Mailegu** Zerbitzua. Mailegu gunerik hurbilena Hegoalde gizarte etxean dago (Alberto Schommer kalea, 10), Arabako Campuseko erdigunetik 700 m-ra. Campuseko gainerako ikastegiak antzeko egoeran daude, edo mailegu guneetatik are urrutiago. Oraingoz, doako zerbitzua da, eta bizikleta bat maileguan har daiteke 4 ordurako.

Gasteizko Udalak berriki iragarri du mailegu zerbitzua automatizatuko duela eta diru kopuru sinboliko bat kobratuko duela. Zerbitzuaren ordutegiari dagokionez, aldatu egiten da mailegu gune batetik bestera; nolanahi ere, zerbitzua ez dute 9:30 baino lehenago irekitzen. Beharbada, zerbitzua automatizatzearekin batera, ordutegia ere zabalduko dute.

15. irudian ikus daiteke gaur egungo bidegorri sarearen ibilbidea, eta baita sare nagusia eta bigarren mailako sarea egiteko proposamena ere.




14. irudia: Grisez eta beltzez, proposatutako bidegorria. Urdinez, gaur egungo bidegorria (Iturria: Gasteizko Bizikleta Mugikortasunaren Gida Plana, 2010-2015)

15. irudian ageri denez, etorkizunerako proposatutako bidegorri sareak eremu zabalagoa hartuko du, eta, horrenbestez, gaur egun bidegorririk ez duten eremu batzuek ere bidegorria izango dute. Ondorioz, errazagoa izango da Gasteizko edozein tokitatik Arabako Campusera bizikletaz joatea.

#### 2.2.1.2 Arabatik Arabako Campusera

Autobus konpainia bakoitzak bere tarifak jartzen ditu; zenbaitetan, deskontuak egiten dituzte linea jakin batzuetarako bonuak erostearen truke, lanegunetan. Ondoren, astelehenetik ostiralera Arabako herriak Gasteizekin lotzen dituzten zerbitzuen berri emango dugu.

- ZUIAKO KUADRILLA
  - Aramaio – Gasteiz: lau zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 7:15, 12:15, 15:35 eta 18:45), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Ibarra, Kruzetako gaina, Albina, Legutio, Goiaingo industrialdea[*], Urbina[*], Luku[*], Miñao[*], Erretana[*], Gamarra[*] eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Goizeko lehen autobusa 8:00etan iristen da Gasteiza, eta azkena arratsaldeko 19:45ean irteten da, Gasteiztik.
  - Etxaguen – Gasteiz: lau zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 7:00, 9:30, 15:30 eta 20:45), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Akosta[*], Zestafe[*], Etxaguen, Murua, Larrinoa, Maurga, Zarate[*], Ondategiko bidegurutzea, Gopegi, Eribe[*], Buruaga[*], Berrikao[*], Apodaka eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Goizeko lehen autobusa 7:45ean iristen da Gasteiza, eta azkena arratsaldeko 20:05ean irteten da, Gasteiztik.
- AIARALDEA
  - Izarra – Gasteiz: bost zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 7:00, 9:00, 12:00, 16:15 eta 19:00), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Izarra, Beluntza, Ametzaga Zuia, Sarria, Murgia, Zaitegi eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa 7:50ean iristen da Gasteizko autobus geltokira, baina, aurretik, **unibertsitate campusean gelditzen da**. Azken autobusa, berriz, arratsaldeko 18:00etan irteten da Gasteiztik. Itzuleran Zaitegira joan nahi izanez gero, aldez aurretik abisatu behar da.
  - Artziniega – Amurrio – Gasteiz: sei zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, goizez (irteera orduak: 8:00, 9:15, 12:30 eta 13:40), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Artziniega, Llanteno, Menagarai-Beotegi[*], Arespalditza, Amurrio, Larrinbe, Lezama, Izarra, Ametzaga Zuia, Murgia eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa 8:00etan iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena eguerdiko 13:40an irteten da, Gasteiztik. Zerbitzu guztietako autobusak **unibertsitate campusean gelditzen dira**.

[*] Aldez aurretik abisatu behar da.

- Okondo – Laudio – Gasteiz: sei zerbitzu izaten dira Okondotik Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 6:30, 7:15, 8:30, 9:30, 11:00 eta 13:30), eta Laudiotik, berriz, hamahiru zerbitzu izaten dira, egunez (irteera orduak: 6:45, 7:30, 7:45, 8:45, 9:45, 11:15, 12:15, 13:45, 14:30, 15:00, 17:00, 18:30 eta 19:45). Honako geltoki hauetan gelditzen da: Okondo, Areta, Laudio, Luiaondo, Amurrio, Larrinbe, Lezama, Ametzaga Zuia, Murgia eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa 7:35ean iristen da Gasteizko autobus geltokira, Okondo, Areta eta Laudio herrietatik. Nerbioi haraneko gainerako herrietatik Gasteiza joateko autobusa, berriz, goizeko 8:40an iristen da Gasteiza. Gasteiztik Laudiora joateko azken autobusa 22:15ean irteten da Gasteiztik; Okondora joatekoa, berriz, 20:00etan irteten da. Zerbitzu guztietako autobusak **unibertsitate campusean gelditzen dira**.

- AÑANAKO KUADRILLA

- Bóveda – Gasteiz: bost zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 6:30, 9:30, 16:30, 19:15 eta 21:40), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Bóveda, Tobillas, Corroko bidegurutzea, San Millán de San Zadornil, Gurendes-Quejo bidegurutzea, Uribarri Gaubea, Villanañe, Espejo, Tuestako bidegurutzea, Gesaltza Añana, Padul, Pobes, Mandaitako bidegurutzea, Olabarriko bidegurutzea, Langraiz Oka, Ariniz* eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa 7:55ean iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta, aurretik, **unibertsitate campusean gelditzen da**. Azken autobusa, berriz, arratsaldeko 20:30ean irteten da Gasteiztik.

- Langraiz Oka – Gasteiz: bost zerbitzu izaten dira Mandaitatik Gasteiza joateko (irteera orduak: 8:00, 1:30, 12:45, 18:10 eta 20:45), eta Olabarritik, berriz, sei (irteera orduak: 8:05, 11:35, 12:50, 14:00, 18:15 eta 20:50), egunez. Honako geltoki hauetan gelditzen da: Mandaita, Olabarri, Langraiz Oka, Subillabide industrialdea (14:00etatik aurrera), Langraiz Oka (espetxea)* eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Goizeko lehen autobusa 8:40an iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena 21:00etan irteten da, Gasteiztik.

- Gasteiz – Billoda – Gasteiz: linea zirkularra da. Sei zerbitzu izaten dira, egunez (irteera orduak: 6:45, 7:35, 9:00, 14:00, 18:45 eta 20:00), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Gasteiz, Billoda, Tresponde, Mendoza*, Martioda*,

---

* Aldez aurretik abisatu behar da.

Otobarren*, Otogoien*, Estarroako bidegurutzea*, Uribarri Dibiña*, Gereña*, Mandoia*, Foronda*, Artatza Foronda*, Andetxa* eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Goizeko lehen autobusa 7:35ean iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena, berriz, arratsaldeko 20:00etan irteten da, Gasteiztik.

- <u>Espejo – Gasteiz</u>: lau zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 6:40, 9:25, 16:30 eta 19:20), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Espejo, Bergonda, Larrazubi, Fontecha, Zubillaga, Komunioi, Miranda Ebro, Rivabellosa, Armiñón eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Goizeko lehen autobusa 7:52an iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena arratsaldeko 20:45ean irteten da, Gasteiztik.

- ARABAKO ERRIOXA

  - <u>Bastida – Gasteiz</u>: zortzi zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 7:00, 9:30, 10:30, 13:00, 13:30, 16:10, 17:15 eta 19:15), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Bastida, Haro, Briñas, Gatzaga Buradon, Zanbrana, Armiñón, Argantzun eta Gasteiz (**unibertsitate campusean gelditzen da**). Goizeko lehen autobusa 7:45ean iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena arratsaldeko 20:30ean irteten da, Gasteiztik.
  - <u>Logroño – Gasteiz</u>: lau zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 7:00, 10:00, 14:00 eta 20:00), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Serna, Asa, Guardia, Eltziego, Navaridas, Leza, Samaniego, Abalos, Bastida, Haro, Briñas, Gatzaga Buradon, Zanbrana, Miranda Ebro, Lacorzanilla, Armiñón, Argantzun eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Goizeko lehen autobusa 9:00etan iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena arratsaldeko 19:00etan irteten da, Gasteiztik.

- ARABAKO MENDIALDEA

  - <u>Lizarra – Gasteiz</u>: hiru zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 8:30, 16:15 eta 20:45), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Lizarra, Zubielki, Zufia, Murieta, Mendilbarriko bidegurutzea, Antzin, Acedo, Zuñigako bidegurutzea, Santikurutze Kanpezu, Antoñanako bidegurutzea, Atauri, Maeztu, Birgarabarren, Birgaragoien, Azazeta, Egileta, Ixonako bidegurutzea, Trokonizko bidegurutzea, Andollu, Argandoña, Elorriaga eta Gasteiz (**unibertsitate**

**campusetik hurbil ere gelditzen da**). Goizeko lehen autobusa 9:45ean iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena arratsaldeko 20:45ean irteten da, Gasteiztik.

- Kontrasta – Gasteiz: lau zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez, eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Kontrasta, Uribarri Harana, Alda, Done Bikendi Harana, Oteoko bidegurutzea, Orbiso, Santikurutze Kanpezu, Antoñanako bidegurutzea, Atauri, Maeztu, Birgaragoien, Birgarabarren, Azazeta, Egileta, Ixonako bidegurutzea, Ixona, Tronkonizko bidegurutzea, Andollu, Argandoña, Elorriaga eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa **unibertsitate campusean gelditzen da**, eta 7:40an iristen da Gasteizko autobus geltokira. Azkena, berriz, arratsaldeko 18:30ean irteten da, Gasteiztik.

- Uribarri Nagusia – Gasteiz: lau zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 7:30, 10:30, 14:50 eta 18:50), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Uribarri Nagusia, Bolibar, Gamiz, Aberasturi, Otazu eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Goizeko lehen autobusa 7:50ean iristen da Gasteizko autobus geltokira, eta azkena arratsaldeko 18:30ean irteten da, Gasteiztik.

- Bernedo – Lagran – Gasteiz: bost zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 6:50, 9:00, 16:00, 19:10 eta 21:00), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Bernedo, Villafría, Villaverdeko bidegurutzea, Lagran, Pipaon, Urizaharra, Aranako bidegurutzea, Armentia, Trebiñuko Bentak, Uzkiano, San Vicentejoko bidegurutzea, Gardelegi eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa **Gasteizko unibertsitate campusean ere gelditzen da**, eta 7:45ean iristen da autobus geltokira. Azken autobusa, berriz, arratsaldeko 20:10ean irteten da, Gasteiztik. Itzulera Gasteiz – Bernedo lineako autobusa hartuta egin behar da; autobus hori ez da gelditzen Aranako bidegurutzean, Urizaharrean, Pipaonen, Lagranen, Villaverden eta Villafrían.

• ARABAKO LAUTADA

- Araia – Ozeta – Gasteiz: bost zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera orduak: 6:45, 9:30, 15:00, 17:15 eta 19:05), eta honako geltoki hauetan

gelditzen da: Araia, Iduia auzoa, Araiako industrialdea*, Ametzagako bidegurutzea, Zalduondo, Galarreta, Gordoa, Arriolako bidegurutzea, Narbaxa, Barriako bidegurutzea, Axpuru, Larrea, Hermua, Ozeta, Matura, Venta del Patio, Argomaiz, Arbuluko bidegurutzea, Matauku, Ilarratza, Arkauti, Elorriaga eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa 7:35ean iristen da **Gasteizko autobus geltokira**, eta azkena arratsaldeko 20:15ean irteten da, Gasteiztik.

- Araia – Dulantzi – Gasteiz: bost zerbitzu izaten dira Gasteiza joateko, egunez (irteera ordua: 6:45, 9:00, 14:00, 16:15 eta 19:15), eta honako geltoki hauetan gelditzen da: Araia, Zalduondo, Erdoña, Agurain, Gazeo, Langarika, Alaitzako bidegurutzea, Gereñu, Uribarri Jauregi, Adana, Gauna, Dulantzi, Burgu, Oreitia, Matauku, Ilarratza, Arkauti, Elorriaga, Zurbao eta Gasteiz. Goizeko lehen autobusa 7:35ean iristen da **Gasteizko autobus geltokira**, eta azkena arratsaldeko 22:30ean irteten da, Gasteiztik. Urritik maiatzera bitartean, **unibertsitate campusean gelditzen da**.

* Aldez aurretik abisatu behar da.



15. irudia: Lanegunetako linea erregularrak, Arabako geltoki guztiak adierazita (Iturria: geuk egina)

- RENFE

Trena da Añanatik eta Arabako Lautadatik Arabako Campusera joateko beste aukera bat. Hiru tren linea nagusi daude Araban:

- Irun-Gasteiz-Miranda
- Gasteiz-Iruñea-Castejón
- Gasteiz-Burgos-Valladolid




16. irudia: Distantzia ertaineko tren lineen mapa (Iturria: RENFE)

Arabako herriak Gasteizekin lotzen dituzten trenei dagokienez (RENFE geltokia: Eduardo Dato kalea, 46), Araiatik (Arabako Lautada) sei zerbitzu daude egunero (irteera orduak: 8:27, 9:26, 17:05, 17:29, 20:30 eta 21:24), eta Miranda Ebrotik, berriz, hamahiru zerbitzu (irteera orduak: 4:18, 7:20, 9:00, 11:18, 13:35, 14:33, 15:02, 15:56, 17:15, 18:04, 18:36, 19:43 eta 22:42).

Aipagarria da ez dagoela Lautada eta Gasteiz lotzen dituen trenik eguerdietan; horrenbestez, arratsaldeko txanda dutenek ezin dute trena erabili.

Tarifei dagokienez, 12 eta 26 urte bitarteko gazteek % 20ko deskontua dute distantzia ertaineko eta luzeko bidaietan, Gazte Txartela erabilita (autonomia erkidegoek ematen dute).

#### 2.2.1.3 Bizkaitik Arabako Campusera

Bi autobus konpainiak Arabako Campusera joateko zerbitzua ematen diete Bizkaian bizi diren ikasleei, administrazio eta zerbitzuetako langileei, eta irakasle eta ikertzaileei. Honako hauek dira:

- LA UNIÓN AUTOBUSAK

Bilbotik, Leioako UPV/EHUtik, Gallartatik eta Algortatik irteten diren lau linea ditu. Astelehenetik ostiralera, **unibertsitate campuseko erdigunean gelditzen dira**, edo, bestela, Araba kalean edo Nieves Cano kalean. Medikuntzako Irakaskuntza Gunera edo Erizaintzako UE atxikira joateko, Forondako Atea kaleko geltokia dago hurbilen (Txagorritxu ospitaletik 700 m-ra).

Bilbo – Arabako Campusa lineak du maiztasun handiena (gutxi gorabehera, bi zerbitzu orduko); 6:00etan hasten da, eta 22:15ean amaitu. Leioako UPV/EHU – Arabako Campusa linea orduro irteten da, 12:10ean hasita 21:10 arte. Gallartaren eta Arabako Campusaren arteko lineak, berriz, bost zerbitzu ematen ditu, goizez (irteera orduak: 6:15, 6:45, 9:30, 13:00 eta 14:00). Azkenik, Algorta eta Arabako Campusa lotzen dituen lineak lau zerbitzu ematen ditu egunean, honako ordu hauetan: 6:15, 6:45, 8:45 eta 13:00.

26 urtetik beherakoek tarifa berezi bat dute linea horietan. Astelehenetik ostiralera balio duen bonu bat ere eskaintzen dute neguko hilabeteetan, eta baita eguneko joan-etorrirako txartelak ere.

26 urtetik gorakoek ere badituzte tarifa bereziak: hilabeteko edo urte osoko bonuak, astelehenetik ostiralera erabiltzeko, eta baita eguneko joan-etorrirako txartelak ere.

- ALSA CONTINENTAL AUTO

Linea erregularra da, eta honako ibilbide hau osatzen du: Durango – Izurtza – Mañaria – Urkiola – Otxandio – Legutio – Urbina – Miñao – Gamarra – Gasteiz.

Linea erregularra izanik, Gasteizko **autobus geltokian** gelditzen da, Herrandarren kalean. Honako ordu hauetan irteten da Durangotik: 7:10, 8:15, 10:45, 13:45, 15:00, 17:15 eta 21:30.

#### 2.2.1.4 Gipuzkoatik Arabako Campusera

- RENFE

Arabari buruzko atalean esan dugun bezala, badago Gasteiz eta Irun lotzen dituen tren zerbitzu bat. Gipuzkoari dagokionez, honako geltoki hauetan gelditzen da: Irun, Lezo-Errenteria, Pasaia, Donostia, Tolosa, Ordizia, Beasain, Zumarraga, Legazpi eta Zegama-Otzaurte. Honako ordu hauetan irteten dira trenak Irundik: 6:40, 8:25, 8:45, 13:20, 15:17, 16:20, 19:37 eta 22:20.

- ALSA

Donostia – Gasteiz lineak zuzeneko bidaiak zein zuzenekoak ez direnak (alegia, herrietan gelditzen direnak) eskaintzen ditu. Ordutegiaren arabera, honako herri hauetan gelditzen da autobusa: Donostia, Lasarte, Tolosa, Ordizia, Beasain, Altsasu, Agurain eta Gasteiz. Honako ordu hauetan irteten da Donostiatik: 6:45, 7:15, 7:40, 8:30, 9:00, 11:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:01, 18:00 eta 20:30. Gasteizen, **autobus geltokian** gelditzen da.

- PESA

Eibar – Gasteiz linea honako herri hauetan gelditzen da: Eibar (autobus geltokia), Eibar (Urkizu), Soraluze, Bergara, San Prudentzio, Arrasate (Zigarrola), Arrasate (Erdigunea), Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Landa, Uribarri Ganboa, Arroiabe, Mendibil, Dura eta Gasteiz (**autobus geltokia**). Gutxienez, autobus bat izaten da orduro, goizeko 6:15etik hasita arratsaldeko 21:00ak arte. Bidaiari gehien ibiltzen den orduetan, maiztasun handiagoz ibiltzen da.

Konpainia horrek berak Donostia eta Gasteiz arteko zuzeneko zerbitzuak ematen ditu, orduro, goizeko 6:15etik hasita gaueko 22:15 arte.

- PIPER UNIBERTSITATE ELKARTEA

Piper Unibertsitate Elkarteak Azkoitiko Aldalur garraio enpresaren zerbitzuak erabiltzen ditu. Hain zuzen, Urola Kostatik Gasteizko Campusera joateko, honako ibilbide eta ordutegi hauek eskaintzen dituzte:

- Orio – Zarautz – Getaria – Zumaia – Arabako Campusa: zerbitzu bakarra ematen du eguneko. Oriotik 6:55ean irteten da, eta 8:40an iristen da Arabako Campuseko erdigunera. Itzuleran, 14:30ean eta 18:30ean irteten da, Gasteiztik.
- Zestoa – Azpeitia – Azkoitia – Arabako Campusa: zerbitzu bakarra ematen du eguneko. Zestoatik 7:05ean irteten da, eta 8:40an iristen da Arabako Campusera. Itzuleran, 14:30ean eta 18:30ean irteten da, Gasteiztik.

Elkarteko erabiltzaileek bi bonu dituzte aukeran: bonu finkoa eta bidaia kopuruaren araberako bonua. Bonu finkoaren kasuan, bazkide kuota bat ordaindu behar da urtero (100 €), eta beste kuota bat hilero (iraila eta ekaina doakoak dira):

1. taula: Bonu finkoaren tarifak (2010/2011 ikasturtea)

| NONDIK | HILEKO KUOTA | IKASTURTE OSOKO ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| Orio<br>Zarautz<br>Getaria | 124 € | 1.092 € |
| Zumaia | 120 € | 1.060 € |
| Zestoa | 117 € | 1.036 € |
| Azpeitia | 108 € | 964 € |
| Azkoitia | 104 € | 932 € |

*Iturria: Piper Unibertsitate Elkartea*

Bidaia kopuruaren araberako bonuaren kasuan, erabiltzaileak hilean egiten duen bidaia kopuruaren arabera kalkulatzen da zenbatekoa, eta hurrengo hilabetean kobratzen da, bankuko ordainagiri bidez.

2. taula: Bidaia kopuruaren araberako bonuaren tarifak (2010/2011 ikasturtea)

| Hileko bidaia kopurua | 0-10 | 10-25 | + 25 |
|---|---|---|---|
| Deskontua (%) | | % 10 | % 30 |
| Orio<br>Zarautz<br>Getaria | 8 € | 7,20 € | 5,60 € |
| Zumaia | 7,76 € | 6,98 € | 5,43 € |
| Zestoa | 7,52 € | 6,77 € | 5,26 € |
| Azpeitia | 6,96 € | 6,26 € | 4,87 € |
| Azkoitia | 6,72 € | 6,05 € | 4,70 € |

*Iturria: Piper Unibertsitate Elkartea*

### 2.2.1.5 Gertuko beste probintzia batzuetatik Arabako Campusera

Askotariko garraio zerbitzuak daude gertuko probintzietatik Arabako Campusera joateko. Zerbitzu horiei esker, ikasleak Burgosetik, Iruñetik zein Logroñotik joan

daitezke Gasteiza. Nolanahi ere, bidaien kostua baino merkeagoa da Gasteiza bizitzera joatea.

Aurreko atalean aipatu ditugu Gasteiz Logroñorekin edo Errioxarekin (Haro edo Miranda Ebro, esate baterako) lotzen dituzten linea erregularrak.

- ALSA

Burgos – Gasteiz (**autobus geltokia**) linea erregularrak hamar zerbitzu ematen ditu egunero (irteera orduak: 3:15, 7:00, 10:30, 12:00, 14:15, 15:45, 16:00, 16:20, 18:30 eta 22:00). Ordutegiaren arabera, Briviescan eta Miranda Ebron gelditzen da. Joan-etorriaren zenbatekoa 15,72 € da, eta, ibilbidearen arabera, ordu bat eta erdi, edo bi ordu behar izaten da.

- LA BURUNDESA

Iruñea – Gasteiz (**autobus geltokia**) lineak zuzeneko zerbitzuak, erdi zuzenekoak eta herrietan gelditzen direnak eskaintzen ditu, goizeko 7:00etatik hasita gaueko 21:00ak arte, eta 7,87 € balio du. Honako herri hauetan gelditzen da: Uharte Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Altsasu eta Agurain. Honako ordu hauetan irteten da Iruñetik: 7:00, 9:00, 10:00, 11:15, 13:00, 15:00, 15:30, 17:00, 18:00, 19:00 eta 21:00.

- RENFE

**Gasteizko tren geltokia** Arabako Campusetik oso hurbil dago, eta Iruñera eta Burgosa joateko aukera ematen du. Iruñetik, lau zerbitzu daude (ordutegia: 8:39, 13:10, 16:37 eta 19:45), eta 5,10 € (Regional Express) edo 15,40 € (Alvia) balio du. Ordu bat baino gehixeago behar da bidaia egiteko.

Burgosetik, goizeko ordutegia ez da oso ona; bai, ordea, arratsaldekoa. Regional Express trena erabiliz gero, 9,40 € ordaindu behar da; Alvian, aldiz, 19,00 €-raino irits daiteke prezioa. Hori dela eta, ikasleek Gasteizen bizitzea erabakitzen dute, eta astero bidaiatzen dute maiztasun handieneko orduetan. Trena ordu hauetan irteten da Burgosetik: 3:16, 10:23, 12:38, 13:14, 14:06, 15:01, 16:59, 17:41, 18:45 eta 21:47.

### 2.2.2 Bizkaiko Campusa

Bizkaiko Campusa lau herritan banatuta dago: Leioa, Barakaldo, Portugalete eta Bilbo. Leioa-Erandio eremuko ikastegiak Leioako Sarriena auzoan daude; Bilbon, hiriko erdigunean eta Sarriko auzoan daude; eta, Portugaleten eta Barakaldon, ikastegi bakar bana dago.




17. irudia: Bizkaiko Campuseko ikastegiak

**Bizkaiko Campuseko ikastegiak:**

Nautika eta Itsasontzi Makineria GET (Portugalete)

Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE (Barakaldo)

Enpresa Ikasketen UE (Bilbo)

Ingeniaritza GET (Bilbo)

Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (Bilbo)

Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea (Bilbo)

Irakasleen UE (Bilbo)

Magisteritza UE (Leioa-Erandio)

Lan Harremanen UE (Leioa-Erandio)

Arte Ederretako Fakultatea (Leioa-Erandio)

Zientzia eta Teknologia Fakultatea (Leioa-Erandio)

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultatea (Leioa-Erandio)

Medikuntza eta Odontologia Fakultatea (Leioa-Erandio)

Zuzenbide Fakultatea – Bizkaiko atala (Leioa-Erandio)

Ondoren, Bizkaiko Campusera joateko garraio sare nagusien berri emango dugu, eta, gero, ikastegiak banaka aztertuko ditugu, loturei eta irisgarritasunari begira.

- EUSKOTREN

EuskoTrenek honako linea hauek ditu Bilbo inguruan:

- **1. linea: Bilbo – Donostia:** maiztasun handia. Donostiatik (Amara) irteten diren zerbitzuak ematen ditu, honako ordutegi hauetan: 5:47, 6:17 (ordu erditik behin, 20:47ra arte) eta 21:47 (azken zerbitzua).

- **1D linea: Durangaldea**: Durangotik irteten da, honako ordu hauetan: 5:42 (ordu erditik behin, 20:42ra arte), 21:21, 21:42, 22:01, 22:18 eta 22:46.
- **3. linea: Bilbo – Bermeo (Urdaibai)**: Bermeotik irteten da, honako ordu hauetan: 6:18 (ordu erditik behin, 20:48ra arte), 21:35 eta 22:35.
- **4. linea: Deustu – Lezama (Txorierri):** Lezamatik Bilboko Alde Zaharrera doan zerbitzua 6:00etan hasten da, eta ordu erditik behin izaten da, 23:00ak arte. Ostiraletan, 23:30ean amaitzen da zerbitzua.
- **7. linea: Bilboko tranbia:** Basurtu-Atxuri linea 6:33an hasten da, eta 10 minututik behin izaten da 6:48tik 20:48ra, eta 15 minututik behin, berriz, 21:05etik 23:25era. Atxuritik Basurtura, 15 minututik ibiltzen da 6:00etatik 7:00etara, 10 minututik 7:00etatik 21:00etara, 15 minututik 21:00etatik 22:30era, eta azken bi zerbitzuak 22:42an eta 23:05ean izaten dira.

Bizikletak sar daitezke horretarako berariaz prestatutako bagoietan.




18. irudia: EuskoTrenen eta EuskoTranen lineen ibilbideak (Iturria: EuskoTren, 2011)

- FEVE: Espainiako Trenbide Estuko Trenak

FEVEren lineek elkarrekin lotzen dituzte Galizia, Asturias, Kantabria, Gaztela eta Leon, eta Euskal Autonomia Erkidegoa. Bizkaian, honako ordutegi hauetan irteten da trena Artzentalestik Bilbora joateko (Concordia geltokia, Bailen kalea, 2): 6:59, 9:57, 15:55 eta 20:55. Balmasedatik, ordu erditik behingo (gutxi gorabehera) zerbitzua dago 6:00etatik 21:20ra.

Bizikletak sar daitezke tren guztietan.




19. irudia: FEVEren lineak Euskal Autonomia Erkidegoan (Iturria: FEVE, 2011)

- RENFE ALDIRIAK

Bilbo aldean, RENFEk aldirietako hiru linea ditu:

- **C1 linea: Santurtzi – Bilbo (Abandoko geltokia):** lanegunetan, 10 minututik behin irteten da, Santurtzitik, pilaketa orduetan (6:40tik 9:40ra, 13:40tik 14:00etara. Eta 18:20tik 20:50era); gainerakoan, 20 minututik behin ibiltzen da, 5:00etatik hasita.
- **C2 linea: Muskiz – Bilbo (Abandoko geltokia):** lanegunetan, 5:13an eta 5:59an izaten dira lehen zerbitzuak; gainerakoan, 20 minututik behin ibiltzen da, Bilbotik irteten dena 5:15etik 22:45era eta Muskiztik irten dena, berriz, 6:25etik 23:20ra.
- **C3 linea: Urduña – Bilbo (Abandoko geltokia):** lanegunetan, gutxi gorabehera, zerbitzu bat izaten da 25 edo 30 minututik behin, 5:02tik hasita 22:53ra arte.




20. irudia: RENFEren Aldirietako lineak Bilbo aldean (Iturria: RENFE, 2011)

Bizikletak sar daitezke linea guztietan, egun guztian zehar, salbu 7:00etatik 9:00etara. Deskontuak lor daitezke Creditrans garraio bonua erabilita (aukeratutako eremuaren arabera), eta baita hileko edo hiruhilekoko bonuak erabilita. Ikasleek ez dute berariazko deskonturik.

- BILBOKO METROA

Metroaren 1. lineak Plentzia eta Etxebarri lotzen ditu, eta 2. lineak, berriz, Santurtzi eta Etxebarri; bi lineek ibilbide bera egiten dute San Inazio eta Etxebarri geltokien artean. Astean zehar, metro zerbitzua 6:00etan hasten da, eta 23:00etan amaitu, eta bost minututik behin ibiltzen da bidaiari gehien ibiltzen den orduetan. 1. linean, ordutegi hori betetzen da Bidezabal eta Etxebarri arteko ibilbideetan; izan ere, Plentziatik irteten diren eta Plentziara iristen diren metroak maizago ibiltzen dira. 26 urtetik beherakoek gazte tiketa eros dezakete.

Bizikletak sar daitezke.




21. irudia: Bilboko metroaren ibilbidea (Iturria: Bilboko metroa, 2011)

- BILBOBUS

Bilboko hiri autobusen zerbitzua Bilbobus konpainiak ematen du. Linea batetik bestera, ordutegiak aldatzen dira, baina lehen zerbitzua 6:30-7:00 bitartean izaten da, eta azkena, berriz, 23:00ak aldera.

Deskontuak lor daitezke Creditrans garraio bonua erabilita, baina ikasleek ez dute berariazko deskonturik. Bestalde, linea batetik bestera aldatzea doakoa da lehen 45 minutuetan.

Informazio gehiago nahi izanez gero, webgune hau begiratu daiteke:

[http://www.bilbao.net/cs/Satellite?cid=3000048804&language=eu&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_detallePagina](http://www.bilbao.net/cs/Satellite?cid=3000048804&language=eu&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO_detallePagina)



22. irudia: Bilbobus lineen sarea (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

- BIZKAIBUS

Bizkaiko herriak elkarren artean, eta Bizkaiko herriak Bilborekin lotzen dituen autobus zerbitzua Bizkaibus konpainiak ematen du. Tarifei dagokienez, bidaiak zenbat gune zeharkatzen dituen, hainbeste ordaindu behar da (ikus guneak 24. irudian). Deskontuak lor daitezke Creditrans bonua erabilita, baina ikasleek ez dute berariazko deskonturik. Linea batetik bestera aldatzean, % 20ko deskontua egiten dute etapa bakoitzean.

Bizkaibusen webgunean (GIS aplikazioa du), hainbat kontsulta eta bilaketa egin daitezke:

http://apli.bizkaia.net/apps/danok/tq/index.html?Idioma=EU



| | |
|---|---|
| gunea 1 zona | Bilbao |
| gunea 2 zona | Arrigorriaga · Alonsotegi · Barakaldo · Basauri · Berango · Derio · Erandio Etxebarri · Galdakao · Getxo · Leioa · Lezama · Loiu · Ortuella · Portugalete Santurtzi · Sestao · Sondika · Valle de Trapaga - Trapagaran · Zamudio · Zaratamo |
| gunea 3 zona | Abanto y Ciervana - Abanto Zierbena · Amorebieta - Etxano · Arantzazu · Arrankudiaga · Arrieta · Artea · Barrika · Bedia · Dima · Fruiz · Galdames · Gamiz-Fika · Gordexola · Gorliz · Güeñes · Igorre · Larrabetzu · Laukiz · Lemoa · Lemoiz · Meñaka · Morga · Mungia · Muskiz · Plentzia · Sopelana · Sopuerta · Ugao-Miraballes · Zalla · Zeberio · Zierbena |
| gunea 4 zona | Abadiño · Amurrio · Artzentales · Areatza · Artziniega · Bakio · Balmaseda Bermeo · Busturia · Durango · Errigoiti · Forua · Gernika-Lumo · Iurreta · Laudio/Llodio · Mundaka · Murueta · Muxika · Orozko · Okondo · Sukarrieta · Ayala/Aiara · Zeanuri |
| gunea 5 zona | Ajangiz · Amoroto · Arratzu · Atxondo · Aulesti · Berriatua · Berriz · Karrantza Harana/Valle de Carranza · Ea · Eibar · Elantxobe · Elorrio · Ereño · Ermua Etxebarria · Garai · Gautegiz - Arteaga · Gizaburuaga · Ibarrangelu · Ispaster Kortezubi · Lanestosa · Lekeitio · Mallabia · Markina - Xemein · Mendata · Mendexa · Munitibar · Nabarniz · Ondarroa · Urduña/Orduña · Otxandio Trucios - Turtzioz · Ubide · Zaldibar |

23. irudia: Bizkaibus sareko guneak (Iturria: Bizkaiko Foru Aldundiaren webgunea, 2011)

- BIZIKLETA MAILEGUA

Bilbon bada doako **bizikleta mailegu sare bat**. Gehienez ere, lau orduz mailega daitezke bizikletak astean zehar, eta ezin da bizikletarik atera Bilboko udal barrutitik kanpora. Ordutegiak aldatu egiten dira mailegu gune batetik bestera. Hiri guztian barrena badira mailegu puntuak. Hona zerrenda:

| | | |
|---|---|---|
| **Zorrotzako Gaztegunea**<br>Hermógenes Rojo kalea, zk.g. | Tel. 94 499 54 22<br>Larunbatetan: 9:00etatik 20:00etara | Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara<br>Igandeetan: 9:00etatik 14:00etara |
| **San Inazioko kiroldegia**<br>Orixe kalea, 13 | Tel. 94 475 05 41<br>Larunbatetan: 9:00etatik 20:00etara | Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara<br>Igandeetan: 9:00etatik 14:00etara |
| **Deustuko barruti-udaltegia**<br>Agirre Lehendakaria, 42 | Tel. 94 476 23 31<br>Neguko larunbatetan: 9:00etatik 13:45era<br>Uztaileko eta abuztuko larunbatetan: itxita. | Astelehenetik ostiralera (neguan): 9:00etatik 20:00etara<br>Astelehenetik ostiralera (uztailean): 9:00etatik 19:30era<br>Igandeetan: itxita |
| **Zubiarte merkataritza gunea**<br>Leizaola lehendakaria, 2 | Tel. 94 427 73 80<br>Larunbatetan: 10:30etik 20:00etara | Astelehenetik ostiralera: 10:30etik 20:00etara<br>Igandeetan: itxita |
| **Emaus gunea**<br>Sabino Arana etorbidea | Tel. 94 427 69 79<br>Larunbatetan: 10:00etatik 14:00etara | Astelehenetik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara<br>Igandeetan: itxita |
| **BT Zabalgunea**<br>Zabalgune enparantza | Tel. 94 479 57 60<br>Larunbatetan: itxita | Astelehenetik ostiralera: 9:30etik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:15era<br>Igandeetan: itxita |
| **BT Arriaga**<br>Arriaga enparantza, 1 | Tel. 94 656 49 05<br>9:30etik 14:00etara, eta 17:00etatik 19:30era<br>Ekainaren 16tik irailaren 14ra, 9:30etik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:30era | Astelehenetik ostiralera (ekainaren 15era arte): 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 19:30era<br>Ekainaren 16tik irailaren 14ra: 9:30etik 14:00etara, eta 16:00etatik 19:30era<br>Igandeetan: 9:30etik 14:00etara |
| **Atxuri kiroldegia**<br>Enkarnazio plaza, zk.g. | Tel. 94 433 05 90<br>Larunbatetan: itxita | Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara<br>Igandeetan: itxita |
| **La Peña kiroldegia**<br>Lekanda, 2 | Tel. 94 416 27 17<br>Larunbatetan: itxita | Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara<br>Igandeetan: itxita |
| **Otxarkoaga auzo etxea**<br>Pau Casals etorbidea , 2 | Tel. 94 412 03 87<br>Larunbatetan: 9:00etatik 13:45era, eta 16:00etatik 20:00etara<br>Udan, itxita | Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara<br>Astelehenetik ostiralera (abuztuan): 9:00etatik 14:00etara<br>Igandeetan: 10:00etatik 13:45era<br>Udan, itxita |
| **Begoña Gaztegunea**<br>Club Deportivoren Zirko Amateurra, 2 | Tel. 94 411 68 72<br>Larunbatetan: 9:00etatik | Astelehenetik ostiralera: 9:00etatik 20:00etara<br>Astelehenetik ostiralera (uztailean): 9:00etatik 19:30era<br>Astelehenetik ostiralera (abuztuan): 9:00etatik 13:15era<br>Igandeetan: itxita |

14:00etara
Uztailean eta abuztuan: itxita

Bizikletak sar daitezke tren mota guztietan (metroa, FEVE, EuskoTren, EuskoTran eta RENFE), doan, baina ez da komeni pilaketa orduetan bizikletarik sartzea. Bizikletak berariaz prestatutako bagoietan sartu behar dira (lehena eta azkena izan ohi dira).

#### 2.2.2.1 Bilbo aldea

Ikastegi bakoitzera joateko garraio eskaintzaren berri emango dugu atal honetan. Honako garraio mota hauek aipatuko ditugu: Bilboko hiri autobusen sarea (Bilbobus), Bizkaiko autobus sarea (Bizkaibus), bidegorri sarea, bizikletak mailegatzeko guneak, Bilboko tranbia, Bilboko metroa, RENFEren Aldirietako trenak, FEVE eta EuskoTren.

- <u>EKONOMIA ETA ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA (SARRIKO)</u>
  - **Bidegorria: 6 – Elorrieta – Euskalduna – La Casilla** (bizikleta mailegatzeko gune hurbilena: Deustuko barruti-udaltegia)




24. irudia: Bidegorria Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultate inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

  - **Bilbobus:**

    01. linea: Arangoiti – Plaza Biribila

    10. linea: Elorrieta – Plaza Biribila

    13. linea: San Inazio – Txurdinaga

    18. linea: San Inazio – Zorrotza

    71. linea: Miribilla – San Inazio




25. irudia: Bilbobus geltokiak Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultate inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

- **Metroa:**

  Sarrikoko geltokia

- **Bizkaibus:**

  0104. geltokia: Sarriko (Agirre Lehendakaria, 83):

  A2314 linea: Bilbo – Erandio Goikoa – UPV/EHU

  A3411 linea: Bilbo – Getxo

- <u>ENPRESA IKASKETEN UE (ELCANO KALEA)</u>
  - **Bidegorria: 4 – Abandoibarra – Alde Zaharra – La Peña**




26. irudia: Bidegorria Enpresa Ikasketen UE inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

  - **Bilbobus:**

30. linea: Txurdinaga – Miribilla

58. linea: Minteguitxueta – Atxuri

62. linea: Basurtu/Termibus – Arabella

71. linea: Miribilla – San Inazio

75. linea: San Adrián – Atxuri

85. linea: Zazpilanda – Atxuri




27. irudia: Bilbobus geltokiak Enpresa Ikasketen UE inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

- **Metroa:**

  Moyuako geltokia

- **Bizkaibus:**

  0125. geltokia: Elcano, 16:

  A2322 linea: Bilbo – Erandio – Astrabudua – UPV/EHU

  A2324 linea: Bilbo – UPV/EHU (Enekuritik)

- <u>INGENIARITZA GET</u>
  - **Bidegorria: 7 – Euskalduna – Ametzola – Iraila** (bizikletak mailegatzeko gune hurbilena: Emaus gunea)




28. irudia: Bidegorria Ingeniaritza GET inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

  - **Bilbobus:**

26. linea: Uribarri – Basurtu/Termibus

38. linea: Otxarkoaga – Basurtu/Termibus

62. linea: Basurtu/Termibus – Arabella

80. linea: Altamira – Termibus




29. irudia: Bilbobus geltokiak Ingeniaritza GET inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

- **Metroa:**

  San Mameseko geltokia

- **Tranbia:**
- San Mameseko geltokia
- **Aldirietako trena:**
- San Mameseko geltokia

  C1 linea: Bilbo Abando – Santurtzi

  C2 linea: Bilbo Abando – Muskiz

- **FEVE:**

  Basurtuko geltokia

- **Bizkaibus:**

1008. geltokia: Zunzunegi etorbidea (San Mameseko tranbia geltokiaren parean)

A3414 linea: Bilbo – Getxo (Artxandako tuneletatik)

A2153 linea: Bizkaia zubia – UPV/EHU – Laukiz

1042. geltokia: Luis Briñas (Termibusen albo batean)

A2318 linea: Termibus – UPV/EHU (autobidetik)

A3342 linea: Bilbo – Sodupe

2200. geltokia: Termibus (11. nasa)

A0651 linea: Bilbo – Balmaseda

1058. geltokia: Termibus (22-29 nasak)

A3926 linea: Eibar – Ermua – Bilbo (autobidetik)

A3930 linea: Galdakao – Bilbo (autobidetik)

A3915 linea: Ondarroa – Durango – Bilbo (autobidetik)

A3927 linea: Zeanuri – Lemoa – Bilbo (autobidetik)

A3513 linea: Bilbo – Galdakaoko ospitalea – Gernika – Lekeitio

A3512 linea: Bilbo – Lekeitio (autobidetik)

A3916 linea: Ondarroa – Ermua – Bilbo (autobidetik)

- <u>INDUSTRIA INGENIARITZA TEKNIKOKO UE</u>
  - **Bidegorria: 6 – Elorrieta – Euskalduna – La Casilla** (bizikletak mailegatzeko gune hurbilena: Emaus gunea)




30. irudia: Bidegorria Industria Ingeniaritza Teknikoko UE inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

  - **Bidegorria: 7 – Euskalduna – Ametzola – Iraila** (bizikletak mailegatzeko gune hurbilena: Emaus gunea)




31. irudia: Bidegorria Industria Ingeniaritza Teknikoko UE inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

- **Bilbobus:**

  18. linea: San Inazio – Zorrotza
  38. linea: Otxarkoaga – Basurtu/Termibus
  48. linea: Santutxu – Lezeaga
  57. linea: Miribilla – Ospitalea
  58. linea: Minteguitxueta – Atxuri
  85. linea: Zazpilanda – Atxuri
  88. linea: Kastrexana – Indautxu




32. irudia: Bilbobus geltokiak Industria Ingeniaritza Teknikoko UE inguruan (Iturria: Bilboko Udalaren webgunea, 2011)

- **Aldirietako trena:** Autonomia kaleko geltokia

  C1 linea: Bilbo Abando – Santurtzi
  C2 linea: Bilbo Abando – Muskiz

- **FEVE:**

  Ametzolako geltokia

- **Bizkaibus:**

 0624. geltokia: La Casilla (Autonomia, 50)

 A3144 linea: Bilbo – Gurutzeta – Barakaldo (Ugartetik)

 A3923 linea: Elorrio – Durango – Bilbo (autobidetik)

 A3137 linea: Bilbo – Barakaldo (Hurtado Amezagatik)

 A3115 linea: Bilbo – Santurtzi

 A3927 linea: Zeanuri – Lemoa – Bilbo (autobidetik)

 A3136 linea: Bilbo – Gurutzeta – Barakaldo

 A3337 linea: Muskiz – Bilbo (N-634tik)

 A3926 linea: Eibar – Ermua – Bilbo (autobidetik)

 A3933 linea: Durango – Bilbo (autobidetik)

 A3915 linea: Ondarroa – Durango – Bilbo (autobidetik)

 A3512 linea: Bilbo – Lekeitio (autobidetik)

 A3336 linea: Muskiz – Bilbo (Ortuellatik)

 A3122 linea: Bilbo – Sestao – Errepelega

 A3916 linea: Ondarroa – Ermua – Bilbo (autobidetik)

#### 2.2.2.2 Barakaldo

- <u>MEATZEEN ETA HERRI LANEN INGENIARITZA TEKNIKOKO UE</u>
  - **Metroa:**

    Barakaldoko geltokia

    2. linea: Santurtzi – Etxebarri
  - **RENFE Aldiriak:**

    Desertu geltokia – Barakaldo

    C1 linea: Bilbo Abando – Santurtzi

    C2 linea: Bilbo Abando – Muskiz
  - **Bizkaibus:**

    3355. geltokia: Beurko (Miranda etorbidea, 2)

    A3136 linea: Bilbo – Gurutzeta – Barakaldo

    A3142 linea: Santurtzi – Barakaldo – Retuerto – Kareaga

    A3338 linea: Muskiz – Barakaldo – Areatza

    A3144 linea: Bilbo – Gurutzeta – Barakaldo (Ugartetik)

    A3131 linea: Barakaldo – Sestao – Errepelega

    A3141 linea: Gurutzeta – Bagatza – Trapagarango funikularra

#### 2.2.2.3 Portugalete

- <u>NAUTIKA ETA ITSASONTZI MAKINERIA GET</u>
  - **Metroa:**

    Portugaleteko geltokia

    2. linea: Santurtzi – Etxebarri
  - **RENFE Aldiriak:**

    Peñota geltokia

    C1 linea: Bilbo Abando – Santurtzi

- **Bizkaibus:**

  4884. geltokia: Peñota (Nautika Eskola)

  A3135 linea: Sestao – Kabiezes

  A3321 linea: Portugalete – Areatzako hondartza – Muskiz

#### 2.2.2.4 Leioa-Erandio

- **Bizkaibus:**

  Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremuan, Bizkaibusen geltoki ugari dago: 4410 Ikasgelategiak, 4425 Ipar Bidea 1, Ipar Bidea 2, 4426 Oteiza plaza, 4412 Biblioteka, 4411 Laboa plaza, 5324 Liboa (Baserri) eta 5325 Liboa (Baserri parean). Bizkaibusen honako linea hauek dute geltokiren bat Leioa-Erandio eremuan:

  A3525 linea: Gernika – Zornotza – UPV/EHU

  A3924 linea: Ermua – Durango – UPV/EHU

  A2162 linea: Getxo (Santa Maria) – UPV/EHU (Algortatik)

  A2322 linea: Bilbo – Erandio – Astrabudua – UPV/EHU

  A2151 linea: Areatza – Larrabetzu

  A2164 linea: Getxo – UPV/EHU (Chopos etorbidetik)

  A3528 linea: Bermeo – Mungia – Derio – UPV/EHU

  A2315 linea: Santurtzi – Portugalete – UPV/EHU

  A2326 linea: Barakaldo – UPV/EHU

  A2316 linea: Sestao – UPV/EHU

  A2321 linea: Santutxu – UPV/EHU (autobidetik)

  A2610 linea: Galdakao – UPV/EHU

  A2161 linea: Bizkaia zubia – UPV/EHU - Laukiz

  A2318 linea: Termibus – UPV/EHU (autobidetik)

  A2314 linea: Bilbo – Erandio Goikoa – UPV/EHU

  A2312 linea: Zabalburu – UPV/EHU (Juan de Garaytik)

  A2324 linea: Bilbo – UPV/EHU (Enekuritik)

A2611 linea: Ugao-Miraballes – Basauri – Etxebarri – UPV/EHU

A2336 linea: Muskiz – UPV/EHU

A2163 linea: Erandio – UPV/EHU

Bizkaiko garraio partzuergoak bidaiak simulatzeko tresna bat dauka, UPV/EHUren Leioa-Erandio eremura joateko garraio publikoa kontsultatzeko aplikazio espezifiko bat barne[1].

### 2.2.2.5 Arabatik Bizkaiko Campusera

- ALTUBE

Altube elkarteak 25 urte ditu, eta 17.000 bazkide baino gehiago biltzen ditu. Gasteizen dute egoitza, eta Bilboko eta Leioa-Erandioko fakultate eta eskoletara joateko garraioa antolatzen dute. Bazkideek deskontuak lor ditzakete kultura jardueretan. Bestalde, elkarteak badu telebista kanal digital bat, antolatutako ekitaldiak sustatzeko eta emateko.

3. taula: Altube elkartearen kuotak (2011)

| | |
|---|---|
| Ikasturte osoa (iraila-ekaina) | 600 € (ordainketa bakarra) |
| | 630 € (315 €-ko bi ordainketa) |
| Ikasturtea hilabeteka | 100 € hilero |
| Ikastaroa hiruhilabeteka | 250 € hiru hilabetetik behin |

*Iturria: www.altube.com*

Gainera, larunbatetan edota uztailean (azterketa garaian) ere bidaiak antolatzeko aukera ematen dute.

Lau linea dituzte. Hona ordutegi eta geltokiak:

- 1. LINEA: JUDIZMENDI: Leioa-Erandio eremurako eta Bilborako zerbitzuak, honako ordu hauetan: 6:20, 7:20, 8:20 eta 13:20.
- 2. LINEA: ZUMAKERA: Leioa-Erandio eremurako eta Bilborako zerbitzuak, honako ordu hauetan: 6:25, 7:20, 8:15 eta 13:25.
- 3. LINEA: SANSOMENDI: Leioa-Erandio eremurako eta Bilborako zerbitzuak, honako ordu hauetan: 6:20, 7:15, 8:10 eta 13:20.
- GELTOKI ZAHARRAK: bi zerbitzu ematen ditu: 12:15ean eta 14:10ean.

[1] Zerbitzuaren webgunea: http://80.34.73.154/mapxtreme/index_upv.htm.

Bilbotik eta Leioa-Erandio eremutik itzulera egiteko ordutegiei dagokienez, autobusa orduro ibiltzen da 12:10ean hasi eta 21:00ak arte. 15:10ean eta 20:10ean, autobusa Leioa-Erandio eremutik irteten da, eta, ondoren, Bilboko Ingeniaritza GETen geltokian gelditzen da. Azken autobusa (21:00etakoa) Leioa-Erandio eremutik irteten da, eta ibilbideko geltoki guztietan gelditzen da:

Leioa-Erandio eremua (aparkalekua) - Sarriko (Benidorm kalea, Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatearen parean) – Irakasleen UE (Sarrikoko biribilgunea, Bizkaibusen geltokia) – Deustu (San Pio X.a plaza, hiri autobusaren geltokia) – Kale Nagusia, 50 – Ingeniaritza GET (Juan Zunzunegi etorbidea, zubi eraikinaren azpian).

- LA UNIÓN

La Unión garraio enpresak zerbitzu berezi bat dauka Gasteiz, Bilbo eta Leioa-Erandio eremua elkarrekin lotzeko. 26 urtekoek eta 26 urtetik beherakoek bonu bereziak eros ditzakete (“Txartela 26”), eta tarifa merkeagoak ordaindu bai neguan (irailetik ekainera) bai udan (uztaila eta abuztua). Bilborako edo Leioa-Erandio eremurako bonuak 636 € balio du neguan, eta hileko bonua ere eros daiteke, 95 €-an. Udako bonuei dagokienez, Leioakoak 157,5 € balio du, eta Bilbokoak, berriz, 252 €.

Bestalde, 26 urtetik gorakoek “Txartela +” bonua eros dezakete; Gasteiztik Leioa-Erandio eremura joateko bonuak 1.007,5 € balio du, edo, hilabeteka ordaindu nahi izanez gero, 111,5 € hilean. Gasteiz-Bilbo bonuak, berriz, 1.432 €-ko kostua du urtean, edo, hileka ordaindu nahi izanez gero, 162 € hilean.

Bestalde, hainbat lineatarako bonua[2] ere eros daiteke; udan, 848 € balio du; neguan, 273 €, eta, hileka, 125 € hilean.

Gasteiz eta Bilbo elkarrekin lotzen dituzten zerbitzuen ordutegiei dagokienez, ordu erditik behin autobus bat izaten da gutxi gorabehera; jende gehien ibiltzen den orduetan, gainera, 15 minututik ibiltzen dira autobusak (alegia, tarte hauetan: 7:30-8:00, 8:30-9:00, 10:00-10:30 eta 14:00-15:30).

[2] Gallartako, Algortako, Leioako (UPV/EHU) eta Bilboko lineak.

Gasteiztik Leioa-Erandio eremura joateko autobusek, berriz, honako ordutegi hauek dituzte: 6:30, 7:15, 7:30, 8:15, 12:30, 13:15 eta 14:30.

#### 2.2.2.6 Gipuzkoatik Bizkaiko Campusera

- BIDAITXUNGO

Donostiako unibertsitate elkarte bat da Bidaitxungo, eta 110 bazkide biltzen ditu gaur egun. Leioarako bidaiak antolatzen dituzte, eta honako ibilbide hauek bete zituen 2010/11 ikasturtean:

- Linea nagusia: Hondarribia – Irun – Errenteria – Kaputxinoak (N-1eko geltokia) – Pasaia – Escalerillas (N-1eko geltokia) – Herrera – Mirakruz gaina – Donostia (10 geltoki) – Lasarte eta Zarautz. Irundik 6:00etan ateratzen den autobusa Leioa-Erandio eremura 8:25ean iristen da, eta 11:50ean ateratzen dena, berriz, 14:25ean. Leioa-Erandio eremutik itzultzeko, berriz, 13:10ean, 14:10ean, 18:10ean (astelehenetik ostegunera) eta 20:10ean (astelehenetik ostegunera).
- Herriz herriko linea: Tolosa – Villabona – Andoain – Urnieta eta Hernani. Zerbitzu bakar bat dago, 6:25ean irten eta Leioara 8:40an iristen dena.

Zerbitzua Bilbora ere zabaltzeko zerrendak osatzen ari dira.

4. taula: Bidaitxungoren kuotak (2011)

| | |
|---|---|
| Joan-etorriko bidaia bat (Leioa-Erandio eremua) | 8 € |
| - Irun edo gainerako herriak | + 0,70 € |
| Eguneroko joan-etorriak, goizez | 1.495 € |
| Eguneroko joan-etorriak, arratsaldez | 1.495 € |
| Eguneroko joan-etorriak, goizez edo arratsaldez | 1.595 € |
| - Irun eta Hondarribia | + 140 € |
| - Gainerako herriak | + 75 € |

*Iturria: www.bidaitxungo.com*

- BIKAIN

Eibarko Autobuses Ángel Rico garraio enpresak Leioa-Erandio eremura eta Bilbora joateko bidaiak antolatzen ditu, honako herri hauetatik: Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Ermua. 230 abonatu ditu, gutxi gorabehera. 10 bidaiako bonuak ateratzen

dituzte 35 €-an, eta ikasturte osoan zehar ematen dute zerbitzua. Urtea bukatu eta bonua agortu gabe izanez gero, egin gabe gelditu diren bidaiei dagokien dirua itzultzen dute.

6:40an, 7:15ean eta 13:00etan irteten da autobusa, eta Bilboko eta Leioa-Erandioko unibertsitate ikastegietara joaten da. Itzulera, berriz, 13:00etan, 14:30ean eta 18:30ean egiten du.

- PESA

Donostiatik, Tolosatik, Ordiziatik, Oñatitik, Durangotik, Elorriotik, Irundik, Bergaratik, Arrasatetik eta Zumarragatik Bilbora joateko autobusak.

Donostiatik Bilbora joateko, 6:30etik 10:30era autobus bat izaten da ordu erditik behin; 10:30etik 12:30era, orduro; 12:30etik 19:30era, ordu erditik; eta azken zerbitzuak 20:30ean eta 22:00etan izaten dira.

Bergaratik, Oñatitik eta Arrasatetik Bilbora, berriz, egunean bi zerbitzu dituzte Bergaratik (6:15ean eta 14:30ean), bi Oñatitik (9:15ean eta 18:15ean), eta lau Arrasatetik (6:30ean, 9:30ean, 14:45ean eta 18:30ean).

Beste linea batek ere Donostia eta Bilbo elkarrekin lotzen ditu, eta honako herri hauetan gelditzen da: Lasarte, Andoain, Villabona, Tolosa, Alegia, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga, Antzuola, Bergara eta Elgeta. Astelehenetik ostiralera, 7:00etan eta 16:30ean irteten da autobusa Donostiatik.

Autobusa non hartzen den, tarifak aldatzen dira; Donostia-Bilbo bidaia da garestiena, 9,90 € balio baitu. Debagoienetik eta Debabarrenetik Bilbora joateko txartelak 5,95 € balio du; Tolosaldetik, 7,55 €; eta Durangaldetik, berriz, 3,80 €.

10-24 urte bitarteko gazteentzako Lurraldebus txartela erabiliz gero, txartela kargatzen den aldiro, kargatutako diru kopuruaren % 20 ematen dute. Bestalde, hilabete baten buruan egindako bidaia kopuruaren arabera ere deskontuak egiten dituzte. Esate baterako, hilabete batean 1etik 40ra bidaia eginez gero, % 40ko deskontua egiten dute; 41etik 70era bidaia eginez gero, % 70ekoa; eta, 71 baino gehiago eginez gero, % 90ekoa.

- PIPER

Piper Unibertsitate Elkarteak Azkoitiko Aldalur garraio enpresaren zerbitzuak erabiltzen ditu Bilbora eta Leioa-Erandio eremura joateko. Honako bidaia hauek antolatzen dituzte:

- Orio – Zarautz – Getaria – Zumaia: Oriotik, zerbitzu bakarra dago, goizeko 6:55ean; beste hiru herrietatik igaro, eta 8:45ean iristen da Leioa-Erandio eremura. Zarauztik, egunean lau zerbitzu izaten dira: 6:24an, 7:02an, 9:05ean eta 12:50ean. Autobus horiek Getarian eta Zumaian ere gelditzen dira.
- Zestoa – Azpeitia – Azkoitia: egunean lau zerbitzu izaten dira: 6:28an, 7:05ean, 9:05ean eta 12:50ean.

Elkarteko erabiltzaileek bi bonu mota dituzte aukeran: bonu finkoa eta bidaia kopuruaren araberako bonua. Bonu finkoaren kasuan, bazkide kuota bat ordaindu behar da urtero (100 €), eta beste kuota bat hilero (iraila eta ekaina doakoak dira):

5. taula: Bonu finkoaren tarifak (2010/2011 ikasturtea)

| NONDIK | HILEKO KUOTA | IKASTURTE OSOAREN ZENBATEKOA |
|---|---|---|
| Orio<br>Zarautz<br>Getaria | 124 € | 1.092 € |
| Zumaia | 120 € | 1.060 € |
| Zestoa | 117 € | 1.036 € |
| Azpeitia | 108 € | 964 € |
| Azkoitia | 104 € | 932 € |

*Iturria: Piper Unibertsitate Elkartea*

Bidaia kopuruaren araberako bonuaren kasuan, erabiltzaileak hilean egiten duen bidaia kopuruaren arabera kalkulatzen da zenbatekoa, eta hurrengo hilabetean kobratzen da, bankuko ordainagiri bidez.

6. taula: Bidaia kopuruaren araberako tarifak (2010/2011 ikasturtea)

| Hileko bidaia kopurua | 0-10 | 10-25 | + 25 |
|---|---|---|---|
| Deskontua (%) | | % 10 | % 30 |
| Orio<br>Zarautz<br>Getaria | 8 € | 7,20 € | 5,60 € |
| Zumaia | 7,76 € | 6,98 € | 5,43 € |
| Zestoa | 7,52 € | 6,77 € | 5,26 € |
| Azpeitia | 6,96 € | 6,26 € | 4,87 € |
| Azkoitia | 6,72 € | 6,05 € | 4,70 € |

*Iturria: Piper Unibertsitate Elkartea*

### 2.2.2.7 Gertuko beste probintzia batzuetatik Bizkaiko Campusera

- ALSA

  Santanderretik Termibusera ordu eta erdian iristen diren linea erregularrak dituzte. Honako ibilbide hau egiten dute (ordutegiaren arabera alda daiteke): Santander – Maliaño – Astillero – Solares – Colindres – Laredo – Castro Urdiales – Bilbo.

  Honako ordu hauetan irteten da autobusa Santanderretik: 3:45, 6:00, 7:00, 7:30, 8:00, 9:30, 10:05, 11:00, 12:00, 12:30, 13:00, 14:00, 15:00, 15:30, 16:05, 17:00, 18:00, 19:00, 19:05, 20:00, 20:30, 21:00 eta 22:00.

  Joaneko txartelak 6,86 € balio du, eta joan-etorrikoak, berriz, 13,04 €.

- ENCARTACIONES S.A.

  Castro Urdialesetik Bilbora joateko autobusak eskaintzen dituzte. Honako ibilbide hauek egiten dituzte:

  - Castro Urdiales – Bilbo (zuzenean, A-8tik): goizeko 6:00etatik gaueko 22:00etara, 30 minututik.
  - Castro Urdiales – Mioño – Ontón – La Rigada – Muskiz – El Casal – Ortuella eta Nocedal – Trapagaran – Ugarte – Retuerto – Barakaldo – Burceña – Zorrotza – Bilbo (N-634tik): astelehenetik ostiralera, bost zerbitzu: 7:30, 10:30, 13:30, 16:30 eta 19:30.

  Bidaia luzeenaren txartel arruntak 2,77 € balio du, eta deskontuak lor daitezke bonu txartela erosita. Txartelean zenbat diru kargatzen den, hainbesteko deskontua lor daiteke; esate baterako, 5 eta 50 € artean kargatuz gero, % 3ko deskontua ematen dute; 55 eta 100 € artean kargatuz gero, % 6koa; eta 105 eta 200 € artean kargatuz gero, % 10ekoa.

## 2.2.3 Gipuzkoako Campusa




33. irudia: Gipuzkoako Campuseko ikastegiak

**Gipuzkoako Campuseko ikastegiak:**

Arkitektura GET (Ibaeta)

Enpresa Ikasketen UE (Ibaeta)

Medikuntzako Irakaskuntza Gunea (Donostia ospitalea)

Erizaintzako UE (Donostia ospitalea)

Industria Ingeniaritza Teknikoko UE (Eibar)

Irakasleen UE (Ibaeta)

Eskola Politeknikoa (Ibaeta)

Zuzenbide Fakultatea (Ibaeta)

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea (Ibaeta)

Informatika Fakultatea (Ibaeta)

Psikologia Fakultatea (Ibaeta)

Kimika Fakultatea (Ibaeta)

### 2.2.3.1 Donostiatik

Donostiatik bertatik Ibaetara, Medikuntzako Irakaskuntza Gunera eta Erizaintzako UEra joateko zein garraio publiko dagoen azalduko dugu atal honetan. Beste atal batean aztertuko ditugu Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UEra iristeko aukerak.

- D·BUS HIRI AUTOBUSAK

Donostiako Tranbia Konpainiak hiri autobusen sare zabal bat dauka Donostian. Bizikletak sar daitezke 18 lineatan, ordu tarte jakin batzuetan: neguan, 9:30etik 12:30era, 14:00etatik 17:00etara, eta 20:00etatik 23:00etara.



34. irudia: Donostiako hiri autobusen sarea (Iturria: www.dbus.es, 2011)

Garraiorako diru txartela, BONOBUSA, erabiliz gero, bidaia txartela merkeagoa ateratzen da. Txartel arruntak 1,40 € balio du, eta, bonobusa erabiliz gero, 0,75 €. Bestalde, hileko bonobus mugagabea lor dezakete honako baldintza hauek betetzen dituzten bidaiariek: 24 urte baino gutxiago izatea, Donostian erroldatuta egotea, eta IPREM[3] adierazlea halako 2,5eko errenta baino txikiagoa izatea (15.975 €).

Bestalde, D-bus hiri autobusetan, Lurraldebus txartela erabil daiteke. Txartela erabiliz gero, bidaia bakoitzak 0,75 € balio du.

[3] **IPREM edo Hainbat Ondoriotarako Errenta Adierazle Publikoa**: Espainian erabiltzen dute, erreferentzia gisa hartzeko, besteak beste, laguntzak, bekak, diru laguntzak eta langabezia saria ematean. 2004. urtean sortu zuten, harako Lanbide arteko Gutxieneko Soldata (LGS) ordezkatzeko.

## Ibaetara joaten diren lineak:

**5. linea: BENTABERRI**
Campus inguruan dauden geltokiak: Tolosa 14, Tolosa 25, Tolosa 70, Tolosa 77, R.M. Azkue eta Zarautz.
7:09tik 23:00etara, 6-8 minututik behin.
Bizikletak sar daitezke.




**24. linea: ALTZA – GROS – ANTIGUO – INTXAURRONDO**
Campus inguruan dauden geltokiak: Tolosa 25 eta Tolosa 77.
7:45etik 20:45era, 30 minututik behin.
Bizikletak sar daitezke.




**25. linea: BENTABERRI – AÑORGA**
Campus inguruan dauden geltokiak: Tolosa 14, Tolosa 25, Tolosa 70 eta Tolosa 77.
6:17tik 22:46ra, 20 minututik behin.




**27. linea: ALTZA – INTXAURRONDO – ANTIGUO – GROS**
Campus inguruan dauden geltokiak: Tolosa 14 eta Tolosa 70.
7:30etik 21:15era, 30 minututik behin.
Bizikletak sar daitezke.




**33. linea: LARRATXO – INTXAURRONDO – BERIO**
Campus inguruan dauden geltokiak: Elhuyar plaza eta Unibertsitatea.
7:00etatik 21:45era, 20 minututik behin.
Bizikletak sar daitezke.



35. linea: **ARRIOLA – ANTIGUO – AIETE – OSPITALEAK**
Campus inguruan dauden geltokiak: Julianategi
7:30etik 21:30era, orduro.
Bizikletak sar daitezke.




40. linea: **GROS – ANTIGUO – IGARA**
Campus inguruan dauden geltokiak: Tolosa 14, Tolosa 25, Tolosa 40, Tolosa 70 eta Elhuyar plaza.
7:00etatik 21:35era, 30 minututik behin.




## Medikuntzako Irakaskuntza Gunera eta Erizaintzako UEra joateko lineak:

28. linea: **AMARA – OSPITALEAK**
Lehen geltokia: BOULEVARD.
6:37tik 23:15era, 8 minututik behin.
Bizikletak sar daitezke.




31. linea: **INTXAURRONDO – OSPITALEAK – ALTZA**
Lehen geltokia: COLÓN.
7:30etik 21:45era, 30 minututik behin.
Bizikletak sar daitezke.



**35. linea: ARRIOLA – ANTIGUO – AIETE – OSPITALEAK**
Lehen geltokia: ARRIOLA.
7:30etik 21:30era, orduro.
Bizikletak sar daitezke.




**37. linea: RODIL – ZORROAGA**
Lehen geltokia: ATEGORRIETA.
7:30etik 21:30era, 30 minututik behin.




- BIDEGORRI SAREA

37. irudian ikusten den bezala, Donostiako bidegorri sareak Ibaeta zeharkatzen du, eta, horrez gain, badago bizikletak maileguan hartzeko gune bat, D·Bizi udal zerbitzuarena. Medikuntzako Irakaskuntza Gunearen eta Erizaintzako UEren kasuan, bidegorria Donostia ospitale inguru['raino'] iristen da, baina malda handi samarra da.

D·Biziren bitartez bizikleta bat mailegatzeko, urtean 20 € ordaindu behar da, eta gutxienez 150 € izan bankuko kontuan. Irregulartasunik ez dagoen bitartean (bizikleta galtzea, lapurtzea edo dagokion egunean ez itzultzea), saldo hori ez da aldatzen.

Bizikleta ordu batez erabil daiteke; hortik gora, bankuko kontutik 1 € kobratzen dute orduko. Bizikleta bat itzuli eta handik ordubetera har daiteke beste bat.







IBAETA

Bide gorria
*Carril bici*

Txirrindu ibilbidea oinezkoentzako lehentasunarekin
*Itinerario ciclista con prioridad peatonal*

Hurrengo gauzatzea
*Próxima realización*

Txirrinda aparkalekua
*Aparcamientos para bicis*

*Bizikleta-alokairua*
*Alquiler Bicicletas*

Bizikletak-konpontzeko
*Reparación Bicicletas*

dbizi bizikleten mailegurako geltokiak
*Estaciones de préstamo de bicicletas dbizi*



MEDIKUNTZAKO IRAKASKUNTZA GUNEA – ERIZAINTZAKO UE

35. irudia: Donostiako bidegorri sarea (Iturria: www.donostia.org, 2011)

### 2.2.3.2 Gipuzkoatik Donostiara

- EUSKOTREN

Donostian, EuskoTrenek honako ibilbide hauek eskaintzen ditu:

- **1K linea: Kostaldea:** lehen zerbitzua Ermutik irteten da 5:58an, eta azkena, berriz, 22:15ean. 15 minutuko maiztasuna du, gutxi gorabehera.
- **2. linea: Lasarte-Oria – Hendaia (Topoa):** lehen zerbitzua Zumaiatik irteten da 6:00etan, eta azkena, berriz, 22:32an. Lasarte-Oriatik, lehen zerbitzua 6:29an irteten da, eta azkena, berriz, 22:29an. 30 minutuko maiztasuna du.




36. irudia: EuskoTren eta EuskoTran lineen ibilbideak (Iturria: EuskoTren, 2011)

Gazteentzako bonuek EuskoTrenen garraio zerbitzua mugarik gabe erabiltzeko aukera ematen dute. Kostua aldatu egiten da ibilbidearen arabera.

- LURRALDEBUS

Taula batean azalduko ditugu Donostiako Campuseko ikastegietara joaten diren Lurraldebus lineak.

7. taula: Ibaetan edo Medikuntzako Irakaskuntza Gunetik eta Erizaintzako UEtik hurbil gelditzen diren Lurraldebus lineak

| GARRAIO ZERBITZUA | LINEA | LEHEN AUTOBUSA | AZKEN AUTOBUSA | MAIZTASUNA | ERIZAINTZAKO GELTOKIA | IBAETAKO GELTOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| AUTOBUSES GARAYAR S.A. | G-1 linea: Hernani – Aiete – Donostia | 6:30 | 22:30 | 15 min | Ospitaleetako bidegurutzea | - |
| | G2 linea: Andoain – Urnieta – Hernani – Donostia | 5:15 | 22:45 | 30 min | - | Tolosa / Unibertsitatea |
| | G-3 linea: Andoain – Donostia ospitalea | 6:50 | 22:45 | 1 ordu | Donostiako ospitalea | - |
| AUTOBUSES LA GIPUZKOANA | GI-2 linea: Azkoitia – Donostia (Azpeitian eta Zestoan gelditzen da) | 6:40 | 20:30 | 1 ordu | - | Tolosa 70, Unibertsitatea |
| EUSKOTREN | Zarautz – Orio – Donostia (Usurbilen gelditzen da) | 9:10 | 19:30 | 1 ordu | - | Unibertsitatea |
| | Zumaia – Donostia (AP-8 autobidetik) (Getarian eta Zarautzen gelditzen da) | 7:00 | 20:00 | 30 min | - | Unibertsitatea |
| | Zumaia – Donostia (N-634tik) (Usurbilen, Orion, Zarautzen eta Getarian gelditzen da) | 6:35 | 22:15 | 30 min | - | Unibertsitatea |
| HERRIBUS S.A. | H-6 linea: Errenteria – Ospitaleak (Lezon eta Pasaian gelditzen da) | 7:15 | 20:15 | 30-35 min | Erietxea | - |
| TSST | Andoain – Donostia (Lasarten gelditzen da) | 5:25 | 22:05 | 15 min | - | Unibertsitatea |

| GARRAIO ZERBITZUA | LINEA | LEHEN AUTOBUSA | AZKEN AUTOBUSA | MAIZTASUNA | ERIZAINTZAKO GELTOKIA | IBAETAKO GELTOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | Asteasu – Donostia (Asteasun, Zizurkilen, Villabonan eta Andoainen gelditzen da) | 6:50 | 20:35 | aldakorra | - | Unibertsitatea |
| | Lasarte – Donostia | 5:05 | 12:40 | | - | Unibertsitatea |
| | Tolosa – Donostia (Iruran, Villabonan, Andoainen eta Lasarten gelditzen da) | 6:30 | 21:45 | 30 min | - | Unibertsitatea |
| | Tolosa – Donostia (goizez, zuzenean) (Andoainen gelditzen da) | 7:10 | 15:00 | aldakorra | - | Unibertsitatea |
| | Tolosa – Donostia (arratsaldez, zuzenean) (Andoainen gelditzen da) | 17:55 | 17:10 | aldakorra | - | Unibertsitatea |
| | Usurbil – Donostia (Ospitaleak) (Zubietan eta Lasarten gelditzen da) | 7:15 | 20:45 | 1 ordu | Donostiako ospitalea | - |
| | Zubieta – Donostia (Lasarten gelditzen da) | 7:55 | 20:55 | 1 ordu | - | Unibertsitatea |
| | Villabona – Donostia | 6:35 | 21:50 | 30 min | - | Unibertsitatea |

*Iturria: www.lurraldebus.net*

Berriki, linea berriak sortu dituzte Oarsoaldean eta Bidasoaldean, eta Ibaeta eta Donostia ospitalea sartu dituzte ibilbide batzuetan:

8. taula: Lurraldebusen linea berriak, Ibaetan edo Medikuntzako Irakaskuntza Gunetik eta Erizaintzako UEtik hurbil gelditzen direnak

| ESKUALDEA | LINEA | LEHEN AUTOBUSA | AZKEN AUTOBUSA | MAIZTASUNA | ERIZAINTZAKO GELTOKIA | IBAETAKO GELTOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| OARSOALDEA | E03 P. Donibane – Errenteria – Donostia (Poliklinika) | 7:05 | 21:05 | 1 ordu | Ospitalea I | - |
| | E04 Oiartzun – Errenteria – Donostia (Ibaeta – Antiguo – Amara) | 7:10 | 20:10 | 1 ordu | - | Irakasleen Eskola UPV/EHU |
| | E06 Errenteria – Pasaia – Altza – Garbera Donostia (Ospitaleak) | 7:30 | 20:05 | 30 min | Ospitalea I | - |

| ESKUALDEA | LINEA | LEHEN AUTOBUSA | AZKEN AUTOBUSA | MAIZTASUNA | ERIZAINTZAKO GELTOKIA | IBAETAKO GELTOKIA |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | E07 Trintxerpe – P. Antxo – Donostia (Poliklinika) | 7:35 | 21:35 | 1 ordu | Ospitalea I | - |
| BIDASOALDEA | E23 Hondarribia – Irun mendebaldea – Donostia (Ibaeta – Antiguo – Amara) | 6:45 | 20:00 | 1 ordu | - | Irakasleen Eskola UPV/EHU |
| | E24 Irun – Donostia (Ibaeta – Antiguo – Amara) | 7:15 | 20:15 | 1 ordu | - | Irakasleen Eskola UPV/EHU |

*Iturria: www.lurraldebus.net*

Txartel Bakarra (behin eta berriz karga daitekeen txartel bat da) herri arteko Lurraldebus garraio publikoko zerbitzu guztietan erabil daiteke (Gipuzkoako Foru Aldundiaren emakiden arabera Lurraldebus osatzen duten zerbitzuetan, esan nahi baita), baita etorkizun batean sistema horri lotuko zaizkion tren zerbitzuetan ere.

Lurraldebus autobusetan Txartel Bakarra erabiliz gero, lehen bidaiatik hasita % 40ko deskontua egiten dute txartel arruntean, eta, hilabete baten buruan zenbat eta bidaia gehiago egin, orduan eta deskontu handiagoa egiten dute, % 90era ere iristeraino. Txartela egiteak 5 € balio du erabiltzaileko. Bestalde, 10-24 urte bitarteko gazteentzako Lurraldebus txartela erabiliz gero, txartela kargatzen den aldiro, kargatutako diru kopuruaren % 20 ematen dute. Txartel hori behin eta berriz karga daiteke, eta besterenezina da.

- PESA

Zornotza – Durango – Ermua – Eibar – Elgoibar – Donostia (autobidetik) linea: Zornotzatik eta Durangotik Donostiara joateko, autobus bakarra dago, Zornotzatik 6:35ean irteten dena eta Durangotik 6:45ean igarotzen dena. Ermutik, berriz, lau autobus irteten dira (6:50, 7:20, 8:50 eta 13:20). Eibartik, lehen autobusa 7:00etan irteten da, eta azkena, berriz, 21:50ean; orduro ibiltzen da, goizetan izan ezik, ordu erditik behin ibiltzen baita 9:30 bitartean.

- RENFE

**Aldiriak C-1: Irun – Brinkola**

Honako ibilbide hau egiten du: Irun (EuskoTrenekin eta autobus geltokiarekin lotuta), Irungo Bentak (EuskoTrenekin lotuta), Lezo-Errenteria, Pasaia, Herrera, Ategorrieta, Gros, Donostia (EuskoTrenekin eta autobus geltokiarekin lotuta), Loiola, Martutene, Hernani, Hernani Erdia, Urnieta, Andoain, Andoain Erdia, Villabona-Zizurkil, Anoeta, Tolosa Erdia, Tolosa, Alegia, Ikaztegieta, Legorreta, Itsasondo, Ordizia, Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga, Legazpi eta Brinkola.

Lehen trena 5:58an irteten da Brinkolatik, eta azkena 21:28an. Ordubete inguru behar du ibilbide osoa egiteko. Irundik, berriz, lehen trena 5:23an irteten da, eta azkena 22:23an. 22 minutuko bidaia izan ohi da. Badira hileko bonuak, egunean bi bidaia egiteko aukera ematen dutenak; baina gazte eta ikasleek ez dute inongo deskonturik.



37. irudia: RENFE Aldiriak sarea Donostialdean (Iturria: RENFE, 2011)

- BIKAIN

Eibarko Autobuses Ángel Rico garraio enpresak Leioa-Erandio eremura eta Bilbora joateko bidaiak antolatzen ditu, honako herri hauetatik: Elgoibar, Eibar, Soraluze eta Ermua. 230 abonatu ditu, gutxi gorabehera. 10 bidaiako bonuak saltzen dituzte 35 €-an, eta ikasturte osoan zehar ematen dute zerbitzua. Urtea bukatu eta bonua agortu gabe izanez gero, egin gabe gelditu diren bidaiei dagokien dirua itzultzen dute.

Autobusa 6:40an, 7:15ean eta 14:00etan irteten da Ibaeta aldera, eta 12:30ean, 14:30ean eta 18:30ean itzultzen da.

### 2.2.3.3 Bizkaitik Donostiara

- EUSKOTREN

EuskoTrenek honako ibilbide hauek egiten ditu Donostia inguruan:

- **1. linea: Donostia – Bilbo:** lehen zerbitzua 6:00etan irteten da Donostiatik, eta azkena 20:30ean. Astelehenetik ostiralera, 15 minututik ibiltzen da.
- **1D linea: Durangaldea**: lehen zerbitzua 5:39an irteten da Durangotik, eta azkena 23:10ean. 30 minututik behin ibiltzen da.




38. irudia: EuskoTren eta EuskoTran lineen ibilbideak (Iturria: EuskoTren, 2011)

- PESA
  - **Bilbo – Donostia linea:** goizeko 6:30etik gaueko 22:00etara, 30 minututik behin.
  - **Lekeitio – Ondarroa – Deba – Donostia linea:** honako herri hauetan gelditzen da: Lekeitio, Berriatua, Ondarroa, Mutriku, Deba, Itziar eta Donostia. Egunean lau zerbitzu ematen ditu, honako ordu hauetan: 6:30, 9:30, 13:00 eta 19:00. 85 minutu behar ditu Donostiara iristeko.
  - **Bilbo – Donostia – Irun – Baiona linea:** honako herri hauetan gelditzen da: Bilbo, Donostia, Irun, Hendaia, Donibane Lohitzune, Biarritz eta Baiona. Bilbotik, 7:30ean eta 13:00etan irteten da autobusa, eta Baionatik, berriz, 12:00etan (Donostian gelditzen da 14:00etan) eta 18:30ean (Donostian gelditzen da 20:30ean).




39. irudia: PESAko lineak (Iturria: www.pesa.net, 2011)

- ALSA
  - **Bilbo – Donostia linea:** ordutegiaren arabera, Eibarren gelditzen da. Egunean hamar zerbitzu egiten ditu; lehenbizikoa 5:15ean irteten da, eta azkena 22:00etan. 7,18 € balio du; supra+ zerbitzuak izan ezik, 14,24 € balio baitu.

#### 2.2.3.4 Arabatik Donostiara

- PESA
  - **Donostia – Gasteiz linea (AP-1etik):** goizeko 6:15etik hasita gaueko 22:15 arte, orduro.
- ALSA
  - **Donostia – Gasteiz linea:** ordutegiaren arabera, honako herri hauetan gelditzen da: Gasteiz, Altsasu, Beasain, Ordizia, Tolosa eta Donostia. Egunean hamabost zerbitzu izaten dira; lehena 5:00etan, eta azkena 23:30ean. 6 € balio du; supra+ zerbitzuak izan ezik, 11,84 € balio baitu.
- RENFE

4:44tik hasita, egunean zortzi tren ibiltzen dira, arratsaldeko 20:04 arte. Tren motaren arabera, turista klaseko prezioak aldatu egiten dira:

| | | | |
|---|---|---|---|
| TRENHOTEL | 15,10 € | DISTANTZIA ERTAINEKOA | 12,00 € |
| ALVIA | 19,60 € | EGUNEKOA | 16,90 € |
| ARCO | 16,90 € | | |

#### 2.2.3.5 Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE

- PESA
  - **Iruñea – Eibar linea:** honako herri hauetan gelditzen da: Iruñea, Berriozar, Eritze, Irurtzun, Etxarren, Uharte, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Lizarrusti, Ataun, Lazkao, Beasain, Ormaiztegi, Zumarraga, Antzuola, Bergara, Soraluze eta Eibar.

    Iruñetik, egunean bi autobus irteten dira: goizeko 11:00etan eta arratsaldeko 18:00etan. Eibartik, goizeko 7:45ean irteten da lehenbizikoa, eta arratsaldeko 13:30ean bigarrena. Bi ordu eta laurdeneko bidaia izaten da.
  - **Gasteiz – Arrasate – Bergara – Eibar linea:** ordutegiaren arabera eta AP-1etik joan edo ez, honako herri hauetan gelditzen da: Gasteiz, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Bergara, Soraluze eta Eibar. Lehen autobusa goizeko 6:30ean irteten da, eta azkena gaueko 21:00etan. Maiztasuna aldakorra da; 30 minutukoa edo ordubetekoa izan daiteke.

- **Eskoriatza – Aretxabaleta – Arrasate – Bergara – Soraluze – Eibar linea:** Arrasatetik, lehen autobusa 6:00etan irteten da, eta azkena 21:35ean. Eskoriatzatik, lehena 6:55ean, eta azkena 21:15ean. 20 minututik behin ibiltzen da; Soraluzen eta Eibarren izan ezik, orduro ibiltzen baita.

- LURRALDEBUS

  - **Udalbus Eibar linea:** honako geltoki hauetan gelditzen da: Debegesa, Azitain, Unzaga plaza eta Amaña. Goizeko lehen orduetan, 30 minututik behin ibiltzen dira autobusak, eta, bidaiari gutxiago ibiltzen den orduetan, orduro edo. Autobus guztiak ez dira Debegesaraino joaten, bidaiari gutxi ibiltzen baita.

  - **Ermua – Azpeitia linea:** honako herri hauetan gelditzen da: Ermua, Eibar, Elgoibar, Azkoitia eta Azpeitia. Goizeko 6:20tik gaueko 21:50 arte ibiltzen dira autobusak.

  - **Mallabia – Deba – Ondarroa linea:** honako herri hauetan gelditzen da: Mallabia, Ermua, Eibar (Unibertsitatea), Untzaga, Urkizu, Elgoibar, Mendaro, Deba, Itziar, Mutriku eta Ondarroa. Elgoibartik, lehen autobusa goizeko 6:25ean irteten da, eta azkena 22:05ean, 30 minututik behin; 25 minutuan iristen da unibertsitatera. Ondarroatik, orduro irteten da autobusa; lehena 7:10ean, eta azkena 21:10ean; 70 minutuan iristen da unibertsitatera. Mallabitik, lehen autobusa goizeko 6:00etan irteten da, eta azkena 22:00etan; 10 minutuan iristen da unibertsitatera, eta 30 minututik behin ibiltzen da.

  - **Eibar – Donostia – Eibar linea:** orduroko zerbitzuak.

  - **Donostia – Elgoibar – Eibar – Ermua linea:** AP-8 autobidetik. Donostiatik, lehen autobusa goizeko 7:00etan irteten da, eta azkena 21:00etan. Eibartik, lehen autobusa goizeko 7:00etan, eta azkena gaueko 21:05ean.

## 2.3 AZPIEGITURA BERRIAK

Gaur egun, abian dira garraio azpiegituren zenbait proiektu, zein bere fasean. Azpiegitura horiei esker, gero eta errazagoa izango da UPV/EHUren Campusera joatea.

### 2.3.1 Abian diren azpiegitura berriak

- **Abiadura Handiko Trena (AHT). Euskal Y:**

Euskal Y-k Euskal Autonomia Erkidegoko Tren Sare Berria eratuko du, Erkidegoko herrigune nagusiak elkarrekin lotuko dituen heinean. Garraiobide azkar, moderno eta iraunkor bat izango da. Sare mistoko garraiobide bat izango da; alegia, pertsonak zein merkantziak garraiatzeko erabiliko da. Bestalde, azpiegitura horri esker, Euskal Autonomia Erkidegoa Europako abiadura handiko sarean sartuko da; alegia, trenbidearen zabaleran bat ez egiteak aspalditik ekarri duen hesia hautsiko du.




40. irudia: AHTren ibilbidea eta loturak (Iturria: Euskal Trenbide Sarea, 2010)

Abiadura handiko tren sare berriari esker, bidaietako denbora murriztu egingo da. Ikus taula hau:

9. taula: Bidaia denborak. EAE barneko loturak

| | Bilbo – Gasteiz | Bilbo – Donostia | Gasteiz – Donostia |
|---|---|---|---|
| **Autobusa** | 60' | 70' | 90' |
| **Autoa** | 45' | 60' | 70' |
| **Euskal Y** | 28' | 37' | 34' |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio Saila*

Penintsularako eta Europarako bidaietan ere, bidaietako denborak nabarmen murriztuko dira. Esate baterako:

10. taula: Bidaia denborak. Penintsularako eta Europarako loturak

| | Bilbo – Madril | Bilbo – Bordele | Bilbo – Paris | Donostia – Paris | Donostia – Madril | Gasteiz – Paris |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Autobusa** | 4 h 15' | 4 h 20' | 12 h | 10 h 30' | 5 h 15' | 12 h |
| **Hegazkina*** | 1 h 40' | 1 h 20' | 2 h 20' | - | 1 h 30' | - |
| **Gaur egungo tren sarea** | 5 h 40' | 4 h 55' | 9 h 10' | 7 h 10' | 6 h | 8 h |
| **Euskal Y** | 2 h 10' | 2 h 18' | 5 h 47' | 5 h 9' | 2 h 15' | 5 h 40' |

*Iturria: Eusko Jaurlaritzako Herri Lan eta Garraio Saila*

* Gehi aireportura joateko eta ekipajea erregistratzeko behar den denbora.

Euskal Autonomia Erkidegoko tren sare berriak sei geltoki intermodal izango ditu; geltokiak, gainera, hiri erdiguneetan egongo dira, eta, horri esker, azkar iristeko modukoak izango dira EAEko biztanleen % 65entzat. Honako herri eta hiri hauetan egongo dira geltokiak: Bilbo (Abando), Gasteiz (Arriaga parkea), Donostia (Atotxan, beharbada), Astigarraga, Irun eta Ezkio-Itsaso.

Gauzatze fasean den azpiegitura bat izanik, oraindik ez dute tarifarik erabaki; horregatik, aukera ona izan liteke unibertsitateko ikasleentzako tarifa bereziak eskatzeko. Lanak 2016. urterako amaitzea aurreikusi dute.

### 2.3.2 Azpiegitura berrien proiektuak

- **Gasteizko tranbia: hegoalderantz zabaltzea.** 2010eko ekainean, Eusko Jaurlaritzak Gasteizko tranbia hegoalderantz zabaltzeko azterketa bat aurkeztu zuen; zehatzago, UPV/EHUren Arabako Campusaren erdigunerantz zabaltzeko. Proposamen bat besterik ez da oraingoz, baina tranbiaren beste linea bat gehiago izateak nabarmen hobetuko luke Arabako Campusaren erdigunera iristeko modua.




41. irudia: Gasteizko tranbia zabaltzeko proposamenaren mapa (linea zirkularra)

- **UPV/EHU – Leioa – Urbinaga tranbia:**

Tren azpiegitura berri horren lehen faseak Leioa eta UPV/EHUren Leioa-Erandio eremua elkarrekin lotuko ditu. 3.862 m luze izango da, eta bederatzi geltoki izango ditu: metro geltokia, Udondo bulebarra, Sabino Arana (bi geltoki), Udaletxea, Sarrienako biribilgunea, Askartza eta Leioa-Erandio eremua (bi geltoki).

Lehen kalkuluen arabera, 15 minutuan iritsiko da lehen geltokitik azkenekora. 5 eta 15 minutu arteko maiztasuna izango du, bidaiari kopuruaren arabera. Aurreikusi dutenez, urtean 4.150.000 bidaia egingo ditu tranbiaren linea berri horrek.

Eraikitze prozesuak bi fase izango ditu. 44. irudian ikus daiteke proiektuaren lehen fasea:




42. irudia: - Leioa – Urbinaga tranbiaren proiektuaren lehen fasearen xehetasunak (Iturria: Euskal Trenbide Sarea, 2010)

Proiektuaren bigarren fasean, Leioako aldageltokia eta Urbinagakoa elkarrekin lotuko dituzte, Bilboko itsasadarraren gainean zubi mugikor bat eraikita.




43. irudia: - Leioa – Urbinaga tranbiaren proiektuaren bigarren fasearen xehetasunak (Iturria: Euskal Trenbide Sarea, 2010)

Azpiegitura hori eraikiz gero, errazagoa izango da Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremura joatea. Gaur egun, tailerrak eta kotxetegiak eraikitzen ari dira; 20 hilabeteko epea dute lanak bukatzeko. Bestalde, tranbiaren plataforma, eta Leioako eta Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremua elkarrekin lotuko dituen metroa (1. linea) eraikitzeko proiektua amaituta eta onartuta dago. Azken faseari dagokionez (Leioa-Urbinaga tartea), informazio azterlana idazten ari dira.

- **Barakaldoko tranbia:**

2010eko abuztuan, Barakaldoko tranbiari buruzko informazio azterlana idaztea adjudikatu zuten. Azterlan horretan, adjudikatzaileek aintzat hartuko dute INECO ingeniaritza enpresak, Euskal Trenbide Sareak (ETS) eskatuta, Barakaldoko tranbiaren egingarritasunari buruz idatzi zuen informazio azterlana. Azterlan hartan, 25 alternatiba eta azpialternatiba aztertu zituzten, eta ibilbide bideragarri bat proposatu; bestalde, Barakaldon bada nahikoa bidaiari halako azpiegitura bat eraikitzeko.

INECOren azterketak dioenez, Barakaldoko tranbia bideragarria da, baldin eta Eskuinaldearekin lotzen badute Urbinagako aldageltokiaren bitartez. Eusko Jaurlaritzak eta Barakaldoko Udalak proposamena aztertu dute. Hamahiru geltoki izango ditu, eta Beurko, Lorategi Botanikoa, Retuerto, Lutxana eta Galindo auzoetako bizilagunek erabiliko dute. Hain zuzen, auzo horiek ez dute komunikazio onik ez metroarekin ez RENFErekin, edo ez dute zerbitzu publiko kolektiborik. Bestalde, tranbia Bilboko metroaren 2. linearekin lotuko dute; alegia, hiri barneko eta hiri kanpoko trenen aldageltoki funtzioa izango du. Guztira, 6 km luze baino gehiago izango da.

Herri arteko zerbitzu bat izango da, beraz. Sestaon, tranbia, eta metroa eta RENFE aldirietako trenen geltokia elkarrekin lotuko ditu Urbinagako aldageltokiaren bitartez. Horrez gain, Leioara eta UPV/EHUra joateko zerbitzua emango du.




44. irudia: Barakaldoko tranbiaren proiektuaren xehetasunak (Iturria: Euskal Trenbide Sarea, 2010)

- **Donostiako metroa:**

ETSk Donostiako metroari buruzko informazio azterlana idazteko zerbitzuak adjudikatzeko lehiaketa argitaratu du; emana da, beraz, Donostialdeko metroa eraikitzeko lehen pausoa.

Azterlana idazteko, 2.600.000 euroko aurrekontu bat izango dute, eta 18 hilabeteko epea (dagoeneko abian dena). Helburua da Lasarte – Hendaia linearen inbertsioak optimizatzea eta trena erabiltzen duten bidaiariei zerbitzu hobea eta zabalagoa ematea. Horretarako, Topoa metro bihurtuko da Donostialdean.

Tren linea berria 7,5 minutuko maiztasunez ibiliko da, eta unibertsitatera eta Donostiako erdigunera zuzenean joateko aukera emango du: Topoa edo metroa erabiltzen dutenek zuzenean egingo dute bidaia, eta RENFEko bidaiariek, berriz, lineaz aldatzeko aukera izango dute Loiolako Erriberetan.




45. irudia: Donostiako metro sarearen proiektua (Iturria: Euskal Trenbide Sarea, 2010)

- **Gasteizko geltoki intermodala**

Gasteizko geltoki intermodala Forondako ateen eta Juan de Garay kaleen angeluan eraikiko dute, Latinoamerikako biribilgunearen parean. Oso kokagune egokia da, ibilgailu zein bidaiariak erraz sartu eta aterako baitira. Aireportuarekiko komunikazioa ere ona da, eta hurbil dago, halaber, tranbia linea.

Alegia, hirira iparraldetik sartzeko eta ateratzeko bide nagusiaren (Forondako atea) ondoan eta hiria inguratzen duen barne ingurabidearen (Juan de Garay ingurabide zaharra) ondoan egongo da geltoki intermodala. Horrenbestez, hiri garraioa zein herri arteko garraioa hartzeko kokagune paregabea da. Horrez gain, hurbil ditu RENFE geltoki berria izango dena eta tranbia ere; alegia, bermatuta dago garraiobideen arteko intermodalitatea. Bestalde, oinez edo bizikletaz joateko ere egokia izango da, hiriaren erdigunetik hurbil baitago (Gasteiz etorbidea), bidegorri sarearekin loturik.

2011ko otsailean, lanak kontratatzeko lehiaketaren deialdia egin zuten. Lehiaketa irabazten duenaren arabera finkatuko da lanak egiteko epea.



46. irudia: Geltoki intermodalaren infografia (Iturria: www.porvitoriagasteiz.com, 2011)

## 2.4 LAGUNTZAK ETA DIRU LAGUNTZAK

### 2.4.1 Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta bekak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak honako laguntza eta beka hauek argitaratzen ditu:

- Garraiorako ez ohiko laguntzak, egunero EAEko unibertsitate ikastegiren batera joan behar duten ikasleentzat, baldin eta administrazioz EAEn bizi badira eta beste laguntza edo bekarik jasotzen ez badute. Ikasturtero egiten dute beka deialdia, abenduko bigarren hamabostaldian. Inprimaki ofizialak honako bulego hauetan har daitezke: Bizkaiko Campusean, Leioa-Erandio eremuko Beken Bulegoan (Ikasgelategian); Gipuzkoako Campusean, Ibaetako Akademia Kudeaketako Bulegoan (Ignacio María Barriola eraikina, Elhuyar plaza, 1); eta, Arabako Campusean, Errektoreordetzan. Ikasleek beren ikastegian utzi behar dituzte inprimaki horiek.
- Garraio gastuak ordaintzeko laguntza ekonomikoak, ahalmen urritasunen bat duten eta EAEko unibertsitateren batean ikasten duten ikasleentzat, modu beregain batean ohiko garraiorik erabili ezin dutenean. Ahalmen urritasuna legalki egiaztatu behar da. Honako baldintza hauek bete behar dira laguntza ekonomiko hori jasotzeko:

  1. EAEko udalerriren batean erroldatuta egotea.
  2. EAEko unibertsitate ikastegiren batean edo goi eskola teknikoren batean matrikulatuta egotea diru laguntzari dagokion ikasturtean.
  3. Ohiko bizilekutik unibertsitate ikastegira edo goi eskola teknikora joatea.
  4. Dagokion Foru Aldundiaren Balioespen eta Orientabide Unitateak honako baldintza hauek egiaztatzea:
     - % 33ko edo % 33tik gorako urritasuna.
     - Mugikortasun arazoak izatea garraiobide kolektiboak erabiltzeko.
     - Hirugarren pertsona baten laguntza behar izatea.

- Unibertsitate ikasketak egiteko beka eta laguntza orokorrak, administrazioz EAEn bizi diren ikasleentzat, baldin eta unibertsitate ikasketak edo goi mailako ikasketak (master ofizialak barne, eta gradu ondoko gainerako ikasketak kanpo) egiten ari badira EAEn edo Espainiako estatuko beste edozein lekutan. Honako laguntza mota hauek ematen dituzte:
  - Joan-etorriak: ikastegia beren bizilekutik 5 km baino urrutiagora dutenentzat.
  - Hiri garraioa: ikastegira joateko nahitaez garraiobide publiko bat baino gehiago erabili behar dutenentzat.

### 2.4.2 Arabako Foru Aldundiaren laguntzak

Arabako Foru Aldundiak diru laguntza bat ematen du, urtero, Arabako unibertsitate ikasleen garraio gastuen zati bat ordaintzeko; zehazki, Araban duten bizilekutik unibertsitate ikastegietara (150 km-ra, gehienez ere) joateak dakartzan gastuak. Diru laguntza horiek jasotzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Unibertsitate ikasleek Araban erroldatuta egon behar dute, eta gehienez ere beren bizilekutik 150 km-ra kokatutako unibertsitate ikastegi batean matrikulatuta, ikasturte osorako.
2. Garraio publikoa erabiltzea eta bidaia gastuen fakturak edo ziurtagiriak aurkeztea.

Ikasturte bakoitzean, garraio publikoan izandako gastu osoaren % 30eko deskontua lor daiteke.

### 2.4.3 Hezkuntza Ministerioaren bekak eta laguntzak

Hezkuntza Ministerioak urtero egiten du beka orokorrak zein mugikortasun bekak emateko deialdia, bizi diren autonomia erkidegotik kanpo ikasten duten unibertsitate ikasleentzat.

Bi mugikortasun beka mota ematen dituzte:

- Egoitza gastuak ere barne hartzen dituztenak, ikasturtean zehar etxetik kanpo bizi behar duten ikasleentzat.
- Egoitza gasturik ordaintzen ez dutenak, egunero etxetik unibertsitate ikastegira joaten diren ikasleentzat.

Beken zenbatekoak honako hauek dira:

| Modalidades | Estudiantes con domicilio familiar en Illes Balears | Estudiantes con domicilio familiar en Canarias, Ceuta o Melilla | Resto de estudiantes |
|---|---|---|---|
| General de movilidad con residencia . . . . . . . . . . | 3.947,00 € | 4.255,00 € | 3.336,00 € |
| Especial de movilidad con residencia. . . . . . . . . . | 6.667,00 € | 6.975,00 € | 6.056,00 € |
| General de movilidad sin residencia. . . . . . . . . . . | – | – | 1.592,00 € |
| Especial de movilidad sin residencia . . . . . . . . . . | – | – | 3.772,00 € |

Estatu mailako beka bat da, baina deialditik kanpo daude administrazioz EAEn bizi diren ikasleak, hala adostu baitzuten gai horri buruzko eskumen eskualdatzeen 1014/1985 Errege Dekretuan.

## 2.5 APARKALEKU KOPURUA ETA APARKALEKUEN TIPOLOGIA

Atal honetan, UPV/EHUren campusetako aparkalekuak aztertuko ditugu.

### 2.5.1 Arabako Campusa

#### 2.5.1.1 Aparkatzeko guneak

Arabako Campusak badu “Arabako Campusean Aparkatzeko Guneak Erabiltzeari eta Gune Horien Funtzionamenduari buruzko Araudia”, eta haren helburua da “Arabako Campusak bereak dituen aparkalekuen erabilera eta aparkalekuetara sartzeko elementuak kudeatzea”.

Arabako Campusean, honako gune hauek daude aparkatzeko:

- **Lur azpiko garajeak:**
  - Farmazia Fakultatea: Fakultateko sotoan, aparkatzeko 168 leku, eta beste 4, ahalmen urritasuna duten pertsonentzat.
  - Lucio Lascaray Ikerkuntza eta Ikasketa Aurreratuen Gunea (aurrerantzean, IIAG): eraikineko solairuartean, aparkatzeko 42 leku, eta beste 2, ahalmen urritasuna duten pertsonentzat.




47. irudia: Lur azpiko garajeen kokagunea (Iturria: geuk egina)

Aparkaleku horietara sartzeko, A motako aparkaleku akreditazioa behar da; alegia, Errektoreordetzak Campuseko aparkaleku bakar bat erabiltzeko ematen duen

baimena, txartel korporatiboa aktibatuz lortzen dena. Erabiltzaile bakar batentzako akreditazioa izaten da, eta ibilgailu bat baino gehiago erabil daiteke txartel berarekin.

- **Lur gaineko aparkaleku itxiak eta beste batzuk:**
  - Autobusak: lur gaineko aparkalekua eta autobusen zama lanetarako eremu bat, IIAGren ondoan, eraiki gabe dagoen lur eremuan.
  - Administrazio eta zerbitzuetako langileak, eta irakasle eta ikertzaileak: autobusentzat gordetako espazioaren ondoan, administrazio eta zerbitzuetako langileek, eta irakasle eta ikertzaileek badute aparkaleku esklusibo bat. Aparkaleku horretara sartzeko, IIAGren atzealdeko lur gaineko aparkaleku itxian aparkatzeko akreditazioa behar da. Akreditazioa lortzeko lehentasuna dute garaje itxietan aparkatzeko akreditaziorik ez dutenek.
  - Elurreta eraikina: Elurreta eraikinaren ondoan, eraikin itxiaren barnean, aparkatzeko 21 leku, eta beste 2, ahalmen urritasuna duten pertsonentzat. Bestalde, zama lanetarako 4 leku ere badaude.
  - Pabiloiaren eta Errektoreordetzaren tarteko gunea: zama lanetarako bakarrik.




48. irudia: Lur gaineko aparkaleku itxien kokagunea (Iturria: geuk egina)

- **Lur gaineko aparkaleku irekiak:**

  Arabako Campuseko erdigunean, honako aparkaleku hauek dituzte (gehi ingurumariko hiri bideetan dauden aparkaleku publikoak):

  - Francisco Tomás y Valiente kalea: Letren Fakultatearen eta haren ondoko eraikinaren artean dago. Aparkaleku txiki bat da.
  - Domingo Martínez Aragón kalea: hiru aparkaleku daude. Bata, Letren Fakultatearen eta Farmazia Fakultatearen artean dago; bestea, IIAGren eta Nieves Canoko Diocesanas ikastetxearen artean; eta bestea, aurreko biak baino handiagoa, Elurreta eraikinaren eta María de Maeztu parkearen ondoan.




49. irudia: Lur gaineko aparkaleku irekien kokagunea, Arabako Campuseko erdigunean (Iturria: geuk egina)

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean bada aparkaleku bat, hesiaren eta Lasarteko errepidearen artean, 52. irudian ikusten denez:




50. irudia: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko aparkalekua (Iturria: geuk egina)

Azkenik, Medikuntzako Irakaskuntza Gunean eta Erizaintzako UE atxikian, Txagorritxu ospitaleko aparkalekuak erabiltzen dituzte. Horrez gain, 192 plazako parking bat dute Coronela Ibaibarriaga kalean, 300 bat metrora.




51. irudia: Txagorritxu aldeko aparkalekuen kokagunea (Iturria: geuk egina)

- **Lur azpiko aparkaleku pribatuak:**

Lur azpiko aparkaleku pribatuei dagokienez, honako hauek daude unibertsitate eremutik hurbilen:

11. taula: Lur azpiko aparkaleku pribatuak Arabako Campuseko erdigune aldean

| Lur azpiko aparkalekua | Helbidea | Plaza kopurua | Unibertsitate eremurako distantzia |
|---|---|---|---|
| Arka | Arka kalea, 3 | 190 | Arabako Campuseko erdigunea: 600 m |
| Santa Barbara | Santa Barbara plaza | 609 | Arabako Campuseko erdigunea: 1 km |
| Dendaraba | Posta kalea, 40 | 150 | Arabako Campuseko erdigunea: 700 m |
| Amarika | Amarika plaza | 224 | Arabako Campuseko erdigunea: 500 m |

*Iturria: Gasteizko Udala*

### 2.5.1.2 TAO eremuak

2009. urtearen amaieran, TAO goitik behera berrantolatu zuten; 2010eko urtarrilean etorri zen bigarren fasea. Besteak beste, honako helburu hauek finkatu zituzten:

- Bertakoentzako aparkatzeko lekuak egokitzea etxetik hurbil.
- Zerbitzu eta saltokien jarduerarekin bateragarria den txandakako sistema bat prestatzea.
- Garraio publikoari lehentasuna ematea, ibilgailu pribatuaren gainetik.




52. irudia: Gasteizko hiriguneko TAO eremuak (Iturria: Gasteizko Udala)

1A eremua (Arabako Campuseko erdigunetik hurbil) eta 2B eremua (Medikuntzako Irakaskuntza Gunetik hurbil) daude unibertsitatetik hurbilen. TAOren ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izaten da, eta, larunbatetan, 10:00etatik 14:00etara.

12. taula: Arabako Campuseko erdigune ondoko TAO eremuen tarifak

| 1A EREMUA | 2B EREMUA |
|---|---|
| 15 minutu: doan | 15 minutu: doan |
| 30 minutu: 1 € | 30 minutu: 0,70 € |
| 60 minutu: 1,70 € | 60 minutu: 1,30 € |
| 90 minutu: 2,50 € | 90 minutu: 1,90 € |

*Iturria: Gasteizko Udala*

Etorkizun hurbilean, Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana aplikatzeaz batera, TAO eremu gehiago jarriko dituzte. Aparkalekuen politikaren helburua da hiru eremu bereiztea; izan ere, eremu guztietan ez dago aparkatzeko lekuen behar bera, batzuetan auto gehiago ibiltzen baita beste batzuetan baino. Gainera, eremu guztiek ez dute garrantzi bera hirian barrena egiten diren bidaien antolaketa modalean:

- **1. eremua:** Zabalgunean. Txandakako aparkalekuen eta bertakoen aparkalekuen eskari handia. Txandakako aparkalekuetarako plaza ugari eskaini behar dira, eta, prezioen politikari dagokionez, kalean aparkatu nahi dutenen gaintrafikoa murriztea eta hiri garraio kolektiboa bultzatzea da helburua.
- **2. eremua:** txandakako aparkalekuen eskari handia. Txandakako aparkalekuetarako plaza ugari eskaini behar dira, tarifa gorriko eremuko txandakako aparkalekuak murritz daitezen, hiri garraio kolektiboa erabiltzea bultzatzeko asmoz.
- **3. eremua:** bertakoen aparkaleku eskari handia eta txandakako aparkalekuen eskari aldakorra. TAO eremuaren mugetatik ingurabide zaharrerainoko hedadura izango du (gaur egun, ingurabidea itxia da) hegoalderantz, Salvatierrabide, Álava klinika, Zumakera pasealekua eta Iturritxu ardatzetik. Aukera nahikoa eskaini behar du txandakako aparkalekuetarako, eta hiri garraio kolektiboa bultzatu behar du. Eremu horren barnean dagoke Arabako Campusa, salbu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatea.




53. irudia: TAO tarifa eremuen banaketaren proposamena (Iturria: Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren eta Espazio Publikoaren Plana. Gasteizko Udala)

### 2.5.2 Bizkaiko Campusa

Bizkaiko Campuseko ikastegien banaketaren arabera antolatu dugu aparkalekuen azterketa: Leioa-Erandio eremua, Bilbo, Barakaldo eta Portugalete.

#### 2.5.2.1 Aparkatzeko guneak

- **Leioa-Erandio eremua**

Leioa-Erandio eremuan, etengabe dihardute hirigintza berrikuntzan; besteak beste, orain arte aparkatzeko izan dituzten guneak berrantolatzen ari dira.

Jorge Oteiza eta Mikel Laboa plaza berrien eraginez, plataformaren azpiko aparkaleku gehienak desagertu dira. Ondorioz, zenbait parking alternatibo jarri dituzte; ikus 2009ko uztaileko planoa:




54. irudia: Aparkatzeko guneak Leioa-Erandio eremuan, 2009ko uztailean

P1. Medikuntzako Irakaskuntza Guneko aparkalekua



P2. Behin-behineko aparkalekua




P3. Asfaltozko aparkalekua



55. irudia: Aparkatzeko guneak Leioa-Erandio eremuan (2009ra artekoak)

Urbanizatze faseek aurrera egin heinean, aparkatzeko guneak aldatuz doaz. Esate baterako, berriki, 2. eta 3. aparkalekuak kendu dituzte. Aparkaleku falta konpontzeko asmoz, beste aparkaleku batzuk prestatu dituzte Arte Ederretako Fakultatearen eta kiroldegiaren ondoan. Irakasleen Unibertsitate Eskolako aparkalekua zabalik dago irailaz geroztik, eta, beraz, aparkatzeko 360 leku gehiago sortu dira.

Azpiegituretarako Hainbat Urtetarako Planaren baitan, Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen eta ikasgelategien parean aparkaleku bat eraikitzea aurreikusi dute; gaur egun, lur gaineko aparkaleku bat dute eremu horretan, behin-behinekoa. Aparkaleku berriak 950 ibilgailurentzako tokia izango du, eta aparteko eraikin batean kokatuko dute. 2013rako bukatzea aurreikusi dute.

- **Bilbo aldea**

Unibertsitate ikastegiak hirigune sendo batean bilduta daude; horrenbestez, hirigune horretan bizi direnekin eta lan egiten dutenekin partekatu behar dira aparkalekuak. Hiri bideetako aparkaleku marrak alde batera utzita, ikastegien inguruan kalean aparkatzeko dauden lekuen berri emango dugu:

**Bilboko zezen plaza (Machín kalea)**

150 plaza
Enpresa Ikasketen UErako distantzia (Elcano): 650 m
Ingeniaritza Teknikoko UErako distantzia: 650 m



**Bailen kalea, 22**

351 plaza
Enpresa Ikasketen UErako distantzia (Elcano): 850 m



## Zorrotzaurre

TAO aparkalekua.
Sarrikoko Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatetik hurbilen dagoen aparkalekua da (1,5 km-ra).



Lur azpiko aparkaleku pribatuei dagokienez, honako hauek aipa daitezke unibertsitate eremutik hurbil:

13. taula: Lur azpiko aparkaleku pribatuak Bilbo aldean

| Lur azpiko aparkalekua | Helbidea | Plaza kopurua | Unibertsitate eremurako distantzia |
|---|---|---|---|
| Aresti Kondea | Zabalgune plaza, 13 (Bilbo) | 349 | Enpresa Ikasketen UE: 550 m |
| El Corte Inglés | Aiala Kantzilerraren kalea (Bilbo) | 300 | Enpresa Ikasketen UE: 550 m |
| Alhondiga | Urkixo zumardia (Bilbo) | 285 | Enpresa Ikasketen UE: 250 m |
| Institutua | Urkixo zumardia, 14 (Bilbo) | 535 | Enpresa Ikasketen UE: 190 m |
| Euskalduna jauregia | Abandoibarra etorbidea, 4 (Bilbo) | 450 | Ingeniaritza GET: 800 m |

*Iturria: Bilboko Udala*

- **Barakaldo aldea**

Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UEren sarreran bada aparkaleku bat, 58. irudian ikusten denez:



56. irudia: Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UEko aparkalekuak (Iturria: geuk egina)

Lur azpiko aparkaleku pribatuak Eskolatik urrun samar daude, eta pentsatzekoa da unibertsitateko ikasleek ez dituztela ia erabiltzen.

14. taula: Lur azpiko aparkaleku pribatuak Barakaldon

| Lur azpiko aparkalekua | Helbidea | Plaza kopurua | Unibertsitate eremurako distantzia |
|---|---|---|---|
| Herriko plaza | Herriko Plaza, 5 (Barakaldo) | 252 | 1,3 km |
| Epaitegiak | Gernikako Arbola kalea, 3 (Barakaldo) | 218 | 1,1 km |

*Iturria: Barakaldoko Udala*

- **Portugalete aldea**

Portugaleteko herrigunean dago Nautika eta Itsasontzi Makineria GET. Han ez dago kalean aparkatzeko lekurik; horrenbestez, inguru hartan kalean aparkatzeko aukera bakarra Portugaleteko hiri bideetan aparkatzea da.

Handik hurbil, badago kiroldegi bat, aparkaleku esklusibo eta guzti, 59. irudian ikusten den bezala:



57. irudia: Nautika eta Itsasontzi Makineria GET, airetik

Lur azpiko aparkaleku pribatuei dagokienez, bi daude Portugaleten:

15. taula: Lur azpiko aparkaleku pribatuak Portugaleten

| Lur azpiko aparkalekuak | Helbidea | Plaza kopurua | Unibertsitate eremurako distantzia |
|---|---|---|---|
| San Roke | Gregorio Uzquiano, zk.g. (Portugalete) | - | Nautika eta Itsasontzi Makineria GET: 1 km |
| Zubialde | Cristobal Mello, zk.g. (Portugalete) | 144 | Nautika eta Itsasontzi Makineria GET: 450 m |

*Iturria: Portugaleteko Udala*

### 2.5.2.2 TAO eremuak

- **Leioa-Erandio eremua**

Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremua hirigunetik urruti dago, eta, horrenbestez, ez dago TAO eremuan.

- **Bilbo aldea**

Bilbon, aparkatzeko eremu askotan, TAO dago (Trafikoaren eta Aparkamenduaren Ordenamendua). Ondoren, Bilboko hiriguneko unibertsitate guneko TAO eremuen berri emango dugu.




58. irudia: Bilboko TAO eremuak (Iturria: Bilboko Udala)

16. taula: Bizkaiko Campusetik hurbil dauden TAO eremuak, Bilbo aldean

| Unibertsitate ikastegia | TAO eremua |
|---|---|
| Bilboko Ingeniaritza GET | 5. eremua: Basurtu |
| Bilboko Enpresa Ikasketen UE | 2. eremua: Indautxu |
| Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko UE | 4. eremua: Ametzola |
| Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatea | TAO eremutik kanpo |
| Bilboko Irakasleen UE | TAO eremutik kanpo |

*Iturria: Bilboko Udala*

Honako hau da TAOren ordutegia: lanegunetan, 9:00etatik 13:30era, eta 15:00etatik 20:00etara, eta, larunbatetan, 9:00etatik 13:00etara. 5., 6., 7., 8., 9. eta 11. eremuetan ez da TAOrik izaten larunbatetan, ezta uztaileko eta abuztuko larunbatetan, jai bezperako larunbatetan, eta abuztuko arratsaldeetan ere.

Aparkaleku arautua bi koloreren bitartez identifikatzen dute Bilbon: berdea (bertakoek dute lehentasuna) eta urdina (txandakakoek dute lehentasuna).

Erabiltzaile motaren arabera, bi koloreetako aparkalekuek honako baldintza hauek dituzte:

17. taula: - Erabiltzaile motaren araberako baldintzak

| | BERDEA | URDINA |
|---|---|---|
| **BERTAKOAK** | **Beren eremuan:** txartela behar dute (ez da tiketik behar). Ez dago denbora mugarik.<br><br>**Beren eremutik kanpo:** bisitarientzako tarifak. | **Beren eremuan:**<br>Lanegunetan: txartela behar dute, eta tiketa doakoa da. Gehienez ere, 2 ordu.<br>Larunbatetan: txartela behar dute (ez da tiketik behar). Ez dago denbora mugarik.<br>**Beren eremutik kanpo:** bisitarientzako tarifak. |
| **BISITARIAK** | Tiketa hartu behar dute. Gehienez ere, bost ordu. | Tiketa hartu behar dute. Gehienez ere, bi ordu. |
| **ALDE ZAHARREKO BERTAKO ERABILTZAILEAK** | **10. gunean:** txartela behar dute (ez da tiketik behar). Ez dago denbora mugarik.<br><br>**Gainerakoetan:** txartela behar dute, eta tiketa doakoa da. Gehienez ere, 24 ordu. | **Bilbo osoan:**<br>Lanegunetan: txartela behar dute, eta tiketa doakoa da. Gehienez ere, bi ordu.<br>Larunbatetan: txartela behar dute (ez da tiketik behar). Ez dago denbora mugarik. |

*Iturria: Bilboko Udala*

18. taula: Bilboko TAO eremuetako tarifak

| EREMU BERDEA | EREMU URDINA |
|---|---|
| 15 min: 0,20 € | 15 min: 0,20 € |
| 30 min: 0,45 € | 30 min: 0,45 € |
| 56 min: 1 € | 56 min: 1 € |
| 2 h 8 min: 3 € | 1 h 20 min: 1,50 € |
| 2 h 55 min: 5 € | 1 h: 39 min: 2 € |
| 3 h 17 min: 6 € | 2 h: 2,65 € |
| 5 h: 1,10 € | |

*Iturria: Bilboko Udala*

- **Barakaldo aldea**

Barakaldon, TAO eremutik kanpo dago Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko UE. Handik hurbil dago, baina, 6. eremua; hona haren ezaugarriak:

**TAO seinaleak:** **Eremu urdina**

**Tarifak:**
30 min: 0,35 €
60 min: 0,95 €
90 min: 1,60 €
2 ordu: 2,20 €

**Ordutegia:** Astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, eta 16:00etatik 20:00etara
Larunbatetan, 9:00etatik 14:00etara

- **Portugalete aldea**

Portugaleten ez dago TAOrik.

## 2.5.3 Gipuzkoako Campusa

### 2.5.3.1 Aparkatzeko guneak

- **Donostialdea**

Honako aparkaleku hauek daude unibertsitate eremutik hurbilen:

**Ondarreta pasealekua**

220 plaza
UPV/EHUk Udalari aldi baterako utzi dion lurzoruaren gaineko aparkalekua.
Ibaetan dago.



**Lautximinieta plaza**

328 plaza
UPV/EHUk Udalari aldi baterako utzi dion lurzoruaren gaineko aparkalekua.
Ibaetan dago.
Hemendik gutxira, TAO sistema jarriko dute.



**Ibaeta**

Unibertsitate ikastegien arteko aparkalekuak: María de Maeztu kalean, Elhuyar plazan eta Manuel Lardizabal pasealekuan.

Eremu publikoa da, salbu Kimika Fakultatearen eta Informatika Fakultatearen arteko eremua, UPV/EHUrena baita; hain zuzen, unibertsitateko jendeak bakarrik erabiltzeko prestatu da, unibertsitate txartelaren bitartez, eta 111 plaza ditu.



EUSKAMPUS
Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional

## Ibaeta – Berio pasealekua



165 plaza
Berio pasealekuan. Administrazio eta zerbitzuetako langileentzat, ikasleentzat, eta ikertzaile eta irakasleentzat. Txartel elektroniko bidez. Autobusek ondoko karabana aparkalekuan aparkatzen dute (argazkian ez da aparkaleku hori ageri, argazkia aurrekoa baita).

## Donostia ospitalea



808 plaza
Ordainpeko aparkalekua, Donostia ospitalean. Medikuntzako Irakaskuntza Guneko eta Erizaintzako UEko kideek erabiltzen dute.

Bestalde, ikastegiek badituzte lur azpiko aparkalekuak. Kasu guztiak ez dira berdinak, baina, gehienetan, irakasle eta ikertzaileek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek erabiltzen dituzte. Horretarako, aparkatzeko baimena eskatu behar dute, eta diru berme bat ordaindu. Carlos Santamaría zentroaren kasuan, bi deialdi publiko egin dira aparkatzeko baimenak emateko.

- Manuel Agud Querol egoitza: 94 plaza. Bertakoentzako aparkalekuak.
- Enpresa Ikasketen UE: 64 plaza.
- Ignacio Mª Barriola eraikina: 62 plaza.
- Psikologia Fakultatea: 96 plaza.
- Eskola Politeknikoa: 105 plaza.
- Carlos Santamaría zentroa: 448 plaza (lur gainean zein lur azpian)

Gainera, Ibaetako eremuan, autoa partekatzeko 171 plaza daude (okupazio altuko ibilgailuak); UPV/EHUrenak dira guztiak ere. Bestalde, Ibaetan bertan, UPV/EHUrentzat gordetako 31 aparkaleku daude; aparkaleku horiek erabiltzeko, beharrezkoa da ikastegietako zuzendaritzen baimena izatea, eta haiek bakarrik erabil ditzakete.

Donostiako lur azpiko aparkaleku pribatuak unibertsitate eremuetatik urruti daude (Bentaberriko aparkalekua izan ezik, Ibaetatik hurbil baitago).

19. taulan, aparkalekuetatik Ibaetara, Medikuntzako Irakaskuntza Gunera eta Erizaintzako UEra joateko autobusen berri emango dugu:

19. taula: Lur azpiko aparkalekuak eta Donostiako Campusa

| APARKALEKUA | HELBURUA | PLAZA KOPURUA | D·BUS LINEEKIKO LOTURAK |
|---|---|---|---|
| AMARA | Zuaznabar kalea (P.K.: 20010) | - | Ibaeta: 24. eta 27. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 28. eta 37. lineak |
| BENTABERRI | Resurrección M. Azkue kalea, 10 (P.K.: 20018) | 485 | Ibaeta: 35., 33., 5., 25. eta 27. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 35 linea |
| ATOTXA | Mandasko Dukearen kalea (P.K.: 20012) | 155 | Ibaeta: 40., 33. eta 27. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 37. eta 31. lineak |
| ARCCO | Irun plaza, 6 (P.K.: 20011) | 214 | Ibaeta: 2. linea<br>Medikuntza-Erizaintza: 28., 31. eta 37. lineak |
| ARTZAIN ONA | San Bartolome kalea, 1 (P.K.: 20007) | 385 | Ibaeta: 33., 5., 25., 40. eta 24. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 31., 28. eta 37. lineak |
| EASO | Easo plaza, 8 (P.K.: 20006) | 146 | Ibaeta: 24. eta 27. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 28. eta 37. lineak |
| KURSAAL | Zurriola etorbidea, 3 (P.K.: 20002) | 293 | Ibaeta: 33., 40. eta 24. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 31. eta 37. lineak |
| KATALUNIA PLAZA | Katalunia plaza, 1 (P.K.: 20001) | 477 | Ibaeta: 33., 40. eta 24. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 37. eta 31. lineak |
| ILUNBE | Miramon pasealekua, 8 (P.K.: 20014) | - | Ibaeta: -<br>Medikuntza-Erizaintza: 28. eta 31. lineak |
| BOULEVARD | Boulevard zumardia, 2 (P.K.: 20003) | 385 | Ibaeta: 5. eta 25. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 28., 37. eta 31. lineak |
| TXOFRE | Birmingham kalea, 26 (P.K.: 20001) | 468 | Ibaeta: 33., 40. eta 24. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 31. eta 37. lineak |
| KONTXA | Cervantes plaza, 1 (P.K.: 20004) | 624 | Ibaeta: 33., 5., 25. eta 40. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 28., 31. eta 37. lineak |
| OKENDO | Regente erregina kalea, 1 (P.K.: 20003) | 767 | Ibaeta: 5. eta 25. lineak<br>Medikuntza-Erizaintza: 28., 37. eta 31. lineak |

*Iturria: Donostiako Udala*

- **Eibar aldea:**

Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UEk badu lur gaineko aparkaleku bat ikastegiko eraikinen inguruan; ikus irudia:



59. irudia: Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko UEko aparkalekua (Iturria: geuk egina)

Eibarko herrigunean badira lur azpiko zenbait aparkaleku:

- Txomo aparkalekua (Bidebarrieta kalea, 38)
- Txaltxa Zelai aparkalekua (Juan Gisasola kalea, 1)

Horrez gain, doako bi aparkaleku egiteko lanetan dabiltza Mendiguren eta Zarraua lantegi zaharren orubeetan, Otaola eta Torrekua aldean (Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskolaren ondoan), eta Txonta auzoko Solac aldean. Otaola-Torrekuako aparkalekuak 250 plaza izango ditu, eta Solac-ekoak, berriz, 70.

### 2.5.3.2 TAO eremua

- **Donostialdea**



Donostiako hirigunean badira TAO sistemaren arabera (Trafikoaren eta Aparkamenduaren Ordenamendua) araututako zenbait aparkatzeko gune. Gaur egun, Ibaetako unibertsitate eremua TAOren 4-5 gunean dago. Horretaz gainera, ondoko Benta Berri eta Antigua auzoetan ere TAO sistema dago, baina baldintza desberdinak dituzte.

Zehazki, honako baldintza hauek adostu dira Udalarekin Ibaetako unibertsitate eremurako (4-5 sektorean kokatua):

- Iraunaldi ertain baterako aparkatzeko gunea. Gehienez ere 5 orduz aparka dezakete ohiko erabiltzaileek. Unibertsitateko kideek ez dute ordutegi mugarik.
- TAO sistema honako ordutegi hauetara mugatzea aurreikusi dute: urte guztian zehar, astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:30era eta 15:30etik 20:00etara. Larunbat, igande eta jaiegunetan ez da ordaindu behar.
- Sektore horrentzako gordeak ez diren aparkalekuetan, edozein erabiltzailek aparka dezake, 1. tarifari dagokion kopurua ordaindu ondoren (tarifa arrunta), eta baita UPV/EHUko akreditazioa dutenek ere (unibertsitateko txartela), 2. tarifa ordainduta, denbora mugarik gabe.

| TARIFA | DENBORA | € |
|---|---|---|
| 1 ARRUNTA | 15 | 0,27 |
| | 60 | 0,87 |
| | 90 | 0,98 |
| | 180 | 1,42 |
| | 270 | 1,91 |
| | 300 | 2,06 |
| **2 UPV/EHU** | 15 | 0,24 |
| | 60 | 0,76 |
| | 90 | 0,86 |
| | 180 | 1,24 |
| | 270 | 1,67 |
| | 300 | 1,81 |
| | 540 | 3,05 |
| 3 OKUPAZIO ALTUKO IBILGAILUAK | 15 | 0,08 |
| | 60 | 0,26 |
| | 90 | 0,29 |
| | 180 | 0,42 |
| | 270 | 0,57 |
| | 300 | 0,62 |
| | 540 | 1,05 |
| Salaketak | 4,05 | |

| | |
|---|---|
| baliogabetzea | |

Okupazio altuko ibilgailuentzako gordetako guneak (auto partekatuak):

- Ondarreta pasealekua, Mauleón eta Olarain kaleen artean
- Tolosa etorbidea, Elhuyar plazaren eta María de Maeztu kalearen artean

Gune horietan, bi pertsona edo gehiago garraiatzen dituzten UPV/EHUko ibilgailuek bakarrik aparka dezakete; beharrezkoa da UPV/EHUren akreditazioa izatea (unibertsitateko txartela) eta 3. tarifari dagokion kopurua ordaintzea aldez aurretik, eta ez dago denbora mugarik.

Bestalde, ziklomotorrentzako aparkalekuen gunea zabaldu egin dute, bai Enpresa Ikasketen UE inguruan, bai UEP inguruan.




UPV/EHUko kideek bakarrik erabiltzeko aparkalekuak daude:

Olarain kalean, Tolosa etorbidearen eta Ondarreta pasealekuaren artean; Manuel de Lardizabal pasealekuan (Unibertsitatearen barrualdean, Kimika Fakultatearen eta Informatika Fakultatearen artean); María de Maeztu kalean.

Gune horietan, doan aparkatu ahal izango da, eta UPV/EHUk berariaz baimendutako ibilgailuek bakarrik (arautze fasean).

EUSKAMPUS
Nazioarteko Bikaintasun Campusa
Campus de Excelencia Internacional

## TASA POR ESTACIONAMIENTO DE VEHICULOS

Cuotas tributarias (€):

| | |
|---|---|
| 1.- Tarjetas de autorización de aparcamiento para residentes y veraneantes, por año o fracción: | 50,90 |
| 2.- Tarjetas de autorización de aparcamiento para minusválidos: | Gratuitas |

3.- Autorización de aparcamiento con limitación de horario en las siguientes zonas tarifarias:

| TARIFA | TIEMPO | Zona Especial | Zona Roja | Zona Azul | Zona Verde |
|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 15 | 0,68 | 0,55 | 0,44 | 0,27 |
| 1 | 60 | 1,94 | 1,48 | 1,12 | 0,87 |
| 1 | 90 | 2,69 | 1,95 | 1,49 | 0,98 |
| 1 | 180 | 5,11 | 3,72 | 2,82 | 1,42 |
| 1 | 270 | 7,59 | 5,53 | 4,15 | 1,91 |
| 1 | 300 | 8,43 | 6,16 | 4,59 | 2,06 |
| 1 | 540 | | | | 3,49 |
| 2 | 15 | 0,59 | 0,49 | 0,38 | 0,24 |
| 2 | 60 | 1,69 | 1,30 | 0,98 | 0,76 |
| 2 | 90 | 2,35 | 1,71 | 1,31 | 0,86 |
| 2 | 180 | 4,47 | 3,25 | 2,47 | 1,24 |
| 2 | 270 | 6,64 | 4,84 | 3,63 | 1,67 |
| 2 | 300 | 7,38 | 5,39 | 4,02 | 1,81 |
| 2 | 540 | 13,30 | 10,20 | 7,08 | 3,05 |
| 3 | 15 | 0,20 | 0,17 | 0,13 | 0,08 |
| 3 | 60 | 0,58 | 0,44 | 0,34 | 0,26 |
| 3 | 90 | 0,81 | 0,59 | 0,45 | 0,29 |
| 3 | 180 | 1,53 | 1,12 | 0,85 | 0,42 |
| 3 | 270 | 2,28 | 1,66 | 1,24 | 0,57 |
| 3 | 300 | 2,53 | 1,85 | 1,38 | 0,62 |
| 3 | 540 | 4,56 | 3,50 | 2,43 | 1,05 |
| Anulación de denuncias | | 9,15 | 7,10 | 5,05 | 4,05 |

**Tarifa 3.** Sin límite de permanencia para los vehículos, mixtos e industriales y para talleres mecánicos, provistos de parquímetros individuales

**Tarifa 2**. Sin límite de permanencia para los vehículos mixtos e industriales con autorización municipal

**Tarifa 1**. Con límite de permanencia para el resto de vehículos

Medikuntzako Irakaskuntza Gunetik eta Erizaintzako UEtik hurbil, berriz, Amaran ere TAO sistema dago, Donostia ospitaletik 2 km-ra, UE dagoen lekuan. Hona eremu horren ezaugarriak:

<table>
<tr><th colspan="4"><u>OTA EREMUA: AMARA</u></th></tr>
<tr><th colspan="2">Anoetatik Pio XII.a plazaraino</th><th colspan="2">Amara Zaharretik Pio XII.a plazaraino</th></tr>
<tr><td>Astelehenetik ostiralera:<br>9:00 - 13:30 / 15:30 - 20:0</td><td>Larunbatetan: 9:00 - 13:30</td><td>Astelehenetik ostiralera:<br>9:00 - 13:30 / 15:30 - 20:0</td><td>Larunbatetan: 9:00 - 13:30 / 16:30 - 21:00</td></tr>
<tr><td colspan="2">TARIFA — Duración máxima de aparcamiento<br>ESPECIAL — 1:30 H.<br>ROJA — 1:30 H.<br>AZUL — 1:30 H.<br>LARGA DURACIÓN — 3 H.<br>LARGA DURACIÓN — 5 H.<br>LARGA DURACIÓN — 9 H.<br>CALLES EXCLUSIVAS PARA RESIDENTES — --<br>15 MINUTOS GRATIS - OTA Comercial — --</td><td colspan="2"><br></td></tr>
</table>

- **Eibar aldea**

2010. urtean, Eibarko herriguneko aparkalekuetako denbora mugatzeko udal araudi bat onartu zuen Eibarko Udalak. Oraingoz, Errebaleko elikagai merkatu zaharreko aparkalekuetan soilik aplikatzen dute, astelehenetik larunbatera, 9:00etatik 20:00etara (igande eta jaiegunak salbu, beraz).

## 2.6 IKASLEENTZAKO OSTATU ESKAINTZA

Ostatu eskaintzaren arabera ─bai ostatu kopuruaren bai ostatuen kalitatearen arabera─, ikasleak gehiago edo gutxiago mugitzen dira batera eta bestera. Prezioek ere zerikusi handia dute; izan ere, zenbaitetan, pare-parean egon daitezke bizitokiaren prezioa eta eguneroko joan-etorriek dakartzaten gastuen prezioa. Horren harira, UPV/EHUren hiru campusetako ikasleentzako ostatu eskaintza laburbilduko dugu atal honetan.

### 2.6.1 Arabako Campusa

#### 2.6.1.1 Ikasleentzako unibertsitate egoitzak eta bizitokiak

Arabako Campusean, bost unibertsitate egoitza daude:

- Tomás Alfaro Fournier unibertsitate egoitza

2001. urtean inauguratu zuten UPV/EHUko Tomás Alfaro Fournier unibertsitate egoitza, Campusaren ondoan (Zumakera pasealekua, 21 A, Gasteiz). 220 ikaslerentzako tokia du, eta hainbat instalazio ditu. UPV/EHUko ikasleak hartzen ditu ikasturte osoan zehar.



60. irudia: Tomás Alfaro Fournier unibertsitate egoitza (Iturria: www.resa.es, 2011)

Egoitza irekita egoten da urteko egun guztietan.

Prezioak egonaldiaren arabera aldatzen dira. Hona 2010/2011 ikasturteko prezioak:

| | Ikasturte osoa (10 hilabete) | Hilabete batzuetako egonaldia (1 eta 10 hilabete artean) |
|---|---|---|
| Banakako logela | 356,08 € | 427,30 € |
| Banakako logela eta sukalde partekatua | 356,08 € | 427,30 € |
| Birentzako logela | 282,90 € | 339,48 € |
| Banakako suitea | 441,42 € | 529,70 € |

- El Pilar ikasle egoitza

2006ko irailaren 24an ireki zuten El Pilar ikasleentzako udal egoitza (Konstituzio plaza, 5, behea, Gasteiz). Urte guztian egoten da irekita, bai ikasturtean zehar bai udan. El Pilar egoitzak unibertsitate ikasleei ematen die lehentasuna, baina, plazarik libre geratuz gero, beste ziklo batzuetako ikasleak ere hartzen dituzte.



61. irudia: El Pilar egoitza (Iturria: www.residenciaelpilar.es, 2011)

Aldi Baterako Enpresa Elkarte batek (ABEE) kudeatzen du egoitza, ustiatze erregimenean (udal zerbitzu bat baita).

Honako hauek dira 2010/2011ko tarifak:

| | |
|---|---|
| Ikasleentzako ostatua | 355,04 € |
| Egoitzan bizi direnentzako garaje plazak (ibilgailuak) | 44,64 € |
| Egoitzan bizi direnentzako garaje plazak (motoak) | 33,47 € |
| Argi eta ur hornidura (hileko kuota) | 36,10 € |
| Logela garbitzeko zerbitzua (asteroko zerbitzua) | 32,70 € |
| Maindire eta toallak aldatzea (asteroko zerbitzua) | 44,64 € |
| Telebista pantaila bat alokatzea, LTD sintonizagailua barne | 32,70 € |

- <u>San Jose ikasle egoitza</u>

San Jose unibertsitate egoitza Gasteizko Campuseko erdigunean dago (Unibertsitateko ibilbidea, 15, Gasteiz).

Emakumeak bakarrik hartzen dituzte, eta hiriko egoitza handienetako bat da. Hainbat atal eta instalazio ditu, 5.000 metro koadrotan banaturik. 80 ikaslerentzako tokia dauka, banakako zein birentzako logeletan.



62. irudia: San Jose egoitza (Iturria: www.residenciasanjose.com, 2011)

2010/2011 ikasturtean, honako tarifa hauek eskaini zituzten ikasleentzat:

| Logela mota | Hileko prezioa |
|---|---|
| Birentzako logela (1. solairua) | 340 € |
| Birentzako logela (0. solairua) | 367 € |
| Banakako logela (1. solairua) | 373 € |
| Birentzako logela (komunarekin) | 398 € |
| Banakako logela (komuna eta sala partekatua) | 415 € |

- <u>María Inmaculada ikasle egoitza</u>

Emakumeentzako egoitza bat da, Gasteizko erdigunean (Angulema kalea, 6, Gasteiz), Campusetik 300 metrora. Banakako logelak dituzte; guztira, 100 ikaslerentzako tokia dute. Urte guztian egoten da irekita.



63. irudia: Mª Inmaculada egoitza (Iturria: www.religiosasdemariainmaculada.org, 2011)

Hona hemen 2010/2011 ikasturteko tarifak:

| | |
|---|---|
| Banakako logela (komunarekin): | 475 €/hil. + BEZ |
| Banakako logela (komun partekatua): | 407 €/hil. + BEZ |
| Izena ematea: | 80 € |

- <u>La Residencia ikasle egoitza</u>

Emakume eta gizonentzako egoitza, unibertsitate campusetik 100 metrora (Manuel Iradier kalea, 32, behea ezkerra eta 1.a eskuina, Gasteiz). 25 ikasle hartzen ditu, banakako zein birentzako logeletan, eta urte guztian egoten da irekita. Batez beste, hileko 475 euro kobratzen dute logela partekatu baten truke.

#### 2.6.1.2 Pisuak eta logelak alokatzea

UPV/EHUren Ostatu Zerbitzuak errentan hartzeko pisu edo logelak bilatzeko laguntza ematen die ikasleei. Halaber, pisu edo logelak errentan utzi nahi dituztenak ere laguntzen ditu.

Oraintsuko datu batzuen arabera, pisu partekatu batean logela bat alokatzea 300 euro kostatzen da, gutxi gorabehera; kopuru horri beste gastu batzuk gehitu behar zaizkio: argia, berokuntza, eta abar.

#### 2.6.1.3 Hirugarren adineko pertsonekin bizitzeko programa

Arabako Foru Aldundiak hirugarren adineko pertsonekin bizitzeko programa bat abiarazi zuen: ikasturtean zehar adineko batek ikasle bati ostatu ematean datza, berari konpainia egitearen truke.

Programa hori abian jartzeko, Luis Perales fundazioak eta Arabako Campuseko Errektoreordetzak lankidetza hitzarmen bat sinatu zuten 2007an. Honako helburu hauek finkatu zituzten:

- Belaunaldien arteko elkartasuna sustatzea.
- Unibertsitate ikasle askok bizitoki bat bilatzeko izan ohi dituzten arazoak neurri batean konpontzea.
- Etxean bakarrik bizi diren adinekoei harremanak eta komunikazioa izateko aukerak ematea.
- Unibertsitate ikasleen eta adineko pertsonen arteko harremanak bultzatzea, elkarrekiko konpainia eta laguntza sustatze aldera.

Ikasle bat etxean hartzeak dakartzan gastuei aurre egiteko, adineko pertsona bakoitzak 60,10 euroko diru laguntza jasotzen du ikasle bakoitzeko.

### 2.6.2 Bizkaiko Campusa

#### 2.6.2.1 Ikasleentzako unibertsitate egoitzak eta bizitokiak

Hona hemen Bizkaiko Campuseko egoitzak eta unibertsitate egoitzak:

- Miguel de Unamuno y Jugo unibertsitate egoitza

  UPV/EHUko unibertsitate egoitza bat da, Bilboko San Inazio auzoan (Agirre Lehendakariaren kalea, 140, Bilbo), Sarrikoko metro geltokitik 200 m-ra eta Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremura eta Deustura joateko autobus geltokietatik 50 m-ra. 207 ikaslerentzako tokia du, banakako eta birentzako logeletan.

  Emakumeak eta gizonak hartzen dituzte, eta hileko kuota 728 eurokoa da, mantenu osoan.

- Blas de Otero unibertsitate egoitza

UPV/EHUren Blas de Otero unibertsitate egoitza 2004an hasi zen funtzionatzen. 216 ikaslerentzako tokia du, eta hainbat instalazio. UPV/EHUko ikasleek lehentasuna dute, baina beste zentro batzuetako ikasleak ere hartzen dituzte. Cortes kaleko 38. zenbakian dago (Arnotegi kalearekiko izkinan), Bilbon.



64. irudia: Blas de Otero unibertsitate egoitza (Iturria: www.resa.es, 2011)

Egun bakarreko egonaldiak egiteko aukera ere ematen dute, eta talde txikiak ere hartzen dituzte, urte guztian zehar. Bestalde, 4 pertsonarentzako apartamentu bat daukate. Urteko egun guztietan irekitzen dute.

Egonaldiaren iraupenaren arabera eta logela motaren arabera, prezioak aldatzen dira. Hona 2010/2011 ikasturteari dagozkionak:

| | Ikasturte osoa (10 hilabete) | Hilabete batzuetako egonaldia (1 eta 10 hilabete artean) |
|---|---|---|
| Banakako logela | 427,44 € | 474,93 € |
| Birentzako logela | 356,21 € | 391,83 € |

- Bidealde unibertsitate egoitza

Gizonentzako egoitza bat da, Bilboko herrigunean (Gordoniz kalea, 10). 80 ikaslerentzako tokia dute.

Hileko kuota 770 eurokoa da; mantenu osoa, arropa garbitzea eta Internet zerbitzua barne.

- <u>Deustuko unibertsitate egoitza</u>

Emakume eta gizonentzako egoitza bat da, Bilboko Deustu auzoan (Ugazko auzoa, 7). 270 ikaslerentzako tokia dute, eta 843,35 euro ordaintzen da hilean (mantenu osoa eta logelak garbitzeko zerbitzua barne). Abuztuan, itxita egoten da.



65. irudia: Deustuko unibertsitate egoitza (Iturria: www.deusto.es, 2011)

- <u>Andres de Mañarikua ikasleentzako ostatua</u>

Emakume eta gizonentzako bi egoitza dituzte; bata, Derion, eta bestea, Atxurin (Bilbo). Derioko egoitzan, 80 lagunentzako tokia dute, eta Atxurikoan, berriz, 13rentzako. Banakako eta birentzako logelak.



Mañarikua – Atxuri



Mañarikua – Derio

66. irudia: Andres de Mañarikua (Iturria: www.manarikua.suspergintza.net, 2011)

Hona hemen **Derio**ko egoitzaren tarifak (2010/2011 ikasturtea):

| | Gau bat | Aste bat | Hilabete bat | Hiruhileko bat |
|---|---|---|---|---|
| Banakako logela | 27,08 € | 155,70 € | 480,40 € | 1.316,50 € |
| Birentzako logela | 43,25 € | 252,70 € | 768,70 € | 1.908,10 € |

**Atxuri**koak, berriz, honako hauek dira:

| | Hilabete bat | Hiruhileko bat |
|---|---|---|
| Banakako logela + komuna | 514 € | 1.408,60 € |
| Birentzako logela + komun partekatua | 480,40 € | 1.316,50 € |
| Birentzako logela + komuna | 400 € | 1.096,20 € |

- <u>María Inmaculada ikasleentzako egoitza</u>

Emakumeentzako egoitza katoliko bat da, eta ikasle zein langileak hartzen dituzte. 100 lagunentzako tokia dute. Honako tarifa hauek dituzte:

| | |
|---|---|
| Banakako logela (komuna barne) | 549 €/hil. |
| Banakako logela (komun partekatua) | 507 €/hil. |
| Birentzako logela (komuna barne) | 487 €/hil. |

Uztailean eta irailean, egun bakarreko egonaldiak egin ditzakete urtean zehar mantenu osoko erregimenean (28 € eguneko) eta ostatua eta gosaria erregimenean egon diren ikasleek (22 € eguneko).

- <u>Hermanas Trinitarias ikasleentzako egoitza:</u>

Emakumeentzako egoitza bat da, Bilboko hirigunean (Jesús Galíndez etorbidea, 13). 40 lagunentzako lekua dute, banakako eta birentzako logeletan. 575 euro ordaintzen da hilero.

- <u>Nuestra Señora del Rosario egoitza:</u>

Emakumeentzako egoitza bat da, Bilboko hirigunean (Unibertsitateen etorbidea, 10). 58 lagunentzako lekua dute. Hona egoitzaren tarifak:

| | |
|---|---|
| Banakako logela | 600 € |
| Birentzako logela | 540 € |
| Bermea | 180 € |

- <u>Santa María Artagan egoitza:</u>

Emakumeentzako egoitza bat da, Zabalbide kaleko 110. zenbakian. 20 lagunentzako tokia dute, banakako logeletan. 530 euro ordaintzen da hilero, gehi 90 euro, plaza erreserbatzearen truke.

- <u>Bilboko aterpea:</u>

Bilboko aterpeak (Basurtu-Kastrexana errepidean, 70. zenbakian) 12 ikaslerentzako tokia du, birentzako logeletan. 427,15 euro ordaintzen da hilero.

- Ría de Bilbao nazioarteko egoitza:

  Emakume eta gizonentzako egoitza, Deustuko Erribera kaleko 32. zenbakian. 42 lagunentzako tokia dute, banakako logeletan. Logela bakoitzaren prezioa 1.500 eurokoa da hiruhilekoko.

### 2.6.2.2 Pisuak eta logelak alokatzea

Bizkaiko Campusean ostatu bila dabiltzan UPV/EHUko ikasle askok pisu edo logela bat errentan hartzen dute. Hilero 350 euro ordaindu ohi dute, batez beste, pisu partekatu batean logela bat alokatzearen truke.

### 2.6.2.3 Pisu solidarioak

Bilboko Udalak eta UPV/EHUk “Gazte solidarioentzako udal etxebizitzak” programa abiarazi dute oraintsu. Programa horri esker, gradu ondoko ikasleek etxebizitza bat alokairu merkean eskuratzeko aukera dute, Otxarkoagako eta Botikazarreko bizitza sozialean elkartasuna lantzearen truke. Zehatz-mehatz, hilean 40 euro ordaintzen dituzte logela baten truke eta beste 15 ur eta argi gastuetarako. Horren truke, astean lau orduz aritu behar dute komunitate jardueretan.

Europako REHABITAT EFA69/08 proiektuaren baitako programa bat da. Espainiako, Frantziako eta Andorrako Lurralde Lankidetzari buruzko Programa Operatiboaren barnean dago (PIC Interreg IIIA España-Francia 2007-2013), eta EBko FEDER funtsek finantzatzen dute programaren % 65.

## 2.6.3 Gipuzkoako Campusa

### 2.6.3.1 Ikasleentzako unibertsitate egoitzak eta bizitokiak

Honako egoitza eta unibertsitate egoitza hauek daude Gipuzkoako Campusean:

- Manuel Agud Querol unibertsitate egoitza:

  Zuzenbide Fakultatearen ondoan, Ibaeta eremuan (Berio pasealekua, 9, Donostia). Emakume eta gizonentzako egoitza bat da, UPV/EHUrena, ikasleentzat zein unibertsitateko langileentzat.



67. irudia: Manuel Agud Querol unibertsitate egoitza (Iturria: www.resa.es, 2011)

Urte guztian irekita egoten da, eta 300 lagunentzako lekua du. Hona 2010/2011 ikasturteko prezioak:

| | Ikasturte osoa (10 hilabete)* | Hilabete batzuetako egonaldia (1 eta 10 hilabete artean) |
|---|---|---|
| Banakako logela + sukaldea | 393,36 € | 393,36 € |
| Banakako logela + sukalde partekatua | 393,36 € | 393,36 € |
| Birentzako logela + sukaldea | 333,75 € | 333,75 € |
| Birentzako suitea + banakako sukaldea | 627,10 € | 627,10 € |
| Birentzako suitea + birentzako sukaldea | 464,00 € | 464,00 € |

Egun, egoitza handitzen ari dira, agiri honetan aurrerago azalduko dugun moduan.

- Aiete unibertsitate egoitza:

  Gizonentzako unibertsitate egoitza, Aiete pasealekuko 25. zenbakian (Donostia). 102 lagunentzako tokia dute, banakako logeletan. 915 euro ordaintzen dute hilero, gehi matrikulari dagokion 350 euro.

- <u>Olarain unibertsitate egoitza:</u>

Emakume eta gizonentzako egoitza, Ondarreta pasealekuan (Donostia). 222 lagunentzako tokia dute, banakako logeletan.



68. irudia: Olarain unibertsitate egoitza (Iturria: www.olarain.com, 2011)

Hona egoitzaren hileko tarifak:

| | |
|---|---|
| Mantenu osoa (arropa garbitzea salbu) | 914 € + BEZ |
| Mantenu erdia (arropa garbitzea salbu) | 802 € + BEZ |
| Ostatua eta gosaria (arropa garbitzea salbu) | 674 € + BEZ |
| Mantenu osoa (arropa garbitzea barne) | 947 € + BEZ |
| Mantenu erdia (arropa garbitzea barne) | 836 € + BEZ |
| Ostatua eta gosaria (arropa garbitzea barne) | 707 € + BEZ |

- <u>La Salle egoitza:</u>

Emakume eta gizonentzako egoitza, Madalena Jauregiberri pasealekuko 2. zenbakian (Donostia). 70 lagunentzako tokia dute, banakako logeletan. Hona egoitzaren tarifak:

| | |
|---|---|
| Astelehenetik ostiralera | 755 € hiruhilekoko |
| Aste osoa | 805 € hiruhilekoko |
| Egun bat | 22 € |

- <u>Mariaren Konpainia unibertsitate egoitza:</u>

Emakumeentzako egoitza, San Bartolome Gaineko bideko 24. zenbakian (Donostia). 53 lagunentzako tokia dago, banakako logeletan. Hilean 550 euro ordaintzen dute (gehi BEZ), gehi 100 euro, plaza erreserbatzearen truke.

- El Carmelo egoitza:

Emakumeentzako egoitza, Ilunbe kaleko 8. zenbakian (Donostia). 52 lagunentzako lekua dute. Hona egoitzaren hileko tarifak:

| | |
|---|---|
| Banakako logela + komuna | 580 €/hil. |
| Banakako logela (komunik gabe) | 520 €/hil. |

Prezio horretan, mantenu osoa sartzen da, astelehenetik igandera, salbu igande eta jaiegunetako afaria.

- Jesusen Bihotzaren Misiolarien egoitza:

Emakumeentzako egoitza, Fedearen pasealekuko 34. zenbakian (Donostia). 43 lagunentzako lekua dute, banakako eta birentzako logeletan. Hona egoitzaren tarifak (mantenu osoa barne):

| | |
|---|---|
| Banakako logela + komuna (astelehenetik igandera) | 452,52 €/hil. |
| Banakako logela + komuna (astelehenetik ostiralera) | 415,80 €/hil. |
| Banakako logela (komunik gabe) (astelehenetik igandera) | 415,80 €/hil. |
| Banakako logela (komunik gabe) (astelehenetik ostiralera) | 379,08 €/hil. |
| Birentzako logela + komuna (astelehenetik igandera) | 415,80 €/hil. |
| Birentzako logela + komuna (astelehenetik ostiralera) | 379,08 €/hil. |
| Logela txikia (astelehenetik igandera) | 342,36 €/hil. |
| Logela txikia (astelehenetik ostiralera) | 306,72 €/hil. |

- Eibarko Hezkuntza Esparruko egoitza:

Emakume eta gizonentzako egoitza, Eibarko unibertsitate eremuaren ondoan (Otaola etorbidea, 29). 325 lagunentzako tokia dute, banakako eta birentzako logeletan. Urte guztian irekitzen dute. Hona urteko tarifak:

| | |
|---|---|
| Banakako logela (astelehenetik ostiralera) | 2.963,60 € urteko |
| Birentzako logela (astelehenetik ostiralera) | 2.557,40 € urteko |

- Villa Alaidi E.A.M. egoitza:

Emakumeentzako egoitza, Heriz pasealekuko 95. zenbakian (Donostia). 50 lagunentzako tokia dute, banakako eta birentzako logeletan. Hona egoitzaren hileko tarifak (mantenu osoa barne):

| | |
|---|---|
| Banakako logela + komuna (astelehenetik ostiralera) | 580 €/hil. |
| Banakako logela + komun partekatua (astelehenetik ostiralera) | 540 €/hil. |
| Birentzako logela + komuna (astelehenetik ostiralera) | 500 €/hil. |

- María Inmaculada egoitza:

Emakume ikasle zein langileentzako egoitza, Ategorrieta etorbideko 17. zenbakian (Donostia). 50 lagunentzako tokia dute, banakako eta binakako logeletan. 50 lagunentzako tokia dute, banakako eta birentzako logeletan. Hona hilabeteko tarifak (mantenu osoa barne):

| | |
|---|---|
| Banakako logela + komuna | 564 €/hil. |
| Banakako logela + komun partekatua | 525 €/hil. |

- Jesusen Bihotzaren Esklaboen egoitza:

Emakumeentzako egoitza, Zumalakarregi jeneralaren etorbideko 11. zenbakian (Donostia). 39 lagunentzako tokia dute, banakako logeletan. Hona egoitzaren hileko tarifak (mantenu osoa, astelehenetik ostiralera):

| | |
|---|---|
| Banakako logela + konketa | 525 €/hil. + BEZ |
| Banakako logela + komuna | 555 €/hil. + BEZ |

- La Sirena aterpea:

Igeldo pasealekuko 25. zenbakian, Donostian. Emakumeak eta gizonak hartzen dituzte, eta 15 lagunentzako tokia dute, logela partekatuetan. Ikasturtean zehar, eguneko 11,05 euro ordaintzen da.

- Zubiondo egoitza:

Gizonentzako egoitza, Igara bideko 16. zenbakian (Donostia). 14 lagunentzako tokia dute, eta hilean 619 euro ordaintzen da, gehi 250 euro, matrikula egitearen truke.

- CET ORIA:

Emakumeentzako pentsioa, Aiete pasealekuko 25. zenbakian (Donostia). 10 lagunentzako tokia dute, banakako logeletan. Hilean 260 euro ordaintzen da, eta elikadura zerbitzuan lan eginez ordain daiteke.

- Aingeru Zaindarien egoitza:

  Emakumeentzako egoitza, Intxaurrondo kaleko 12. zenbakian (Donostia). 12 lagunentzako tokia dute, banakako eta birentzako logeletan. Hileko mantenu osoa 450 euro ordaintzen da.

### 2.6.3.2 Pisuak eta logelak alokatzea

Donostian, pisu partekatu batean logela bat alokatzea 350 eta 400 euro artean kostatzen da, gehi gastuak (argia, ura, eta abar).

### 2.6.3.3 Hirugarren adineko pertsonekin bizitzeko programa

Hirugarren adineko pertsonak eta ikasleak elkarrekin harremanetan jartzeko zerbitzu bat ematen du Donostiako Udalak: ostatu ematearen truke, ikasleek adinekoak zaintzeko eta horiei konpainia egiteko konpromisoa hartzen dute.

Bakarrik edo adineko beste pertsona batekin bizi diren pertsonentzako programa bat da, pertsona horiek ahalik eta egoera onenean egon daitezen beren ingurunean eta etxean.

## 2.7 BALIOESPENA ETA ONDORIOAK

Zehatz-mehatz aztertu dugu zein garraiobide dugun gaur egun UPV/EHUko campusetara joateko. Atal honetan, campusak banaka aztertuz, campusen irisgarritasunari buruzko hausnarketa bat egingo dugu.

1. Gasteizen bizi diren eta egunero **Arabako Campusera** joaten diren ikasleek garraio publikoko eskaintza zabala dute, hiriko edozein gunetan bizirik ere. Bestalde, Gasteizko hirigunearen orografiari esker, ikasleak aise mugitzen dira oinez edo bizikletan; bidegorri sarea oso hedatua da, gainera. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateak du komunikazio makalena, hiriaren hego-ekialdean baitago. Medikuntzako Irakaskuntza Gunera eta Erizaintzako UE atxikira joateko, berriz, ikasleek Txagorritxu ospitalerako garraio lineak erabiltzen dituzte. Arabako gainerako ikasleei dagokienez, Arabako Errioxako, Arabako mendialdeko, Aiaraldeko eta Añanako ikasleek dute zailtasun gehien Campusera iristeko. Bizkaitik Gasteiza joaten diren ikasleei dagokienez, oso ongi komunikatuta daude Durangaldekoak eta Arratia-Nerbioikoak; Enkarterriko, Uribe Kostako, Busturialdeko eta Lea-Artibaiko ikasleek dute, ordea, komunikazio bide okerrena. Gipuzkoatik Gasteiza joaten direnen kasuan, Debagoiena, Gasteiztik oso hurbil den heinean, oso ongi komunikatuta dago; ondoren, baita Donostialdea ere. Nolanahi ere, bidaia luzeak izaten dira, eta, horrenbestez, esan daiteke Gipuzkoatik Gasteiza joateko erraztasun handirik ez dagoela.

2. **Bizkaiko Campusa**ri dagokionez, Leioa-Erandio eremua herrigunetik urruti samar dago, eta, horregatik, zail suertatzen da hara joatea, Campuseko gainerako eremuekin alderatuta. Bizkaiko zenbait lekutatik Leioa-Erandio eremura joateko, garraio lineaz aldatu behar dute ikasleek, eta bidaia luzeak egin behar izaten dituzte (esate baterako, Enkarterrikoek, Durangaldekoek edo Gernika-Bermeo aldekoek). Arabatik eta Gipuzkoatik, ikasleak autobus konpainia pribatuen edo unibertsitate elkarteen bidez joaten dira nagusiki; zerbitzu urri samarra izaten da, gainera, maiztasun aldetik. Bilbon dauden ikastegiak, aldiz, hirigunean daude, eta, horrenbestez, garraio zerbitzua oparoa da. Nolanahi ere, Irakasleen UE da, oraindik ere, urrutien gelditzen den ikastegia. Egoera antzekoa da Barakaldon eta Portugaleten, herrigunean baitaude eta, horrenbestez, garraio publikoko sistema zabala baita; nolanahi

ere, Portugaletera joateko, denbora gehiago behar izaten dute ikasleek, udalerriaren kokagunea bera zein den kontuan hartuz.

3. **Gipuzkoako Campusean**, bi eremu bereizi ditugu: Donostialdea eta Eibar. Donostian, hiriburutik Medikuntzako Irakaskuntza Gunera eta Erizaintzako UEra joateko, ikasleek Donostia ospitaleko hiri autobusen sarea eta autoa erabiltzen dute gehienbat, zaila baita oinez edo bizikletaz joatea, bidegorria haraino iristen bada ere. Ibaeta eremura joateko, Donostiako hirigunean egonik, aukera ugari dago; are oinez edo bizikletaz ere, handik hurbil bizi direnen kasuan. Nolanahi ere, hiriaren egitura eta autobus zerbitzuen diseinua dela eta, bidaia luzeegiak izaten dira, eta erabiltzaile askok autoa erabiltzera jotzen du. Gipuzkoatik, berriz, komunikabide handien ondoan (N-1, A-8 eta AP-1) dauden udalerriek dute Campusera joateko aukera onena; komunikazio okerrena dute, ordea, Goierriko herri batzuek (Zegama, Zerain, Ataun) eta Bidasoaldekoek. Gasteiztik Gipuzkoako Campusera joateko, ikasleek bidaia luzeak egin behar dituzte, Gasteiz eta Donostia elkarrengandik urruti baitaude; are bidaia luzeagoak egin behar dituzte Arabako beste eskualde batzuetatik etortzen direnek, hala nola Arabako Errioxatik edo Arabako mendialdetik. Bizkaian, berriz, Durangaldekoak eta Bilbo aldekoak ongi komunikatuta daude Gasteizekin, garraio sarea oparoa baita.

   Eibarko unibertsitate eremuaz den bezainbatean, herria komunikabide handien bidegurutze den heinean, garraio sarea nahikoa oparoa da EAEko hiru erkidegoetatik hara iristeko. Nolanahi ere, bidaia luzeak izaten dira, Eibarra joaten diren garraiobideek beste geltoki batzuk izaten baitituzte ibilbidean zehar (herri asko baitago Eibar inguruan); horregatik, ikasle askok auto pribatua hartu ohi dute Eibarra joateko.

4. Eusko Jaurlaritzak eta Arabako Foru Aldundiak garraiorako **laguntzak eta bekak** ematen dituzte,. Hezkuntza Ministerioak ere bekak ematen ditu; bi beka mota, hain zuzen: egoitza gastuak ere barne hartzen dituztenak (ikasturtean zehar etxetik kanpo bizi behar duten ikasleentzat) eta egoitza gasturik ordaintzen ez dutenak (egunero etxetik unibertsitatera joaten direnentzat). Estatu mailako bekak dira, baina administrazioz EAEn bizi diren ikasleek ezin dute halako bekarik eskatu.

5. **UPV/EHUko campusetan aparkatzeari dagokionez**, Leioa-Erandio eremuan dago zailtasun gehien, egokitze lan ugari egiten ari baitira hango ingurumarian.

Bestalde, kokagune berezi batean dago, eta, horregatik, askok auto pribatua erabiltzen dute hara joateko. Gainerako ikastegietan, aparkalekuetan TAO sistema jartzeko politika nagusitzen ari da, eta, horrenbestez, ikasleek areago erabiliko dute garraio kolektiboa, hala auto partekatuak nola garraio publikoa. Horri esker, campusen inguruetan aparkatzeko arazoak murriztu egingo dira, eta **garraio azpiegitura berriak** sortuko dira (une honetan, proiektu edo gauzatze faseetan dira).

6. **Unibertsitateko kideentzako ostatu eskaintza** nahikoa orekatua eta askotarikoa da, eta ohiko bizitokia aldatu nahi dutenen eskaria betetzen du. Nolanahi ere, pisuen alokairua gero eta garestiagoa da azken urteotan. Bestalde, gainerako zerbitzuak hondatuz doaz urteen joanean.

# 3. ABIAN DIREN JARDUKETEN HELBURU OROKORRAK – GOBERNU PROGRAMAN HARTUTAKO KONPROMISOAK

## 3.1 GOBERNU PROGRAMAN HARTUTAKO KONPROMISOAK

Gobernu programan, hainbat konpromiso hartu dituzte: **"Hamaika egitasmo aurrera egiteko".** Egitasmo edo konpromiso horiek hainbat kolektibo eta gairi begira prestatutako ekimenen bitartez lantzen dituzte; besteak beste, garraioarekin eta mugikortasunarekin lotutako ekimenen bitartez:

20. taula: Garraioarekin eta mugikortasunarekin lotutako ekimenak gobernu programaren baitan

| | |
|---|---|
| **IKASLEAK** | - Apartamentu batean alokairuan bizitzeko 600 plaza eskaintzea ikasleentzat. Egoitzetako plaza kopurua handitzeko gestioak egitea.<br>- Ikasleentzako garraio publikoaren prezioak merkatzeko formulak proposatzea erakundeei. |
| **GRADUAK ETA GRADU ONDOKOAK** | - Prestakuntza jarraituari buruzko politika espezifiko bat diseinatzea, lanaldiarekin bateragarri izateko moduan; prestakuntza erdi-presentziala edo birtuala jasotzeko aukera ematea. |
| **IRAKASKUNTZA BERRITZEA** | - "Campus Birtuala" zerbitzuari bultzada bat ematea, on line irakaskuntza eskainiz eta euskaraz irakasgai gehiago izateko ahalegin berezi bat eginez. Irakaskuntza laguntzeko plataforma birtuala hobetzea, eta webgunean ikasmaterialak argitaratzeko programa espezifiko bat sortzea, Open Course Ware proiektuaren osagarri gisa. |
| **GIZARTE ERANTZUKIZUNA** | - Gizarte erantzukizunaren irizpideak unibertsitate jardunean txertatzea: genero ikuspegia, ingurumenarekiko konpromisoa, garapen iraunkorra, ekintza soziala eta giza eskubideekiko begirunea.<br>- Ingurumena hobeki kudeatzea: energia kontsumoa minimizatzea, gehiago birziklatzea, hondakinak tratatzea eta energia berriztagarriak erabiltzea. Ingurumena Kudeatzeko Zerbitzua sortzeko proposamena egitea, arestiko ekimen guztiak koordinatzeko. |
| **CAMPUSAK** | - Erakunde eskudunekin lankidetzan aritzea garraio seguruaren eta iraunkorraren aldeko plan eta proiektuetan.<br>- Ikasleentzako garraio publikoaren prezioak merkatzeko proposamena egitea erakunde eskudunei. |
| **BIZKAIA** | - Leioa-Erandio eremuko hirigintza lanak aurrera eramatea: eremu horretan lur azpiko bi parking eraikitzea.<br>- Leioa-Erandio eremuan garraio publikoko zerbitzuak hobetzeko lan egitea dagokion erakundeekin: tranbia haraino iristea eta metro linea berriaren proiektua sustatzea. |
| **GIPUZKOA** | - Ikasleei ostatu hartzeko leku gehiago eskaintzea.<br>- Ibaeta eremuan aparkatzeko 600 leku gehiago sortzea. |

*Iturria: "Hamaika Egitasmo Aurrera Egiteko – Once Compromisos Para Avanzar"*

Ekimen horiek eragina dute ikasleen joan-etorrietan, hainbat ikuspegitatik begiratuta ere. Batetik, gizarte erantzukizunaren baitan ingurumenaren eta garapen iraunkorraren alde biltzen diren irizpideetako bat da mugikortasun iraunkorra. Halaber, energia gutxiago kontsumitzeko mekanismo bat da garraio iraunkorrak kudeatzea, ingurumena kudeatzearen baitan.

UPV/EHUk garraio segurua eta iraunkorra sustatzeko interesa agertuz gero gai horri buruzko foroetan eta gai horretan eskumena duten erakundeen aurrean, hiru campusen irisgarritasunari eta garraioari buruzko erabakietan parte hartzea lortuko dugu; bestalde, bigarren maila batean, lankidetzazko jarduketa edo/eta jarduerak garatuko ditugu unibertsitateko kide guztiek kontzientzia har dezaten zenbait gairen inguruan (ikasleentzako garraio publikoaren prezioa jaistea, esate baterako).

Bestetik, joan-etorri eta garraio seguru eta iraunkorrak zuzenki lotuta daude beste estrategia batzuekin, hala nola ostatu hartzeko eskaintza, aparkatzeko lekuen eskaintza, eta teknologia berriak txertatzea hezkuntza prozesuan eta administrazio prozeduretan.

Izan ere, ostatu hartzeko leku gehiago izanez gero, joan-etorrien kopurua murriztu egingo da, ikastegira egunero joateko egin beharreko bidaiak laburragoak izango dira, eta aukera gehiago izango da bidaia horietan garraio kolektiboa edo garraio arduratsua (bizikletaz edo oinez) erabiltzeko.

Bestalde, teknologia berriei eta zenbait joera berriri esker (telelana, on line prestakuntza), batera eta bestera mugitzeko beharra jaitsi egin da hezkuntza prozesuaren barnean. Horrez gain, Campus Birtualari esker, administrazio izapideak egiteko alferrikako joan-etorri ugari saihestuko ditugu.

Azkenik, aparkatzeko leku gehiago izanez gero, errazago iritsiko gara campusetara, batez ere arlo horretan zailtasun gehien dituzten eremuetara. Esate baterako, Leioa-Erandio eremuan, auto pribatuentzako aparkaleku gehiago eskaintzea dugu helburu.

## 3.2 AURRERA ERAMAN DIREN JARDUKETAK

Datozen ataletan, UPV/EHUn aurrera eraman diren jarduketen berri emango dugu lehenik. Ondoren, campus bakoitzak bere kasa sustatu dituen proiektu eta ekintzak aipatuko ditugu.

### 3.2.1 AUTOA PARTEKATZEA

Proiektua 2010. urtearen amaieran sortu zen, UPV/EHUren hiru campusetan, unibertsitateko kideak autoa modu zentzuzkoago batean erabiltzera bultzatzeko asmoz. Hala, zerbitzu horren funtzioa da Bizkaitik, Gipuzkoatik edo Arabatik UPV/EHUren campusetako batera joaten diren pertsonak elkarrekin harremanetan jartzea ibilgailu pribatua parteka dezaten, baita bestelako bidaiak egiteko ere. Hona proiektuaren helburuak:

- Unibertsitateko kideei beste **alternatiba** bat eskaintzea beren joan-etorrietarako, iraunkortasun neurriak kontuan hartuz.
- Ibilgailu pribatuek eragiten duten **kutsadura eta energia kontsumoa murriztea**.
- **Espazio publikoa** hobeki erabiltzea.

Zerbitzu horretan erregistratuz gero, izena emana duten pertsona guztien zerrenda ikus daiteke: zein bidaia mota egiten duten, zein lehentasun duten, autorik baduten edo ez, zer dela-eta bidaiatzen duten, eta beste datu batzuk (bidaia-lagunek elkarrekin topo egitea errazagoa izan dadin). Pertsona horiek, bidaia bera partekatzeko egokiak baldin badira, posta elektroniko bidez jartzen dira elkarrekin harremanetan.

Zerbitzua martxan da dagoeneko, eta hiru campusetako webguneen bitartez erabil daiteke.

71. irudian ikus daiteke nolako itxura duen webguneak. Bidaia-lagunak bila daitezke UPV/EHUko edozein ikastegitan.




69. irudia: UPV/EHUren Autoa Partekatu proiektuaren webgunea (Iturria: www.campusbizkaia.compartir.org, 2011)

### 3.2.2 Arabako Campusa

Arabako Campusean, **Ingurumena Kudeatzeko Plan Estrategikoa**n zehaztutako arauetan oinarrituta abiarazten dituzte garraioari eta joan-etorriei buruzko ekintzak. Hain zuzen, plan horren ardatzetako bat da “Joan-etorri iraunkorrak eta Campusera iristeko erraztasuna”, eta honako ekintza hauen bitartez gauzatzen da:

- Unibertsitateko kideen joan-etorriei eta Campusera iristeko erraztasunei buruzko azterketa eta diagnostiko bana egitea ikasturtero: garraio publikoa erabiltzeko aukeren azterketa eta inkestak.
- Joan-etorriak gutxitzea: Internet bidez prozesuak automatizatzea, ostatu hartzeko leku gehiago eskaintzea, etxebizitza sozialen programak, eta abar.

- Garraiobide iraunkorren bidezko joan-etorriak sustatzea (garraio kolektiboa, bizikleta eta oinez): unibertsitate kolektiboarentzako tarifa politikak, bizikleta erabiltzea sustatzea (bidegorriak, bizikletentzako aparkalekuak, eta abar), ibilgailu pribatua zentzuz erabiltzea bultzatzea (autoa partekatzea), norberaren ibilgailua erabiltzeko neurri murriztaileak (aparkalekuen politika).

Lehen ekintza: Arabako Campuseko kideen joan-etorrietako ohiturei buruzko azken datuak

2007ko uztailean, Arabako Campuseko garraioa kudeatzeari buruzko lehen azterketa egin zuten: **"Arabako Campusera iristeko erraztasuna"**. Ikasleen, irakasleen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen banaketa geografikoa aztertu zuten, Campusera iristeko dituzten erraztasun edo zailtasunen berri jakiteko asmoz.

Hala, azterketa horren arabera, Gasteiztik Campusera joateko, hiri garraioa ez da guztiz egokia, Campusean ez baitago geltokirik. Nolanahi ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, gaur egun bada Campusean gelditzen den autobus linea bat, UPV/EHUren eta Gasteizko Udalaren arteko lankidetzari esker sortua.

Bestalde, azterketa hark zioenez, **tranbiak** bidaietako denbora murrizten lagundu lezake; zehatzago, Gasteizen bizi direnen % 40, oinez ibili beharrean, tranbian ibiliko balira, denbora gutxiago eman beharko lukete joan-etorrietan. Areago, tranbia Campus aldera hurbilduz gero, are onura hobeak lortuko lirateke.

Gaur egun, UPV/EHUk egindako eskaeren eraginez, **Arabako Campuserako lotura** lehentasun bat da Gasteizko tranbia zabaltzeko alternatiben artean. Eskumena duten administrazioekiko lankidetza funtsezkoa izan da, eta hala da orain ere, Campusa aintzat hartuko duen alternatiba bat bilatzeko orduan.

Arabatik Campusera joateko, berriz, azterketa hark azpimarratu zuen linea erregularrak ez direla Unibertsitatean gelditzen, eta horrek nabarmen luzatzen duela bidaietako denbora, ikasleek oinez joan behar baitute autobus geltokitik Campusera. Une honetan, **linea erregular** asko gelditzen da **Campusean**, edozein ordutan; alegia, Campusera iristea errazagoa da gaur egun. Gainera, beste linea batzuk ere Campusean gelditzen dira eguneko lehen zerbitzuetan.

Bilbotik Gasteiza autobusez joaten direnek ere eskertu dute Campusean autobus geltoki bat finkatu izana. Gainera, **tarifa** bereziak jarri dituzte autobus linea hori erregulartasunez erabiltzen dutenentzat, baita gazteentzat ere.

Gipuzkoatik Gasteiza joateko, azterketaren ondorioa izan zen autobus zerbitzu berezirik ez izatea arazo dela eskualde askotako jendearentzat; hori dela eta, jende askok auto pribatua erabiltzen du, edo, bestela, Gasteiza joaten da bizitzera. Gaur egun, AP-1 autobideari esker, autobus gehiago ateratzen da Donostiatik; bestalde, zenbait **elkartek** Gasteiza joateko bidaiak antolatzen dituzte, urrutiko eskualdeetatik batez ere.

Lehen azterketa hartan emandako datuak eguneratzeko asmoz, beste azterketa bat egin zuten 2009ko ekainean, ostatu hartzeari buruzko datuak ere aintzat harturik: **“Campuseko joan-etorrietako ohiturak eta bizitokien eskaria: Gasteiztik kanpo bizi diren eta UPV/EHUren Arabako Campusera joaten diren ikasleak”**. 2.1.1. atalean azaldu dugu azterketa hori.

Gasteizko CIVITAS MODERN proiektua

Gasteizek proiektu horretan parte hartzen du 2008. urtetik hasita. Mugikortasunari buruzko 10 neurri hauek bultzatzen dituzte:

- Erregai alternatiboak erabiltzea.
- Super etxadien eredua ebaluatzea.
- Oinezkoentzako eta txirrindularientzako bide sareak sortzea.
- Autobus garbi eta eraginkorrak erabiltzea.
- Garraio publikoaren sare berri bat.
- Super etxadietara iristeko dauden eragozpenak aztertzea.
- Trafikoa kudeatzeko sistema bat sortzea.
- Eraginkortasunez gidatzeko prestakuntza.

Arabako Campusak ere Udalarekin lankidetzan jardun du CIVITAS MODERN proiektuaren harira: **hiri autobusen lineak berrantolatzen** lagundu du, eta, horri esker, gaur egun, 8. linea (Unibertsitatea) Campusean gelditzen da.

Horrez gain, hiri barneko joan-etorrietan **bizikleta erabiltzea** sustatu dugu. "Bizikletaz Campusera – Al Campus en Bici" lelopean, liburuxka bat argitaratu genuen: alde batetik, hirian bizikleta erabiltzeko “praktika egokien kodea” eman genuen laburbildurik, eta, bestetik, Gasteizko bidegorrien mapa eguneratu bat (2010eko otsailekoa) jarri genuen erabiltzaileen eskura.




70. irudia: Bizikletaz Campusera kanpainaren liburuxka (Iturria: UPV/EHU)

Liburuxka hori egiteko, Udaleko eta Ingurumen Gaietarako Ikastegiko (CEA) teknikarien laguntza izan genuen, eta Bizikleteroak elkarteak ere parte hartu zuen. Campuseko Errektoreordetzak 2.000 ale banatu zituen ikastegietan eta Arabako Campuseko I. Iraunkortasun Jardunaldietan.

Campus Iraunkorra webgunean ikus daiteke **Bizikletaz Campusera – Al Campus en Bici** liburuxka. Webgune berean, **Cicloruta** webgunearen helbiderako lotura jarri dugu (http://vitoria.cicloruta.org/); Gasteizko Udalak sustatzen duen zerbitzu bat da, bizikleta erabiltzen duten baina bidegorrietatik urruti bizi diren pertsonek beren bizikleta ibilbideak diseina ditzaten sortua.

Akordio bat lortu genuen Gasteizko **bizikleta saltoki** batzuekin, Campuseko kideek % 10eko **deskontua** izan dezaten bizikletak, arropa edota osagarriak erostean (unibertsitateko txartela aurkeztu behar da).

Gainera, **bizikletentzako aparkaleku bat** jarri dugu Lucio Lascaray Ikerkuntza eta Ikasketa Aurreratuen Gunearen parean, Campuseko liburutegian eta unibertsitate egoitzan. Egoitzako aparkalekua Udalak eraiki zuen, egoitzak berak Campusaren bitartez eskaturik. Gaur egun, Campuseko ikastegi guztiek dute bizikleta uzteko leku nahikoa; guztira, 480 leku daude Campusean.

Campusak lankidetza estuan jardun zuen Gasteizko Udalarekin batera **garraio publikoa erabiltzea sustatzeko**. Hala sortu zen, hain zuzen, "Yo me subo – merezi du!" kanpaina. Campuseko **zenbait ikasle boluntariok** hiri autobus linea berriei buruzko **orientabidea emateko kanpainetan** parte hartu zuten; zehatzago, Campuseko ikasleak ziren begirale boluntario guztien % 50 baino gehiago.




71. irudia: "Yo me subo – merezi du!" kanpaina (Iturria: Gasteizko Udala)

Campus Iraunkorra webgunea

Webgunearen helburua da unibertsitateko kideak informatzea, sentsibilizatzea eta kontzientzia harraraztea, agente aktibo bilaka daitezen iraunkortasun prozesu guztietan. Hala, Europan, EAEn eta UPV/EHUren Arabako Campusean garapen iraunkorraren arloan lantzen ari diren estrategiei buruzko informazioa dakar webguneak: estrategia horietan guztietan sortutako dokumentu eta ekitaldiak, jokabide arduratsua izateko moduak (besteak beste, garraiobide iraunkorrak sustatzea) eta gaiarekin lotutako estekak.




72. irudia: Campus Iraunkorra webgunea (Iturria: www.araba.ehu.es/p208-shcsahm/eu/, 2011)

Webgunean, Gasteizko Udalaren eta garraio etxe nagusien webguneetako informazioa ikus daiteke; alegia, webguneak informazio zabala ematen du oinezkoentzako eta txirrindularientzako ibilbideen gainean, eta baita hiri garraioaren sarearen gainean ere. Gasteizko linea erregularrak eskaintzen dituzten konpainia nagusien zerrenda bat ere badakar, eta linea horiek betetzen dituzten ibilbideen deskribapen zehatza.

Kontzientzia harrarazteko ekimen gisa, Campus Iraunkorra webgunea plataforma bihurtu da garraiobideek ingurumenera dakartzaten eraginen berri emateko: besteak beste, zarata, berotegi efektua dakarten gasak igortzea, espazio publikoa okupatzea edo erregai fosilak erabiltzea.

Arabako Campuseko I. Iraunkortasun Jardunaldiak (2010eko martxoa)

Hainbat hitzaldi izan ziren, honako gai hauei buruzkoak: Ingurumena Kudeatzeko Plan Estrategikoa (Arabako Campusarena) jendarteratzea, hiriko joan-etorri iraunkorrak, eta ura eta energia berriztagarriak kudeatzea. Hitzaldi guztiok ikusgai daude Campus Iraunkorra webgunean.




73. irudia: Arabako Campuseko I. Iraunkortasun Jardunaldiak (Iturria: UPV/EHU)

Horrez gain, **Oinarrizko Mekanika Tailerra** eta **Bizikleta Eraginkortasunez eta Segurtasunez Erabiltzeko** ikastaro labur bat izan ziren, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultateko bi irakasleren eskutik.

Bizikleta modu seguruago batean erabiltze aldera, zerrenda islatzaileak (UPV/EHUko logotipoa marraztua dutenak) banatu genituen jardunaldietara etorri zirenen artean.

Beste garraiobide arduratsu batzuk sustatzea

Campusak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailarekin eta Ekopass-ekin lankidetzan, **Energia Aurrezteari buruzko Jardunaldietan** parte hartu zuen, 2010eko martxoaren 17an, Ingeniaritzako UEn. Eskualde arteko komunikazioan auto elektrikoa erabiltzearen aldeko ekimen baten berri eman zuten jardunaldietako hitzaldi batean.

Aparkalekuen politika

Campusera auto pribatua erabiliz joateko ohitura aintzat hartuz, Farmazia Fakultateko garajera eta lur gaineko aparkalekuetara sartzeko sistema berriak instalatu dituzte.

### 3.2.3 Bizkaiko Campusa

Bizkaiko Campusean gauzatutako ekintzen helburu nagusiak ikasleen garraio kostuak merkatzea eta Leioa-Erandio eremurako irisgarritasuna hobetzea dira.

**Bizkaiko Campuseko Garapen Planak (2005-2010)** Leioa-Erandio eremua garraio arazo larriko eta isolamendu handiko eremu gisa definitu zuen, bere kokapen geografikoagatik. Horregatik, honako jarduketa proposamen orokor hauek barne hartzen zituen planak: "garraiobide publikoek erraz iritsi behar dute campusetara, eta campusek ibilgailu pribatuen erabiltzaileentzako aparkaleku azpiegiturak ere izan behar dituzte".

Gai hori unibertsitateko gobernu organoen eskumen eta jarduketa esparrutik haratagokoa da. Hori dela eta, garraioa planifikatzen eta antolatzen aritzen diren erakunde eta sailen aurrean **kudeaketak indartzeko** proposamena sortu zen, Leioa-Erandio eremuak garraio publikoko sistema misto indartsu bat izan dezan (metroko geltokitik aterako den tren arin batek eta unibertsitate hiriaren garraio beharretara egokitutako autobus sistema batek osatuko dute).

Ostatu eskaintzari dagokionez, planean argi ikus daiteke Leioako hirigunea dela ikasleei ostatua emateko azpiegitura espezifikorik ez duen bakarra. Horri konponbidea emateko egindako proposamena unibertsitate gune honen inguruan egoitza berri bat egitea da.

Garraio publikoaren erabilera sustatzea

**Leioako Plan Zuzentzaileak** honako helburu hauek ditu, besteak beste: "oinezkoentzako espazioak berreskuratzea, bideetako auto kopurua murriztuz,

ingurune horretan oinez ibiltzea ahalbidetzeko" eta "campusean orientatzea ahalbidetuko duten seinaleak jartzea eta komunikazioak arintzea, campuserako irisgarritasuna sustatuz".

Plan horrek plataformaren zati bat behera botatzea dakar, lurzoruaren maila zero kotara jaisteko eta, ondorioz, oinezkoentzako leku gehiago eta autoentzako gutxiago uzteko, eta egoteko eremu gehiago sortzeko. Modu horretan, trafikoa, ibilgailuak **aparkatzeko** gunea eta **autobusak** aparkatzeko gunea berregituratuko dituzte, taldeko garraioari pribatuari baino lehentasun handiagoa ematea helburu. Era berean, proiektuak Campusera iristeko bide berriak proposatzen ditu; esaterako, etorkizuneko **tranbia** eta **bidegorri** berria. Apia Bidean hainbat autobus geltoki instalatu dituzte, eta, orain, garraio publikoek bakarrik erabil dezakete bide hori. Leioa-Erandio eremurako irisgarritasunak izandako hobekuntzak osatzeko, autobusen maiztasuna areagotu dugu, eta linea berriak martxan jarri ditugu.

<u>Bizkaiko Foru Aldundiarekiko hitzarmenak eta lankidetza</u>

Bizkaiko Foru Aldundiarekin egindako negoziazioei esker, autobus geltoki berriak jarri ditugu Leioa-Erandio eremuan. Geltoki horietan, autobusen zain egon beharreko denboraren berri ematen duten **informazio panelak** ere jarri ditugu.

Hainbat bilkura egin ditugu Bizkaiko Foru Aldundiko Garraio eta Hirigintza Sailarekin, eta 100.000 €-ko **finantziazioa** lortu dugu, Leioa-Erandio eremura autobusez joaten diren eta Bizkaian erroldatuta dauden ikasleei diru laguntzak emateko. Bonuen banaketa modu egokian egin genuen ikastegien artean, ikasleen bizilekutik unibertsitaterako txartelak zenbat balio duen kontuan hartuta. Laguntza hori 2010erako bakarrik da.

<u>Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremurako mugikortasunaren kudeaketari buruzko azterlana</u>

2011n, azterlan bat egin da Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremua behar bezala ezagutzeko eta bertarako mugikortasuna hobetzen lagunduko duten jarduketa proposamen espezifikoak egiteko. LEBER Planificación e Ingeniería S.A. enpresak egindako azterlan honetarako, mugikortasunari buruzko inkestak eta gune publikoak aztertzeko landa lanak gauzatu dira.

### 3.2.4 Gipuzkoako Campusa

- Bizkaitik datorren Gipuzkoako unibertsitate garraio zerbitzuaren analisia (2004). Gipuzkoako Foru Aldundiak UPV/EHUren Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetzarekin elkarlanean egindako azterlana.
- Transportes Pesa S.A.k babestutako GOTO kultur elkartearekiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Departamentuarekiko elkarlana, Ibaetako Campusera joan behar duten Bizkaiko unibertsitate ikasleen eskariari erantzutearren. Horren bidez, Ibaetako Campuserako garraio zerbitzuaren 2004tik 2008ra arteko baldintzak ezarri ziren.
- **GIZLOGA foroko kideak** (http://www.gizloga.com/eu/home.php):
  - Jardunaldi teknikoen antolaketa
  - Mugikortasun eta logistikaren arloko ikerketako sari akademikoa (2005-2009)
  - Zabalkunde eta sentsibilizazio jardunaldiak
- **KALA**PIE hiriko txirrindularien elkartearekiko elkarlana
- **Bizikletentzako aparkaleku estali baten egokitzapena.** Campusean bada D·Bici sistemaren bidez bizikletak mailegatzeko gune bat. Bizikletak uztekoak ere jarri dira Campuseko eraikinen kanpoaldean.
- **Donostiako Udaleko Mugikortasun Sailarekiko elkarlana**:
  - UPV/EHUren bi lurzati aldi batez lagatzea, hirian aldirietako aparkalekuak eraikitzeko.
  - Ibaetako eremuan araupeko aparkalekua arautzeko hitzarmenetan parte hartzea.
  - Ziklomotorrentzako aparkaleku kopurua handitzea.

2008ko irailaz geroztik, UPV/EHU, Gipuzkoako Campusaren bidez, tokiko partzuergoko kide da, Donostiako Udalarekin, CTSS tranbia konpainiarekin, Logistikako Euskal Erakundearekin eta GEA21 taldearekin batera, **CIVITAS PLUS Programan Archimedes proiektua** garatzeko Europako partzuergoaren barruan.

**Civitas programa Ikerketaren eta Garapen Teknologikoaren Europako Zazpigarren Esparru Programak** finantzatutako Europa mailako ekimena da, eta hirietan garraio sistema iraunkorrak sustatzeko sortu zen.

Aipatutako **Archimedes proiektuaren** helburua Gipuzkoako Campuseko unibertsitate komunitatea mugikortasun iraunkorrarekiko sentsibilizatzea da. Ingurumenarekiko garraiobide iraunkorra, segurua eta energiari dagokionez eraginkorra lortu nahi duten Europako 6 hiri ertainek (Aalborg, Brighton and Hove, Donostia, Iaşi, Monza, Ústí nad Labem) parte hartzen dute proiektu integratzaile honetan.

Orain arte, **Civitas-Archimedes programaren** esparruan, honako **ekintza** hauek gauzatu ditugu Gipuzkoako Campusean:

- 2009an, **mugikortasun kudeatzaile** bat izendatu genuen (Mobility Manager). Haren zeregina mugikortasun iraunkorraren aldeko ekimenak eta ekintzak gauzatzea eta koordinatzea da.
- Lehenengo komunikazio kanpaina, **Mugikortasun Iraunkorrari buruzko Jardunaldia**, egin genuen. Esperientziak partekatzeko eta beste errealitate batzuk ezagutzeko asmoz, "Mugikortasun Iraunkorra Unibertsitatean" jardunaldia egin genuen. Bertan, gai horrekin zerikusia duten hainbat aditu eta profesionalek parte hartu zuten. Metodologia praktikoak erabiliz, sistemak edo mugitzeko moduak hobetzeko aukerak aztertu zituzten, erabiltzaileen eta unibertsitateko taldeen beharrak kontuan hartuta.


CIVITAS
DONOSTIA SAN SEBASTIÁN
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

MOVILIDAD SOSTENIBLE EN LA UNIVERSIDAD
MUGIKORTASUN IRAUNKORRA UNIBERTSITATEAN

URRIAK 29 OCTUBRE 2010
Zuzenbide Fakultateko Gradu Aretoa
Salón de Grados de la Facultad de Derecho
10:00-13:00 UPV/EHU- Donostia-San Sebastián
Modera: Ángel Elías

EGITARAUA:

10:00.-Ekitaldiaren aurkezpena
Miren Bermejo. Gipuzkoako Errektoradoordetzako Kalitate zuzendaria.

10:05.-CARME MIRALLES-GUASCH
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Hiri Geografi irakaslea.
"Unibertsitatera nola heldu. Erronka akademikoa"

10:40.-RAFAEL REQUENA
Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan Mugikortasun Kudeatzailea
"Mugikortasunaren kudeaketa unibertsitatean: Bartzelonako Unibertsitate Autonomaren adibidea"

11:15.-JAVIER BENAYAS DEL ÁLAMO
Madrilgo Unibertsitate Autonomoa
CADEPeko Batzordeko Idazkari Ejekutiboa.

12:00.-MAHAINGURUA

PROGRAMA:

10:00.-Presentación del acto.
Miren Bermejo. Directora de Calidad del Vicerrectorado del Campus de Gipuzkoa.

10:05.-CARME MIRALLES-GUASCH
Profesora de Geografía Urbana en la Universidad Autónoma de Barcelona.
"Llegar a la universidad. Un reto académico"

10:40.-RAFAEL REQUENA
Gestor de Movilidad de la Universidad Autónoma de Barcelona
"La gestión de la movilidad en la universidad: el caso de la Universidad Autónoma de Barcelona"

11:15.-JAVIER BENAYAS DEL ÁLAMO
Universidad Autónoma de Madrid.
Secretario Ejecutivo Comisión Sectorial CADEP

12:00.-MESA REDONDA

74. irudia: Mugikortasun iraunkorrari buruzko jardunaldiaren programa (Iturria: UPV/EHU)

- **Informazioa biltzea** Gipuzkoako Campuseko ikastegietako dekanotzetan eta zuzendaritzetan, UPV/EHUren Mugikortasuna Kudeatzeko Esparru Planaren proposamena Ibaetako gunera egokitzeko.
- **Mugikortasun Iraunkorrerako Plan** bat egitea. Jarduketa ildoen artean, nabarmentzekoak dira plan horren sustapenarekin, unibertsitate komunitatearen sentsibilizazioarekin, oinezkoekin, bizikletadunekin eta beste azpiegitura batzuekiko erlazioarekin zerikusia dutenak. Mugikortasun Iraunkorrerako Planaren bidez gauzatutako jarduketa bat Errektoreordetzaren azpitik igarotzen den **bide berezi** bat jartzea izan da, **5. autobus lineari (Universidad Express)** Campuserako sarbidea errazteko, eta ordu jakin batzuetan zerbitzu horrek maiztasun handiagoa izatea ahalbidetzeko.
- 2010ean, "**Mugikortasuna eta garraio iraunkorrak**" izeneko mintegia egin genuen **udako ikastaroen** programaren barnean.
- Mugikortasun iraunkorrari buruzko **sentsibilizazio** kanpainak egiten dira urtero. Kanpaina horietan, **eco-driving ikastaroa** egiten da Energiaren Euskal Erakundearen laguntzarekin (Eusko Jaurlaritza). Ikastaro horretan, irakasleak parte hartzera bultzatzen ditugu, eta ikasleak beren nota igotzeko balio dezaketen lanen bidez motibatzen ditugu. Sentsibilizazio kanpaina horiek AZPko langileentzako mugikortasun seguruari eta iraunkorrari buruzko ikastaro espezifiko bat ere barne hartzen dute, laneko arriskuei buruzko prestakuntzaren barnean ematen dieguna.
- **Mugikortasun iraunkorrari buruzko bi tailer egitea, eta ikasleek tailer horietan parte hartzea**.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Donostiako Udalaren eta KALAPIE Hiriko Txirrindularien Elkartearen lankidetzarekin, **UPV/EHUn Mugikortasuna Kudeatzeko Behatokia** sortzea, esperientziak trukatzeko, eta gauzatutako jarduketak kontrolatzeko eta haien segimendua egiteko.
- Mugikortasun ohiturei buruzko **800 inkesta egitea** Campuseko unibertsitate komunitateko kideei.
- Unibertsitatera joateko edo handik ateratzeko garraio publikoko lineei buruzko **dibulgaziozko liburuxka**.




75. irudia: *Donostibus Unibertsitatera* dibulgaziozko liburuxka (Iturria: D·bus)

- Mugikortasuna Kudeatzeko Behatokia osatzen duten elementuak zehaztea. Segimendua egiteko adierazleak definitzea, proiekturako proposatutako bilakaera adierazleekin bat etorriz.
- **Gipuzkoako Bizikletaren Kontseiluan** parte hartzea. Kontseilu hori Gipuzkoako Foru Aldundiko bizikleten arloko organo iraunkorra eta aholkularia da, gaiarekin zerikusia duten eragile nagusiek osatutakoa.
- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera lan egitea, informazioa partekatzeko. Aldundiaren **BIZIKLETAZ** aldizkaria banatzea unibertsitate campusean.




76. irudia: *Bizikletaz* aldizkariaren webgunea (iturria: http://www.gipuzkoabizikletaz.net)

- Donostiako Udalaren **Bizikletaren Behatokian** parte hartzea. **KALAPIE** Hiriko Txirrindularien Elkartearekin batera lan egitea.

- **Eusko Jaurlaritzaren Garraio Behatokiarekin** (OTEUS) lankidetzan aritzea, informazioa partekatzeko.

Amaitzeko, 2010. urtean, negoziazioak egin ditugu PESA garraio enpresarekin, Bizkaitik etortzen diren unibertsitate ikasleen garraioa erregulatzeko.

# 4 JARDUKETA PROPOSAMENAK

Sarreran aipatu bezala, UPV/EHU hobekuntza kualitatiboko prozesu batean dago une honetan, Euskampus Nazioarteko Bikaintasun Campusaren gidaritzapean. Helburu nagusitzat kalitate eta bikaintasun konpromisoak betetzea du. Euskampusen proiektuaren ataletako bat da "Campusa errotik aldatzea gizarte eredu integral bat garatzeko eta inguruko lurraldeekin eragin trukea izateko". Atal horren helburuetako askok zerikusi zuzena dute mugikortasunarekin.

- Gizarte erantzukizunaren printzipioak unibertsitatearen gizarte funtzioaren zati gisa erabiltzea.
- Balio solidarioak eta unibertsalistak sustatzea, zuzentasuna, iraunkortasuna, osasunaren eta ingurumenaren prebentzioa, eta giza eskubideekiko errespetua lortzeko asmoz.
- Printzipio eta bizitzeko era osasungarriak sustatzea campusetako ikasleen, irakasleen, eta administrazio eta zerbitzuetako langileen artean.
- Unibertsitate komunitatearen mugikortasun ereduak hobetzea, garraiobide seguruagoen, iraunkorragoen, bidezkoagoen eta eraginkorragoen aldeko apustua eginez.

Atal horretako **3. ardatzak**, "Unibertsitate proiektu iraunkor bat", mugikortasun iraunkorra esplizituki aipatzen du, eta honako jarduketa hauek barne hartzen ditu:

- Mugikortasunari eta campusetarako irisgarritasunari buruzko diagnostikoari amaiera ematea, garraio publikoa eta ibilgailu pribatuen erabileraren arrazionalizazioa indartzeko, car pool sistema eta ibilgailuen aparkalekuetako politika murriztaileak sustatuz.
  - Hiru campusetako webguneetan jarrita dago autoa partekatzeko kudeaketa egiteko on line sarbidea.
  - "Leioako Campuserako irisgarritasun azterlana (2005)" eguneratzea, gauzatu beharreko jarduketak zehazteko.

- Unibertsitateko hiru campusetara joateko eta haietatik ateratzeko modu iraunkorragoen erabilera sustatzea, taldeko garraioaren eta, bereziki, garraio publikoaren bidez.
    - Erakunde publiko eskudunekin ditugun harremanei bere horretan eustea, unibertsitate komunitatearen mugikortasunaren aldeko hitzarmenak lortzeko.
    - Garraio publikoaren erabilera sustatzea unibertsitate komunitate osoan.
    - Campusetako iraunkortasunari buruzko webguneak egitea, eta Arabako Campusekoa hobetzea.
    - Gazte Informazio Bulegoak unibertsitateari buruz ematen duen informazioak garraio publikoaren erabilerari buruzko informazioa barne hartzea.
    - Civitas-Archimedes proiektuko jarduketekin aurrera jarraitzea (Gipuzkoako Campusean). Mugikortasun iraunkorra eta garraio publikoaren erabilera sustatzea.
    - Gipuzkoako Ibaeta eremuko aparkalekuak erregulatzea, eta pertsonen eta ibilgailuen arteko bizikidetza hobetzen eta optimizatzen saiatzea.
    - Donostiako Udalarekin Ibaeta eremuko aparkalekua (TAO) erregulatzeko baldintzak negoziatzea. Auto partekatuaren sistema sustatzea.
    - “Barik” txartelarekin autobus zerbitzua merkatzeko negoziazioak egitea Bizkaiko Foru Aldundiarekin.
    - Arabako Campusean, modu aktiboan parte hartzea “Europako Hiriburu Berdea 2012” izendapenarekin zerikusia duten ekitaldietan.
- Garraiobide arinak (bizikleta/oinez) sustatzea Campusaren eta hirigunearen arteko, eta campusen arteko joan-etorrietarako.
    - Campusetara iristeko bidegorriak eta haiei dagozkien elementu funtzionalak sustatzea.
    - Bizikletentzako aparkalekuak hobetzea eta egokitzea, eta haiek areagotzeko bideragarritasun azterketa egitea.
    - Campusetan bizikletak mailegatzeko lekuak jartzea.

- Arabako Campusean, bizikletaren erabilera sustatzen jarraituko dugu, Arabako Campuseko II. Iraunkortasun Jardunaldien bidez. Jardunaldi horietan, Oinarrizko Mekanika Tailerra eta Bizikleta Eraginkortasunez eta Segurtasunez Erabiltzeko Tailerra eskainiko ditugu berriro. Gainera, parte hartzen duten guztiei zerrenda islatzaileak oparituko dizkiegu.

3. ardatzeko kalitateari eta ingurumenari buruzko jarduketetan, mugikortasuna iraunkortasunaren ikuspegitik kontuan hartzen duten beste jarduketa batzuk aurki ditzakegu. Zehazki, honako eremu honetako unibertsitate politikarekin zerikusia dutenetan: UPV/EHUko Iraunkortasunerako Jokaera Kode bat onartzea, UPV/EHUko Ingurumen Iraunkortasunerako Plana egitea eta onartzea, UPV/EHUko Ingurumen Iraunkortasunerako Bulegoa sortzea, eta UPV/EHUko Iraunkortasun Kontseilua osatzea.

Era berean, irakasle eta ikertzaile multzoari dagozkion jarduketetan ere mugikortasunak elementu garrantzitsua izan behar du, iraunkortasunerako aurrerapausoak egiteko osagai gisa. Jarduketa horiek dira, esate baterako, irakasleei iraunkortasun irizpideei buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza eskaintzea, UPV/EHUko titulazioen unibertsitate curriculumean iraunkortasun irizpideak sartzea, eta material didaktikoak egitea.

**4. ardatzak**, “Campus sozial bat, kalitatezko ingurune batean”, honako jarduera hauek barne hartzen ditu:

a) Gizarte bizitzarako inguruneak sortzeko paisaiako elementuak

- Bizkaiko Campuseko jarduketak:

  Leioa-Erandio eremua eta Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko parkeak elkartzen dituzten oinezkoentzako bideen Sare Berdea sortzea, arlo horretako erakunde publikoen laguntzarekin.

b) Unibertsitate bizitza dinamizatzeko elementu arkitektonikoak

- Arabako Campuseko jarduketak:

  Bizitoki gehiago sortzea, honako jarduketa hauen bidez:

  - Ikasleentzako egoitzak eraikitzea Gasteizko hirigune historikoan.

- Bizkaiko Campuseko jarduketak:

  Ikertzaileentzako eta ikasleentzako unibertsitate egoitzen eskaria betetzeko azpiegitura berriak:

  - Leioa-Erandio eremuan ikertzaile eta ikasleentzako egoitza bat eraikitzea.
  - Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola guztiz birmoldatzea, unibertsitate egoitza gisa erabiltzeko.

- Gipuzkoako Campuseko jarduketak:
  - Manuel Agud Querol egoitza handitzea. Egoitza handitzeko lanak hasita daude eta beste 126 pertsonarentzako lekua egongo da.

2.7 puntuak (Unibertsitate campusak ekonomia iraunkorreko eredu baten partaide izatea) honako **3. ardatza** barne hartzen du: <u>Unibertsitatea-hiria-lurraldea</u>. Ardatz horrek campusen garapen orekaturako funtsezkoak diren bi esparrutan bana daitezkeen hainbat jarduketa barne hartzen ditu:

a) <u>Hiri ingurunearen antolaketa fisiko-urbanistikoa eta soziala</u>

Ingurumenaren iraunkortasunarekiko eta errespetuarekiko konpromisoa agerian utziko duten hainbat jarduketa. Haien bidez, bai unibertsitate komunitateak bai herritarrek erabili ahal izango dituzte campusak eta campusetako jolas eta aisialdi guneak.

Esaterako, Arabako Campusean, Campusa Gasteizko Mugikortasun Iraunkorraren Planean sartzeak eta, trenbidea lurperatzen dutenean, hainbat espazio libre gelditzeak egungo mugikortasun iraunkorrerako baldintzak eta Campuserako irisgarritasuna nabarmen hobetzea ekarriko dute. Hori baino lehen, Campusak bat egingo du hiriarekin, Gasteiz 2012ko Europako Hiriburu Berdea izendatu izanaren harira gauzatuko diren programetan parte hartuz.

Bestalde, Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremuan, ibilgailu pribatuen zirkulazioa desagerrarazi egingo da Campusaren erdigunean, eta lur azpiko aparkalekuak egingo ditugu sarrera nagusietan. Bide nagusia autobusek eta etorkizunean Campuseraino iritsiko den tranbiak bakarrik erabili ahal izango dute. Era berean, unibertsitate eremua eta Nerbioi ibaiaren eskuinaldeko parkeak elkartuko dituen Sare Berdea osatzea proposatu dugu.

Gipuzkoako Campusean, Mugikortasun Iraunkorrerako Archimedes Proiektuan lan egiten jarraituko dugu, arlo horretan aritzen diren eragileekin eta, bereziki, Donostiako Udalarekin batera.

b) <u>Garraio azpiegitura garrantzitsuak eta iraunkorrak</u>

Abiadura handiko trenbide sare berriak (Euskal Y) hirien arteko lotura denbora murriztea, garraio publikoko sistema finkatzea eta lurralde osoa mugikortasun iraunkorra ardatz gisa hartuta egituratzea ekarriko du.

Trenbide azpiegitura osatzeko lan horrez gain, UPV/EHUri zuzenean eragiten dioten beste hainbat jarduketa ere badaude martxan, txosten honetako aurreko atal batean dagoeneko deskribatutakoak. Zehazki:

- Gasteizko tranbiaren ibilbidea luzatzea, campusa eta gainerako tranbia sarea lotzeko.
- Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio eremua metroarekin lotzea, Leioako tranbia eraikita.
- Donostialdeko metroaren proiektua sustatzea, Gipuzkoako lurraldearen % 80 baino gehiago Campusarekin lotuta egon dadin.